

# Goienkaria

2008ko ekainaren 6a > Egubakoitza > VIII. urtea > 335. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Tailerrak emakumeendako egokiak ez direla dioen mitoa apurtu behar dugu"

Tontxu Campos  
Hezkuntza  
Sailburua > 09



## BERDINTASUNA

Hizkuntza modu ez sexistan erabiltzeko gida egin du ESK-k > 07

## BERGARA

Urrian hasiko dira kanpoko igerileku egiteko lanak > 15

## ANTZUOLA

I. Arte Maratoian, herriko 15 artistaren lanen erakusketa > 36

## ARAMAIO

Herrian zer eta zenbat energia kontsumitzen den, aztergai > 38



ZATOZ! Bergarako neska-mutikoak gonbita egiten asteburuan Mundumira jaiarekin gozatzen Bergarara etortzeko; ikusi ez ezik, parte hartzeko ere aukera ugari egongo da.

XABIER URTZELAI

JAIAK > MUNDUMIRA

## Bergara, munduko kulturen topagunea

**HIRU EGUN** Aste bukaera osoan, musika, artisautza, erakusketak, ibilaldiak-eta egongo dira aukeran

**AUTOBUSAK** Autobus zerbitzu bereziak ipini dituzte Bergarara joan-etorria erosoa egiteko > 43-45

INGURUMENA > KONPOSTA

Konpostaje planta zabalik dago

Azpeitiko plantak ibarrari ere zerbitzu emango dio > 04

KULTURA > EKIPAMENDUAK

Arkupe kultur etxea, gaur zabalik

Aretxabaletan gaur inauguratuko dute kultur etxea > 02-03

## AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 44-45  
Sailkatuak > 46  
Eskelak > 47  
Denbora-pasa > 48  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

FordFocus Berria 14.900€

Bi zonalako aire-igogailua. Abladura-Kontrola. Egorkortasun-Kontrola (ESP). Trakzio-Kontrola (TCS). Frenoak ez Blockatzeko Sistema (ABS). CD6000 Audio.

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g.  
ARRASATE-MONDRAKÓN

Feel the difference

Ford

**iKER**  
SUKALDEAK:  
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

Zatoz eta ikus itzazu!

**FAGOR**

KULTURA &gt; ARETXABALETAKO KULTURA ETXE BERRIA

# Arkupeko kultura eskaintza erabiltzen has daitezke gaur aretxabaletarra

**BISITA** Martitzenerako bisita gidatua antolatu zuen Udalak; langileek azken ukituekin burubarri ziharduten gaurko dena txukun egon dadin

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA  
Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute Aretxabaletako kultura etxe berria. Hemeretzi hilabetez luzatu diren lanen ostean, aretxabaletarrek azkenik eraikin berria ezagutuko dute, eta hark eskaintzen duen zerbitzu eskaintza zabalaz gozatzen hasiko dira.

Komunikabideek, hala ere, martitzenean eduki genuen Arkupe goitik behera ezagutzea aukera, Udalak antolatutako bisita gidatu baten bidez. Herriko alkate Inaxio Garro eta Kultura teknikari Inma Migel izan ziren lehenengo bisita horretan.

Martitzenean oraindik azken ukitu asko egiteke bazeuden ere, gaur goizeko inaugurazio ekitaldirako dena txukun egongo da.

Kultura etxeak lau solairu ditu. Guztira, 2.355,32 metro koادro erabilgarri ditu. Beheko solairuan, harrera, Zaraia erabilera askotariko aretoa eta erakusketeta gela daude. Sarrera nagusiak, berez, Herriko Plazara ematen du. Baina, plazako lanek irauten duten bitartean, Arkupeko sarrera Santakurtz kalean izango da.

Igogailuaren gainean koadro erraldoia ikusiko dute bisitariek, Iparraldeko Jannette Leroy artis-


**IRALEAN, %100** Gaur inauguratuko dute, baina Arkupek ez du udako oporren ostera arte ehuneko ehunera funtzionatuko

**SANTAKURTZETIK** Sarrera nagusia Herriko Plazakoa da. Baina, obrek irauten duten bitartean, Santakurtz kaletik sartu behar dute herritarrek

**Beheko solairuan  
Zaraia aretoa dago.  
99 lagunendako tokia  
dago han. Formatu  
txikiko emanaldiak  
eta ikuskizunak ikusi  
ahal izango dira han.  
Puntako teknologia  
jarri dute  
horretarako**

tak egindakoa. Zaraia aretoan, 99 lagunendako tokia dago. Formatu txikiko emanaldiak eta ikuskizunak ikusi ahal izango dira han. Puntako teknologia jarri dute horretarako. Erakusketa aretoan, bestalde, Kultura teknikariak esan du Artium museotik ekarritako *Betiko leloak* izeneko erakusketa dagoela gaurtik aurrera.

**LIBURUTEGIAK ETA TXIKI TXOKOA**  
Lehenengo solairuan, liburutegiak eta txiki txokoa daude. Helduen liburutegia hainbat sailetan banatuta dago, hala nola hemeroteca, mailegua, ikus-entzunezko-



Inaxio Garro eta Inma Migel, helduen liburutegiko o

ak, literatura eta Internet. Azken horri dagokionez, zortzi ordenagailu jarri dira. Haurren liburutegia ere antzera dago banatuta. Txiki txokoa 0 eta 4 urte bitarteko haurrendako izango da. Martitzenerako, liburutegi zaharretik ekarritako liburuak dagokien tokian jarrita zeuden.

Bigarren solairuan kultura arloko bulegoak eta aretoak aurkituko dituzte herritarrek. Gainera, argazki artxiboa eta arte ederreren gunea ere solairu horretan

## ARKUPE IRUDIETAN



Dantza aretoa



Umeen liburutegia



Zaraia aretoa



Musika gelak

Arizmendi Ikastolaren LANBIDE HEZIKETA  
**BIHARKO profesionalak**

**>> goi mailako zikloak**  
**>> ingurumen kimika**  
ERAIKUNTZAKO PROIEKTUEN GARAPENA ETA APLIKAZIOA  
OBRA ETA PLANEN BURUTZAPENA  
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN ANIMAZIOA

**>> erdi mailako zikloak**  
ERIZAINTZARAKO LAGUNTA OSAGARRIAK  
ARRETA SOZIOSANITARIOA

AURREMatrikula EKAINAREN 2tik 13ra // 902 11 20 25  
lanbide@arizmendi.ikastola.net // www.arizmendi.ikastola.net/lanbide

**Arizmendi ikastola**



MIRIAN BITERI

denagailuak nola jartzen dituzten begira.

dago, tailer eta zeramika gelein. Azken bi solairuak, Leizarra musika eskolarendako gorde izan dira. Hirugarren solairuan, zuzendartza, perkusio, irakasle eta hizkuntza musikaleko gelak, musika talierra eta dantza aretoa daude.

Azken areto hori dagoeneko 15:30etik 22:00etara beteta dago, euskal dantzen ikastaroekin. Migelek dioenez, bestelako dantzen ikastaroak aste bukaeratan izango dira. Ganbaran, azkenik, musika-tresnen ikasketa gelak daude. Intsonorizatuta dauden hamar gela daude. Arkupe egiko 3.650.000 euro behar izan dira.

#### INAUGURAZIO EKITALDIA

Horrelako obra batek neurriko inaugurazio ekitaldia eskatzen du. Horixe antolatu du gaur goizerako Aretxabaletako Udalak, Arteman enpresaren laguntzarekin. Ekitaldia 11:30ean hasiko da, ikus-entzunezko emanaldiarekin. Jarraian, ordezkarri politikoek hartuko dute hitza. Besteak beste, Markel Olano diputatu nagusiaren eta Maria Jesus Aranburu Kultura diputatuaren bisita espe-

ro da. Dantzarien eta trikitilarien emanaldiak eta Anjel Alkain aktorea zein Pello Ramirez musikaria ere izango dira. Ateak gaur zabaltzen baditzute ere, irailerako ez du ehuneko ehunera funtzionatuko.

#### HAUTETSI INDEPENDENTISTAK


Bestalde, Debagoieneko hautetsi independentistek jakinarazi dute ez direla inauguraziora joango. Azaldu dutenez, gonbita jasotzean, "hasieran, Aretxabaletako egoera Euskal Herriko salbuespen egoeraren beste ondorio garbia zela eta, bertaratzearen zalantza piztu zitzaiungo".

Baina "ordezkari beharko luketen Anjelek, Larraitzek, Iñakik eta Nereak gomberterik jaso ez zutela jakiteak berehala argituko zigun zalantza". Hala, "Españaiko Estatuaz gain, Aretxabaletako Udalak ere, aretxabaletarrek aukeratutako ordezkarri legitimoak kanpo uzten dituztela erakusten dute; beraiek beren modura Alderdienean Legea aplikatz", salatu dute. Inaxio Garrok esan du, horren harira, gonbitak martitzen arratsaldean bidali zitzaiela.



Santakurtz kalera ematen du kultura etxe berriaren fatxadak.

M.B.



Langileak buru-bilarri ibili dira azken egunotan.

M.B.

#### KULTURA EKIPAMENDUA

##### > ARRASATE

Joan den urtean inauguratu zuten Kulturare. Hori zabaldu aurretik Monterronen zegoen ekipamendu gehiena. Txikia zela-eta frantzikotarren eraikina berriztatzeari ekin zioten. Zerbitzu eskaintza zabala du: liburutegia, ordenagailu zerbitzua, erakusketa gela eta erabilera askotariko hiru areto, besteak beste.

##### > BERGARA

Kultura ekipamenduetan dagoen gabeziari irteera ematen hasteko, Zabalotegia aretoa eraikitzetan dihardu Udalak, zuzeneko emanaldi txikiak egiteko. Udazkenerako prest egotea espero da. Epe entertainera, Miguel Altuna institutuan auditorioa eta Seminarioa liburutegia jartzea azertzen dabil.

##### > OÑATI

Kultura etxea ere goitik behera berriztatu zuten orain dela bost urte. Zinema, ume eta helduen liburutegia, mediateka, KZgunea, erakusketa gela eta herriko elkarrekin bileretarako erabiltzen dituzten gelak daude han, besteak beste. Santa Anan, bestalde, antzerkiak egiten dira.

##### > ESKORIATZA

Udala, Huheziren laguntzarekin, azertzen dabil erabilera askotariko eraikina egitea. Aurre-proiektua udazkenerako prest izatea espero du. Aukeretako bat da Santa Anako zinema zaharrean egitea.

##### > ANTZUOLA

Torresoroa gizarte etxe egiten dihardute. Erabilera askotariko gela eta liburutegia han izango dira. Udan hasiko dira gizarte etxeko zerbitzuak martxan jartzen. Olaran etxearen erabilera berrantolatu beharko du orduan Udalak.

##### > ELGETA

Ludoteka eta gaztelekua eraiki behar dute. Proiektua eta baldintza plegua joan zen asteko eguneko osoko bilkuraren onartu zen. Kultura etxearen, berriz, igogailua jarri behar dute.

##### > ARAMAIO

2001ean ireki zuten kultura etxea. Erabilera askotariko aretoa, ludoteka, liburutegia, KZgunea eta gaztelekuaz gain, erretiratutako lokala dago. Sastiñan erakusketak jartzen dira.

##### > GATZAGA

Garro jauregian liburutegia, ludoteca eta areto nagusia daude.

The advertisement features a colorful graphic design with a central flower-like logo containing the letters 'ak'. To the right, the text 'jar ku pe' is written vertically in large red and black letters, with 'kultur etxea' in smaller red letters below it. To the left, the text 'aretxabaleta kultura bizia' is written in white and red. On the far right, the text 'ekainak 6' is displayed in red. At the bottom right, there is a small crest with the text 'Aretxabaletako Udal'.



Lapatxeko plantan egon ziren Foru Aldundiko, Garapen Iraunkorreko, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako eta mankomunitateetako ordezkariak.

GOIENKARIA

DATUA

**250**  
EDUKIONTZI MARROI

Horiek dira, hain zuzen, materia organikoa biltzeko lehenengo fasean jarriko dituzten edukiontziak. Hain justu ere, Aretxabaletan, Azkoitian, Azpeitian, Zumaia, Zarautzen eta Donostian.

ESALDIA

**"Lapatxeko konpostaje planta ondo dago, baina Debagoienean materia organikoa birziklatzeko planta baten beharra dugu"**

Pedro Lasagabaster

> Mankomunitateko presidente ordea

organikoa bi danbor handitan uztzik dute komposta egiteko. Danborrak biratzen joaten dira, deskonposiziorako prozesu organikoa bizkortzeko behar duten beroa ematen zaien neurrian. Danborretan 15 egunean hondakinak tratatu ondoren, komposta kanpoan biltzen da, bi hilabetean, oxigenazio prozesurako. Ziklo hori bukatzean komposta prest dago berriro erabiltzeko. Horretarako, 2.600.000 euro inbertitu dituzte.

**BESTE PROIEKTU BAT IBARRERAKO**  
Urte hasieran Bartzelonara eta Mallorcara egindako bidaian, materia organikoa birziklatzeko beste aukera batzuk ikusi zitzuten Mankomunitateko ordezkarien. "Bartzelonan atez ateko bilketa ikusi genuen; edukiontziak kaleetatik kendu, eta atariz atari joaten dira bila. Sistema hori Debagoienetako oso aproposa dela uste dugu. Gure asmoa da bi sistemak martxan jartzea, eta ondoren parekatu, hobea zein den ikusteko", azaldu digu Pedro Lasagabasterrekin.

INGURUMENA > KONPOSTATZEA

## Aretxabaletan batutako hondakin organikoak, Lapatxeko plantara

Azkoitia, Azpeitia, Zumaia, Zarautz eta Donostiako materia organikoa ere bertara eramango dute

Lapatxeko plantan 2.600.000 euro inbertitu dituzte

**MIREIA BIKUÑA > BERGARA**  
Gipuzkoako diputatu nagusia Markel Olanburu zela inauguratu zuten eguztenean Azpeitiako Lapatxeko planta. 2.600.000 euro inbertitu dituzte, eta 3.500 tona hondakin tratatuko dituzte bertan. Hain zuzen, Aretxabaletan materia organikoa jasotzeak martxan jarriko den esperientzia aitzindari batutako hara eroango dute.

Inaugurazio ekitaldian egon ziren Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabal, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketako zuzendari Jose Ignacio Etxezarreta, Lapatz Zabortegia SAKo presidente Julian Eizmendi eta Gipuzkoako zortzi mankomunitateetako arduradunak; tartearen, Pedro Lasagabaster eta Mikel Jaio, Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak.

### EDUKIONTZI MARROI

Materia organiko kompostagariaren gaikako bilketatik hasita, komposta sortuko duen Gipuzkoako lehen planta da Lapatxeko, eta bertan tratatuko dute Aretxabaletan, Azkoitian, Azpeitian, Zumaian, Zarautzen eta Donostiako Amara auzoan birziklatutako materiala.

Guztira, marroi koloreko 250 edukiontzia jarriko dituzte. "Informazioa zabaldu behar dugu, Aretxabaletan, zenbat familia animatzen diren ikusteko. Kopuru horren arabera jarriko dituzte edukiontzia. Gero, familia bakoitzak edukiontiaren giltza, etxerako ontziak eta hondakin organikoak biltzeko poltsa bideograda garriak jasoko ditu", esan digu Pedro Lasagabasterrekin.

Kompostaje programaren arrakasta gizartearren parte-hartzean dago. "Markel Olanok esan duen moduan, erabiltzaileak dira importanteenak. Banaketa lekuak

### DEBAGOIENERAKO PLANTA

Debagoineneko Mankomunitateko ordezkarien begi onez ikusten dute Lapatxeko planta, baina ibarrean materia organikoa tratatzeko planta beharrezkoa dela uste dute. "Esku artean dugun proiectu bat da. Debagoienean planta bat behar dugu, eta horren aldeko apustua egin behar dugu. Epele toki aproposa izan daiteke

planta jartzeko", dio Lasagabasterrek. Baina, bitartean, Lapatxera eroango dituzte Aretxabaletako hondakin organikoak.

### KONPOSTATZE PROZESA

Azpeitiako plantan 3.500 tona hondakin tratatzea aurreikusten dute, eta 2016. urtean 60.000 tonaraino iristeko asmoa dute. Edukiontzi marroietan jasotzen den materia

## BERGARAN BILA ZABILTZANA

Logela bateko etxebizitzak 152.000 ?-tik aurrera



San Lorenzo  
ETXEBIZITZAK

ARGIBIDEAK ETA SALMENTA  
**943 424 430**



[www.ormak.es](http://www.ormak.es)

ERAIKUNTA ETA SALMENTA



**72**

etxebizitza, 1, 2, 3, 4 logelakoak, eta duplexak, garajeak eta trastelekuak

Juanito Arriaran > ATCOREko kidea

# "Gero eta emaile gutxiago dagoelako beharrezkoak dira sentsibilizazio kanpainak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE  
Odoleta organo emaileen kopuruak behera egin duela-eta, sentsibilizazio kanpaina jarri dute martxan Diputazioak eta emaileen elkartek. Juanito Arriaran arrasatearra-rekin egon gara; Arriaranek orain dela 10 urte bihotza jaso zuen. Emaile izatearen garrantzia berba egin digu.


Emaile kopuruak behera egin du istripu gutxiago daudelako eta familiak ezezko gehiago dagoelako. Zer diozu?

Orokorrean, esango nuke emaile kopurua jaitsi egin dela. Istripuetan gertatzen dena da istripu kopurua ez dela jaitsi, baina bai istripuen ondorioz emaile izateko dagoen aukera. Gero eta emaile gutxiago dago; horregatik, kanpainak egin behar dira emaile gehiago bilatzeko.

Lehen uste genuen kupo beteta geneukala, baina ez da horrela izan, jaitsi egin da-eta emailea kopurua. Uste dut lasaitu egin garela; bai emaileak eta baita herritarra ere.

**Odol falta ere badela esan dute medikuek.**

Bai, hori ere horrela da. Gainera, zorionez, istripuetan gero eta hildako gutxiago daude; bai-



Juanito Arriaran.

na zaurituek odola behar dute. Istripu kopurua ez da jaitsi; horrenbestez, behar den odol kopurua ere ez.

**Zergatik uste duzu jaitsi dela emaile kopurua?**

Nik uste dut lasaitu egin garela. Gainera, guri ez zaigunean ondoan horrelako ezer gertatzen ez gara arazo hauetaz ardura-tzen. Besteak zerbaite dela uste dugu. Bestalde, jende askok esaten du emaile izango litzatekeela, baina denborarik ez duela, edo adinik ez duela... Beti dago aitzakiaren bat. Utzi egiten dugu eta azkenean ahaztu egiten gara.

Hortaz, derrigorrezko da sentsibilizazio kanpaina.

Bai, bai... Nik uste dut, gainera, aurrerantzean urte guztian ibiliko garela kanpaina. Izan ere, beharrezkoak ikusten dugu jendea arazoaz konturatzea. Donostian izango gara domekan: Grosen eta Kontxan. Hilaren 23an Arrasaten izango gara, eta baita Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere. Emaile falta dago eta beharrezkoak ikusten dugu horrelako kanpainak egitea.

**Uste duzu informazio nahikoa ematen zaiela herritarrei?**

Ez, informazio gutxi ematen da. Jende askok ez du jakiten zer-tarako izaten den. Gainera, bes-te batzuk ideia okerrak zabaltzen ibiltzen dira; esaten dute organo-ekin salerosketak egiten direla. Eta hori ez da horrela: Espania mailan ez da hori onartzen. Baina nahikoa da horrelako albiste bat ateratzea denak berdinak garela pentsatzeko.

**Ze mezu zabaldu gura duzu?**

Orain beste bat gertatu zaiona agian bihar zuri gertatu ahal zaizula. Gainera, emaileak esan egin behar du familiak emailea dela bere azken nahia betetzeko. Bada, familiak du azken berba.

SAHARA > LAGUNTZA

## Deialdia egin dute udan etorriko diren Saharako haurrak diruz laguntzeko

Tindouf hiriko errefuxiatuen kanpamentuetatik 12 haur etorriko dira; ekainaren 23tik abuztuaren 23ra.

A.E. > BERGARA

Arrasateko (Nubi) eta Aretxabaletako (Iesbaa) Sahararen Lagunen elkartetatik deialdia egin dute udan etorriko diren Saharar haurrei laguntzeko. Orain arte familiak arduratu izan dira haurren gastu guztia ordaintzen; baina, urtetik urte-ka etxeen hartzen dituzten familiak kopuruak behera egin due-la ikusirik, aurten, taldean etorriko dira haurrak.

**BI HILABETE ETORRIKO DIRA**

Haurrak Argeliako Tindouf hirian dauden saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik etorriko dira; guztira, 12 haur. Bi hilabete egongo dira gurean, hain zuzen, ekainaren 23tik abuztuaren 23ra.

Haur horiek bi hilabetetan izango dituzten gastuei aurre egiteko dirua batzea da deialdiaren helburua. Hainbat ekin-tzen bidez dirua batzen dabil-tza; baina, oraindik asko falta

zaie eta haurrak laster etorriko direla kontuan hartuta deialdia egitea erabaki dute.

**EKITALDIAK**

Datozen egunei begira bi eki-taldi garrantzitsu antolatu dituzte. Batetik, ekainaren 13an, Aretxabaletan, jaia egingo dute bi elkartek. Han, bes-teak beste, dantz sahararra egiteko aukera eta tea dastatzeko aukera egongo da. Gainera, bingoa egongo da, opari ugari-rekin. Bestetik, ekainaren 14an, Gobernuz Kanpoko Erakunde-ek antolatutako Elkartasun Festa egingo da Arrasaten. Saharako txokoan egongo dira: Saharako tea, dantzak, eskulanak,... Gainera, Ekin Emakumeen elkartek taloak egingo ditu proiektuan laguntzeko.

Gainera, hiru kontu korronte ireki dituzte gura duenak diru sartzeko: Euska-diko Kutxa 3035 0002 16 0020047050; La Caixa 2100 6838 48 0200002671; eta, Kutxa 2101 0055 67 0126379429.

**MUNDUMIRA**

Mundumira jaiaren barruan, etzi, domeka, hitzaldia egingo dute 12:00etan Fatma Mohamed Salem eta Saharako kooperazio ministroa den Salek Baba Has-sanak. Aranzadi ikastolan izango da hitzaldia.

UR HORNIKETA > BISITA ANTOLATUA

## Uraren zikloa ezagutzeko, Urkulura bisita egin zuten

Gipuzkoako Ur Kontsortzioak gonbidatuta, ibarreko hainbat alkate eta zinegotzi izan ziren

A.E. > ARETXABAleta  
Gipuzkoako Ur Kontsortzioak gonbidatuta, Debagoienean kon-tsumitzen den uraren zikloa ezagutzeko aukera izan zuten alkate eta zinegotziek astehenean. Urkuluko urtegia eta uraren bil-keta eta tratamendu instalazio-ak gertutik ikusi zituzten.

Urak etxeko iturrietara iritsi arte jasotzen duen tratamendua eta ur zikinak nora doazen azal-tzea izan zen bisitaren helburua. Legealdi bakoitzean egiten duten ohiko bisita dela azaldu ztuen Ur Kontsortzioko arduradunek.

**URKULUKO PRESAK 28 URTE**

Iñigo Elosegi Ur Kontsortzioko zuzendariak eta Josetxo Saizar teknikariak eman zituzten urtegiaren gaineko azalpenak. Urkuluko urtegiko presa orain dela 28 urte egin zen, eta garai hartan egin zen lehena izan zen. "Presaren gorputza material soltez egin-

da dago, eta uraren bultzadari eustea eta urik ez galtzea da pre-saren eginbehar nagusia", azaldu zuten Saizarrek.

Presaren oinarria 150x200 metro da; altuera, ostera, 50 metro. Urkuluk 10.000 milioi litro ur batzeko gaitasuna dauka, eta inguruko 14 kilometro koadroko azaleran jausten den ura batzen du. Urkulutik 6.000 milioi litro ur ateratzen dira urtean; eta 65.000 biztanlek edaten dutela Urkuluko ura azaldu zuten Saizarrek.

**EDATEKO URA**

Ur naturala edateko ura bihurtzeko Urkulun dagoen araztegia bisitatu zuten ondoren. "Ura mikroorganismo patogeno eta substantzia toxikorik gabe geratu behar da, eta baita usain eta zapore edo kolore barik ere", zioen Saizarrek. Lehenengo oxidi-datu egiten da, ura ozonoarekin



ARAZTEGIA Edateko Uren Araztegiko bisitan, Josetxo Saizar azalpenak ematen.

nahastuta. Hala, burdina eta manganesoa oxidatzen dira. Gero dekantazioa egiten da; modu horretan, solidoen banaka-ta errazten da. Iragazketaren

bidez aurreko fasean kendu gabe-ko partikula txikiagoak kentzen dira. Azkenik, fluorra eta kloroa gehitzen dira. Fluorrak kare-maila jaisten du eta kloroak ura

desinfektatzen du. Hala, edaten dugun urari buruz zerbait gehia-go ikasteko aukera izan zuten ibarreko ordezkariek astelehe-nean.

EKONOMIA &gt; TORLOJU IMPORTAZIOA

# Txinako torloju egileek zerga ordaindu beharko dute gurean saldu nahi badute

Duela bi urte Txinatik zetozentorlojuen importazioaren aurka aurkeztu zuten demanda onartu dute eta neurria laster jarriko dute martxan

**JASONE ZABALA > BERGARA**  
Finkatze elementu metalikoen fabrikatzaileen elkartea (ASEFI) bilera egin zuen martitzenear Bergarako Miguel Altuna institutuan. Bertan, finkatze elementu metalikoak eta torlojuak egiten dituzten 35 empresa inguru bildu ziren, eta horien artean Debagoieneko 12 empresa izan ziren. ASEFIko ordezkariek ere egin ziren bertan, elkarteko presidente Francisco Castellanos ere bai.

**ZERGAK IPINTZEA**

ASEFIk Txinatik datozen torlojuen importazioaren gainean demanda jarri zuen, hemengo enpresei lehengaiak erostea kos-



Asefiko kideak, martitzeneko agerraldian.

JASONE ZABALA

tatzen zaiena baino prezio txikiagoan saltzen dituztelako Txinako produktuak, eta hori aztertu dute Europar Batasuneko komisioan.

Horrela, konpetentzia leiala lortzeko asmoz, lortu dutena da Txinatik datozen torloju eta finkatze elementuei zergak ipintzea, sek-

torean dagoen krisia -batez ere Euskadi mailan- ekiditeko asmoz. Horregatik, 2006. urtea ezkerro kudeaketa ezberdinak eraman

**ESALDIA**

"Abuztuaren 8an hasita ipiniko die Europar Batasunak zergak Txinako produktuei, horrela Europako merkatua babestuz"

Francisco Castellanos  
> ASEFIko presidente

ditu elkartea aurrera, eta kudeaketa horretan lortutako emaitzak aditzera eman zituzten ASEFI elkarteko kideek, martitzenear Bergaran. Elkarteko presidente Castellanosen ustez, "abuztuaren 8an hasita ipiniko die Europar Batasunak zergak Txinako produktuei, horrela Europako merkatua babestuz. Horrek sektorearen hobekuntza dakan". ASEFIk aurkeztu zuen demandak sektore horretako Europako elkartearren babesera izan du, besteak beste Frantzia, Espainia eta Alemaniarena.

Mundumira  
munduko kulturen festa

eskainak 6/7/8  
Bergara-Debagoiena

**Munduko musika (Alpha Blondy, Tasha's World, Oreka TX, 08001, Derviches del Cairo...), eskualdeko taldeak (Belceblues, Mahaster River) mendi ibilaldiak, kultur ibilaldiak, BTT frogak, senderismoko azoka, artisautza azoka, kale animazioa, elkartasun foroa,...**

**Erabili garraio publikoa!  
Autobus zerbitzu bereziak!**

**Informazio gehiago:**

[www.pesa.net](http://www.pesa.net)  
902 10 12 10

[www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com)  
943 79 64 63 • 943 71 89 11

[www.mundumirafesta.com](http://www.mundumirafesta.com)



**DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA**

**TURISMOA**

ESK > BERDINTASUNA

"Hizkera ez da sexista, hiztunok bihurtzen dugu hizkera sexista", eta horrekin apurtzeko argitaratu dute gida

"Emakumea edo gizona izendatzeko dagoen simetria falta berdintasun faltaren sustatzailea da"

A.BARRUSO/N.MENOR > ARRASATE ESK sindikatuak hizkera ez sexistaren gaineko gidaren aurkezpena egin zuen martitzenean Arrasateko Kulturaten. Sindikatuak aurrera daroan Gizon eta Emakumeen Arteko Berdintasuneko Planaren barruan kokatzen da gida eta hizkeraren erabilera duen garrantziari buruz hitz egiten du. Bertan, emakumeak kontuan hartuko eta bigarren maila batean utziko ez dituen hizkera egokia lortzeko pausoak ematen dituzte.

Gida hiru zatitan banatuta dago: lehenengoa teorikoa da, eta hizkera sexista erabiltzeak duen eraginaren ingurukoa da. Bigarren zatia praktikoa da; bertan, zenbait aholku eta adibide biltzen dira. Azkeneko zatian, hizkuntza diskriminatzalea baztertzeko konpromisoa hartzen du sindikatuak. Mundu sindikatua begira egin dute gida, eta bertako kideen artean banatzeko asmoa dute ESK-koek. Hala ere, bizitzaren alor guztieta erabilgarria dela uste dute, eta gida jasotzeko interesa dutenek ESK-ko egoitzetan eskuratu ahal izango dute.

ESK-ko kideentzat, hizkuntza, garai ezberdinietan zehar eboluzionatzen doan gizarte erakuntza da, gizarte batetik bestera aldatzen dena. Hizkuntza erabiltzen den bitartean, aldatu doan zerbaite dinamikoa da, eta hiztunek zeresan handia dute

# ESK sindikatuak hizkera ez sexistaren gida aurkeztu du

bide horretan. Sindikatuaren ustez, hizkera ez da sexista, hiztunok bihurtzen dugu hizkera sexista, eta horrekin apurtzeko argitaratu dute gida. "Hizkera era sexistan erabiltzen badugu, iragan bat oinordetu dugulako da. Iragan horretan, emakumeak bizitza publikotik egotziak izan ziren".

"Badakigu ez garela horrelako abentura batean sartzen garen lehenengoak eta ez ditugula aurretik planteatu ez diren ideiak ematen. Hala ere, benetako berdintasunaren aldeko bidean gure ekarpentxo egin nahi izan dugu.

Guztiok barneratzen gaituen eta sexista ez den hizkera baten aldeko apustua egiteko momentu ona dela uste dugu, Berdintasun Plannaren faseak erredaktatzen ari baitira. Bertan, lengoaia, irudi, emanaldi eta edukiei generoaren perspektiba gaineratzeko nahia agertzen da".

Gizonezkoa eta emakumezko modu simetrikoan aipatzen direla egiazatzeko esaldiari buelta eman beharko genioke ESKren ustez. Horrela, gizona emakumearen tokian jarri beharko genuen eta alderantziz. "Gizonezkoaz ari garenean bere profesionaltasuna-

ren gainean hitz egiten badugu eta emakumearen kasuan bere estetikari buruz, ez da tratamendu simetrikorik egiten bi sexuen artean", diote sindikatutik.

## HAINBAT ADIBIDE

Emakumea edo gizona izendatzeko dagoen simetria falta berdintasun faltaren sustatzailea da baita ere; hau da, emakume batu buruz gabiltzanean, izena edo izena eta abizena erabiltzen da, eta gizonezkoen kasuan abizenarekin nahiko izaten da. Askotan, emakumezko sexu ahula bezala agertzen da hainbat esal-

ditan, eta pasibotasun kutsua ematen zaie, ondorengo hitz eraikuntzetan adibidez: neskak zinemara eramatzen dituzten mutilak, edo emaztea afaltzera ateratzen duten gizonak.

Espainolaren inguruan, hizkuntza androcentrista dela diote, eta ez zaie balio "española horrelakoa da" argumentua. Hizkuntza sexista dela frogatzeko hainbat adibide dituzte. Lehenengo, gogorazten dute, emakumearen aipamena askotan ama edo emazte izateagatik bakkrik egiten dela. Gauzak horrela, *señora* edo *señorita* erabiltzen da emakumea ezkondu edo ezkon-gabea denean, eta gizonezkoen *señor* bi egoeretan erabiltzen den hitz bakarra da. Ordenamendu hierarkikoa dagoela ere badiote, "gizartean dagoen hierarkiaren isla dena". Nortasun agirian, adibidez, *padre y madre, hombres y mujeres eta hermanos y hermanas* idazten da, hurrenez hurren.

## GIDAREN EZAGUARRIAK

### > 'GAIAK'

ESK sindikatuak argitaratzen duen *Gaiak* aldizkariaren apirileko zenbakian dator gida hori modu monografikoan landuta. Euskara eta español, biak darabilte gidan.

### > 30 ORRIALDE

Hizkuntza baliabideak era ez sexistan erabiltzeko arrazoak eta informazioa ematen dira.

### > ZAZPI PUNTU BILTZEN DITU

Sarrera, hizkera sexistaren inguruko informazioa, adibide praktikoa, sexismoa euskaran, glosarioa, sindikatuaren konpromisoa eta gomendatutako irakurketekin batera bibliografia.

### > GLOSARIO SINDIKALA

Glosarioari beste atalei baino orri gehiago eskaintzen zaizkio.

ARKAUZ MUEBLES ARETXABAleta

ETXE MOBEL ALTZARIK ARRASATE

ARKAUZ COCINA INTEGRAL ARETXABAleta FAGOR banatzalea ofiziala

ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS ARETXABAleta expert banatzalea ofiziala

GRUPO ARKAUZ ARETXABAleta • ARRASATE 1950-2008

Arkaus zure etxea da.

OSPAKIZUNA > ELORREGIKO GURUTZE GORRIA

## Gurutze Gorriak, 25 urte

Omenaldia egin die auzotarrei Elorregiko Gurutze Gorriak, 25 urteotan emandako laguntzarengatik

N.M. > BERGARA Joan den domekan, Elorregiko Gurutze Gorriko kideek auzoari omenaldia egin zioten, urte hauean izan duten harremanarenengatik eskerrak emateko. "Postua jarriten hasi ginenean auzokoek asko lagundu ziguten, bertakoen eta boluntarioen artean eraiki genuen guztia. Hura gogoratzen geundela horrelako omenaldi bat egitea pentstu genuen" dio Jon Anduagak, Elorregiko Gurutze Gorriko voluntarioetako batek.

Ordutik, gauza asko aldatu dira: egun 100 boluntario dituzte eta anbulantzia batekin hasi arren, orain hiruzpalau dituzte, bi mikrobus, erreskateko unitate bat eta mendiko erreskateko beste unitate bat. Baino badira 25 urtetan aldatzen ez diren gauzak. "Beti hor izan ditugu auzokoak eta asko eskertzen diegu urte hauean jaso dugun tratua. Elkarteak ere sarritan laga digute afariak egiteko eta guk ere auzokoei lagundu diegu deitu digitenean".

### OMENALDI BIKAINA

Auzokide eta Gurutze Gorriko zuzendariekin 75 pertsona inguru hartu zuten parte domekako omenaldian. Goizeko mezzaninak hasi zen jaialdia. Bertan, Aretxabaletako koralak abestu eta gero, txalapartariekin jo zuten eta Elkartera joan ziren. Han, Gurutze Gorrikoek plaka bat eman zieten auzokideei eskerrik emateko. Amaitzeko, guztioi batera lunchera joan ziren. "Oso ondo pasatu genuen", dio Jon Anduagak.

Argi geratu zen, beste behin, bailarako Gurutze Gorria eta Elorregi eskutik doazela.



Eguerdira arte jai giroa nagusitu zen joan zen domekan Elorregi.

J.A.

## gure artekoak

**FORD KUGA** > Ford etxearen azken nobedadea, Kuga autoa, joan den astean merkaturatu zuten. Ford Mugarri etxeko Rafa Etxabek aurkeztu du Kuga berria. Auto normal baten kontsumoarekin, 4x4aren prestazioak ditu.

Rafa Etxabe > Ford Mugarri etxeko saltzailea

## "Ohiko kontsumoarekin prestazio onak ematen ditu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Ford etxeak merkatura ateria duen azken autoa da Kuga berria. Rafa Etxabek azaldu duen moduan: "4x4 trakzio sistema aukera ematen du Kugak. Erre-pidean aurreko gurpiletako trakzioa erabiltzen du autoak; baina, mendian sartzen zarenean, autoak berak bakarrik 4x4 trakzioa sartzen du".

Gehien salduko dena 4x4 trakzioduna izango dela dio Etxabek; hala ere, badago aukera ohiko autoen trakzioa bakarrik aukeratzeko. "Bertsio arina izango litzateke; mendiko autoen segurtasuna eta altuera du, baina trakzioa aurreko gurpiletan dauka", azaldu du Etxabek.

### MOTOR AUKERA BAKARRA

Oraingo motor aukera bakarra merkaturatu dute: 2.0 TDCI, 138 zaldi potentziakoa. "Baina uda ostean beste aukera batzuk jarriko ditugu merkatuan: gasolinako 115 eta 200 zaldi potentziakoa eta dieselezko 175 zaldi potentziakoa", dio.

### SEGURTASUNA

Ezaugarri azpimarragarriena, duda barik, erosotasuna da, Etxaberen beretan. Ohiko autoen kontsumo berarekin, prestazio handiak lortzen ditu. "Mendian



Rafa Etxabe, Mugarri aurrean Kuga auto berriarekin.

ARANTZAZU EZKIBEL

### Ford Kuga 2.0 TDCI 138 ZP

Prezioa	28.850 euro
Luzera	4,44 metro
Zabalera	1,84 metro
Maletategia	410 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	8,2 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	180 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	10,7 seg.
CO2 isurketa	169 g/km

(1) Gehienezko edukiera

(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta

(3) Gehienezko abiadura

ondo doan autoa da, eta baita erre-pidean ere; gainera, gidatzeko orduan segurtasun sistema guztiak ditu", gogoratu du.

Prezioaren barnean sartzen diren segustasun sistemak onak dira: ABS, EBD, ESP, sei airbag, trakzio kontrola eta lainoaren aukako argiak aurrealdean eta atzealdean, besteak beste.

Gainera, atzealdean atoia lotzen baduzu, sistema berezi baten bitartez, autoak atoia atzemana eta horren arabera neurruko ditu indarrak. Bestalde, diseinu "polita" daukala dio Etxabek: "Denen gustukoia izan da".

## etxeko leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredaktore burua

## Zahar eta gazte, badugu elkarri zer erakutsi

Trenez egin dut Bartzelonara azken bidaia eta onartu behar dut ondo joan zela: zortzi ordu horretan eman banituen ere, orain liburua irakurri, gero kafetegira joan... ez zitzazkidan oso luzeak egin. Baino ni baino gus-turago joan ote ziren Sergio eta Jose Migel... Iruñean igo zen lehena eta hurrengo geltokian bigarrena. Nigandik oso hurbil, elkarren ondoan esertzea egokitu zitzaien eta esan-go nuke lagun egin zirela! Hirurogeita hamar bat urte izango ditu Jose Migelek, eta hoge-i-hogeita bost Sergiok. Bere-

**"Ogitarteko bana janda, garagardo bat hartzera gonbidatu zuen gazteak nagusia"**

ondoko doan autoa da, eta baita erre-pidean ere; gainera, gidatzeko orduan segurtasun sistema guztiak ditu", gogoratu du.

Prezioaren barnean sartzen diren segustasun sistemak onak dira: ABS, EBD, ESP, sei airbag, trakzio kontrola eta lainoaren aukako argiak aurrealdean eta atzealdean, besteak beste.

Gainera, atzealdean atoia lotzen baduzu, sistema berezi baten bitartez, autoak atoia atzemana eta horren arabera neurruko ditu indarrak. Bestalde, diseinu "polita" daukala dio Etxabek: "Denen gustukoia izan da".

### > Bestelako argazkia

jaso nuen itzuleran.

Autobusak geldialdia

egin zuen Alfajarinen.

Dotore jantxitako bost

gizon-emakume elkarri

oihuka ari ziren, eure-

kin zegoen ume gizara-

joaren presentzian.

### > Irizarrek egindako

autobus ugari zegoen

han; Mondragon Talde-

tik ateratzea erabaki

duen enpresak, bai.


Denetarik entzun dut,

baina nago ahaztu ote

zaien orain urte batzuk

nork lagundu zien.

## begi-bistan



### Arrain-saltzailea Elgetan (Elgeta) 2008/05/07

Argazkia: Mireia Bikuña.  
Testua: Mireia Bikuña.

Arrain-saltzailea astean behin joaten da Elgetara, arraindegirik ez dagoelako. Elorriotik joaten da furgonetarekin arrain freskoa saltzena eguztenetan, eta elgetarrek biziki eskertzen diote!

### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

## izen propioak




Pernan Goñi

ILUSTRATZAILEA



Ruper  
Ordorika

MUSIKARIO



Ander Gartzia

SASKIBALOI  
JOKALARIA

Oñatiar ilustratzai-leak Juul saria jaso zuen maiatzaren 29an, Iruñeko Jaso ikastolan.

Nafarroako Ikastolen Elkarteak antolatzen duen haur eta gazte literaturako saria ikastetako ikasleen eta gurasoen botoek erabakitzenten dute zeintzuk diren irabazleak.

Euskal Herria Zuze-nean (EHZ) jaialdian joko du Oñatiako musikariak, ekainaren 27tik 29ra. Zuberoan egingo den azken jaialdian parte har-tuko dute, besteak beste, Latzenek, Ojos de Brujok, Tonino Carotonek, Akerbeltz eta Esne Beltzak.

ACB ligako txapel-dun da Ander Gartzia bergararra TAU taldearekin, martitzenean, finaleko hirugarren partidua irabazi ondoren. Bartzelonen aurka 3-0 nagusitu dira. TAUk lau final jokatu ditu aurten eta bi irabazi ditu: superkopa eta liga.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Tontxu Campos Bergara-

ko Migel Altuna institutuan izan zen astelehenean, Maiatz proiektuaren berri ematen. Aurkezpe-

naren ostean, esandako egitasmoaz, Lanbide Heziketaz, unibertsitateaz eta, epe laburrera

begira, hezkuntza sistemak dituen erronken gainean hitz egin digu, besteak beste.

Tontxu Campos > Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

# "Tailerrik emakumeendako egokiak ez direla dioen mitoa apurtu behar dugu"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Lanbide Heziketak bizi duen egoera ona azpimarratu du datozen lerroetan, besteak beste, Tontxu Campos sailburuak. Alorrik, hala ere, arazo bat duela ohartarazu du: emakumearen presentzia txikia dela, bereziki, industria sektorean.

Lehenik eta behin, zertan datza Maiatz proiektua?

Akronimoa da, Migel Altuna Institutuko Alanbrearen Teknologien Zaintzarena; abizen moduan, hotzezko estanpazioa du horrek. Ingurunean garrantzi handia dute hotzezko estanpazioari aritzenten diren enpresek. Momentu batean, horiek konturatu ziren langile trebatuagoak behar zituztela. Horrekin batera, enpresa txikiak eta ertainak izanda, teknologia hobetu behar zela ere aurreikusi zuten.

Gauzak horrela, Migel Altunak eta enpresari batzuek proiectua diseinatu dute elkarlanean. TKnika, Lanbide Heziketarako Berrikuntza Zentroaren bitarte, hiru irakasle liberatu dira horretan buru-balarri aritzeko. Une honetan azpiegitura guztia martxan da. Ekipamendu eta tresneria bikaina dute.

Zein da gaur egungo Lanbide Heziketaren egoera?

Berrikuntzara zuzenduta dago. Galdera zaharrei erantzun berria ematen eta galdera berriak geure buruari jartzen lanean gabiltza buru-balarri. Momentu honetan, toki guztietatik dator kigu jendea, Lanbide Heziketan zer eta nola egiten ari garen aztertzeko. Beraz, nik esango nuke munduko mailarik altuenetan gaudela. Gero eta irudi hobeak du.

Daukagun arazoa da industria alorreko zikloetan oraindik ez dela nabaritzen emakumearen presentzia behar beste. Gure gizartearen tailerrak emakumeendako ez direla egokiak sinesten da oraindik. Mito hori apurtzen saiatzen ari gara; ez da egia, errealityateak kontrakoak adierazten du.

Emakumearen presentzia hitz egin duzu. Industrian agian ez, baina gero eta gehiago dira Lanbide Heziketa aukeratzen dutenak... Ez da horrela?

Bai, hala da. Joera da gero eta emakume gehiago joaten dela Lanbide Heziketako ziklo bat egitera. Migel Altuna institutuko tailerra bisitatzen izan gara eta emakume asko ikusi ditut han. Bainan oraindik asko dago egiteke. Lanbide



Bergarako Migel Altuna institutuko tailerrean izan zen Tontxu Campos sailburua.

MIRIAN BITERI

Heziketa aukeratzen dutenen artean, %93 mutilak dira eta %7 neskatik. Emakumeek zerbitzu alorrean dauden lanbideei begira daude, eta ez hainbeste industriako sektorean daudenei. Industriaren ekarpena produktu gordinaren %31 da gure herrian, eta, horren bestez, horri begira ere egon beharko lukete.

Bestalde, unibertsitatea aztiratuta dabil azkenaldian. Juan Ignacio Perez Iglesiasen ezin izan dio karguari eutsi eta abendura arte bitarteko presidente moduan jardungo du. Nola eragiten dio hori unibertsitateari?

Errektoretza taldeak aurrekontuan zituen proiektuak eta Bognari eta ikerkuntzari begira dauden egitasmoak aurrera aterako dituela espero dut. Talde berria atera arte, zilegitasun osoa dauka. Kontrakoak ez luke zentzurik izango. Nominak ordaintzeko bakarrik ez da beharrezko errektoretza taldea.

## LANBIDE HEZIKETA

**"Munduko mailarik altuentenat gaude Lanbide Heziketan; gero eta irudi hobeak du"**

## UNIBERTSITATEA

**"Talde berria atera arte, errektoretza taldeak zilegitasun osoa dauka, kontrakoak ez luke zentzurik izango; nominak ordaintzeko bakarrik ez da behar"**

## IKASTOLAK-KRISTAU ESKOLAK

**"Esparru horretan gizarteak erabaki iraunkorra hartu behar du; esaterako, Eusko Legebiltzarrean"**

Ikasle kopurua urtetik urtera behera doa unibertsitatean. Zergatik?

Egun, 1996an zeuden ikasle kopurua berreskuratzen ari gara. 2014. urterea arte jaisten joango da kopurua. Hortik aurrera, espero dugu gora joatea apurka. Hori da daukagun gizartearen ezaugarrietako bat. Jaiotze tasak horrelakoak izan ziren orduan. Gazteen kopurua txikiagoa da, eta baita ikasle kopurua ere.

Curriculum berriak kritika asko jaso ditu. Batzuek diote euskal nortasunik ez duelak; beste batzuek, beriz, gazteleira ikasgelatik ateratzeko balio duela. Zer deritzozu horri?

Gauza bat eta bestea aldi berean izatea ezinezkoa da. Hitz egin baino lehenago, curriculuma irakurri behar da. Nik ulertzten dut orri asko direla eta hizkuntza jorratuan landuta dagoela, baina ezin dira kritikak egin gauzak irakurrik gabe.

Ikastolek eta kristau eskolek finantzaketa osoa eskatu dute. Zelan ikusten du hori Hezkuntza Sailak?

Irakaskuntzaren sare publikoaren eta hitzartuaren artean egon behar duten orekak gizarte mailan erabaki behar ditugu, gai hauek nahiko sentiberak direlako. Esparru horretan gizarteak erabaki iraunkorra hartu behar du; esaterako, Eusko Legebiltzarrean. Hartara, erabakiko dugu nolako hezkuntza sistema izatea.

Zeintzuk dira hezkuntza sistematikak epe laburrera dituen erronak?

Orain arte, ahalegindu gara hezkuntzari baliabideak ematen eta egun, ahalegina egin beharko genuke horiek gero eta hobeto erabiltzen. Hezkuntza sisteman helburuak izan behar du gazte guztien arrakasta lortzea. Horretarako, dauzkagun baliabidee etekinik onena ateratzen saitatu beharko genuke.



zabalik

Andoni Urtzelai

## Mundua aldrebets

**B**adirudi, sinesgaitza bada ere, Espainiako empresarik bote-retsuenak iraultzaile bihurtu zaizkigula derrepente. Hara, badago iragarki bat, Endesarena hain zuen, non haurrak ageri zaizkigun mundu berri, justuago, ekologikoago, gizatiarra-go bat aldarrikatzen. Zera diosku spotak: *¿Te imaginas lo bonito que sería cambiar el mundo?*

Repsolek ere badu bere anuntzio ezkertiar propioa: gorputze-ko atal ezberdinan marraztutako tatuajeen bidez gizakiaren poten-ziala erakusten zaigu, eta bukaeran, Che Guevarak berarentzat nahi lukeen ahots sendo eta konprometituaz zera diosku: *Inven-temos el futuro.*

Orange giza eskubideen defentsan atera zaigu: *Ahora, tienes derecho a Internet en tu móvil*, eta Iberdrolak, berriz, poz-pozik utzi gaitu: *Lo hemos hecho bien, entre todos*, nahiz eta, egia esan, inork ez jakin zer demonio egin dugun ondo.

Iragarkiok ikusi nituenean zera iruditu zitzaidan: Ay, Dios! Markos subkomandantea kontratu ote dute makroenpresok? Repsol, Endesa... ez dira ba Latinoamerikako lurra lotsa izpi barik espoliatu dituzten berberak?

Militarrek gobernatzent dituzte orain *bake* misioak... Artoaz alimentatzent ditugu autoak pertsonak gosez akatzen diren bitartean...

Beldur naiz ez ote garen seko lelotu. Izan ere, gurea, edo loak hartutako gizarte eroso eta seko desideologizatutako da, edo bestela kriminala.

Gauza txarra gero, ezkerraren mezuak eskuin basatiaren ahotik heltzen zaizkigunean

### "Badirudi enpresa boteretsuenak iraultzaile bihurtu zaizkigula"

### "Gauza txarra, gero, ezkerraren mezuak eskuin basatiaren ahotik heltzen zaizkigunean"

NORTASUN AGIRIA ARRASATEN EGIN DAITEKE?  
**Irakurle batek haxe esan digu:** "Nortasun Agiria galdu nuen, eta badakit lehen Arrasaten egiten zela, baina gero kendu egin zuten. Gaur egun egin daiteke han?".

Arrasateko BAZ bulegoan esan digitenez, hilean behin, hiru orduan ematen du zerbitzu hori. Udalera joaten den Espainiako Poliziako talde batek. Horretarako, txanda aurretik hartu behar da, eta ekainerako txandak eman daude; uztailean eta abuztuaren ez dira etorriko, eta irailean etorriko diren oraindik ez daki Udalak. Hortaz, NA egiteko edo berri-izeko, Eibarrera edo hiribururen batera joan behar da, oraingoz, behintzat.

Eibarko bulegoa Ertzaintzaren egoitzan dago (Otaola hiribidea 1), baina Espainiako Poliziak egiten du NA. Ez dago aldez aurretik txanda hartu beharrik, baina, normalean, itxoin egin behar izaten da. Astelehen, eguzten eta egubakoitzetan egoten dira, 09:00etatik 13:30era.

Beste aukera bat da hiriburu-tertara joatea. Han, gainera, NA

elektronikoa egiteko aukera dago; herrieta, oraingoz, ez dago aukera hori. Txanda hartu behar da, eta 902 24 73 64 telefonoan egin daiteke, edo [www.citapreviadnie.es](http://www.citapreviadnie.es) webgunean.

BEHOBIA-DONOSTIAN IZENA EMAN DAITEKE?

**Arrasatear lagun talde bat Behobia-Donostia proban izena ematen saiatu da, baina, ezin lortuta,**

#### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduraturak bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

**honako galdeku digu: "Webgune-akarazoak ematen zituen eta ezin izan genuen izenik eman. Orain, berriz, badirudi kupoa bete egin dela. Ireako da beste izenemate eperik?".**

Dagoeneko 14.500 pertsonak eman dute izena Internet bidez Behobia-Donostia herri lasterketan, eta antolatzaileek, behin-behinekoz, itxi egin dute izenematea. Orain, inskripzio horiek guztiak konfirmatu eta ordainketak ondo egin diren aztertzeari ekingo diote.

Gainontzeko 2.000 dortsalak, 16.000ra iritsi arte, promozioen bidez banatuko dituzte. Dagoeneko 500 dortsal banatu dituzte bide horretatik.

Uztail erdialderako promozioetako dortsalak bukatzean, itxaron-zerrenda irekiko dute, promozioetatik soberan geratu diren dortsalak banatzeko eta izenemate arrunta bertan behera utzi duen jendearen lekua betetzeko. Hala ere, lasterketako webgunean ([www.behobia-donostia.com](http://www.behobia-donostia.com)) esango dute astebeteko aurrerapenarekin zehazki noiz irekiko den itxaron-zerrenda.

## marrazkiz

Unai Busturia



## Goienkaria

**Argiraratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Saietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritu Burruzo, Jasone Zábal, Mireia Bikuña, Arantza Ezkibel, Irati Agirreazaldetegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundíñano, Zortza Martín, Ixtxo Berezibar, Aintzane Muriamendi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaiztaran, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**  
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otarra Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana II • Tel.: 943 79 86 21 • Fax: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako asteakaria

### LAGUNTZALEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Arretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala




Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## Energia merkeak

**Luis Aranberri 'Amatiño'**  
eibar.org/blogak/amatino

**U**ztaietik aurrera argi-indarra garestituko dela eta, hona non jakin dugun argiak ordaintzen duguna baino gehiago balio duela. Hau da, Gobernuak urteak daroazela tarifarik behar beste igo gura ezean, enpresak lehiakorrak izan daitezten eta jendea sutan jarri ez dadin. Inork ez digu horren garbi esan, ostera, sekulako zuloa egiten ari garela eta gure

seme-alabek gure zor hori ordaindu beharko dutela... guk aberats-itxurak egiten jarraitzen dugun artean (...).

Zaborrak eta ura ere, balio dutena baino gutxiago kobratzen dihardute zenbait udalek. Agintean dagoenak eta bertan iraun nahi duenak nahiago izaten du ahal dela tarifarik ez garestitzea eta aldea aurrekontu orokoren bizkar erdi ezkutuan ordaintzea.

Zenbaitek esango du berdin dela modu batez edo bestez ordaintzea, azkenean denon artean ordaintzen dugu-eta, baina ez dut nik uste hori denik sistemarik onena

horrenbeste aipatzen dugun "garapen iraungarriari" eutsi ahal izateko.

Edozein gizarte heldutan normala izan beharko luke kontsumo-produktuen egiazko kostuen berri jakitea. Jendeak ez badaki zein den benetan argiaren, zaborren edo uraren prezioa, nekez arduratuko da kontsumoa gutxitu beharrak.

Gure hainbat auzoren argitasunak ez du parerik Europako herririk aberatsenetan, gure kaleak zikindu beharrak ez du antzik Hendaia-tik gora eta gure ur-kontzientziarik eza lehortea jotzen duenean baino ez da ikaratzen.

plazara

Ekonómia krisi orokorraren testuinguruan kokatzen du Tomás Larrañaga baserritar antzuolarrak bere gogoeta. Hain zuen, kri-

si horrek baserritarren egoera okertu egin duela azaltzen du, eta, zehazki, Debagoienean egiten ari diren azpiegiturak eta hemengo

kontsumo ohiturek zelan eragiten dieten kontatzen du. Nekazaritza ekologikoa proposatzen du etorrak kizuneko aukera moduan.


Tomás Larrañaga \*

## Baserritarra behar dira

Gure bailaran baserritar gutxi batzuk gelditzen gara, industrieak eta zerbitzuek daukate pisu handiena. Etekin handiagoa lortzen dute, bizi mala hobeak daukate, gehiago irabazten dute, dena abantailak. Oporrak, soldatua onak, baserriko lanekin konparatuz, behintzat.

Eraikuntza handitan sartuta dago gure bailara: errepiudeak, trena laster, bien artean lur asko behar dute; txikizioa nagusi, eta etxebizitzak eta industrialdeak, azken hauetan moteltzen hasiak dira. Denek lurra behar dute; lur gutxi daukagunez, edozein aktibitate aurrera eramateko, zailtasun handiak. Batez ere, baserri eremuak gero eta txikiagoak eta kalitate txarra goaren aurkitzen ari gara. Lurra lortzea baserri bat martxan jartzeko ez da posible. Gazteek baserriari ez diote begiratzen: loturak, lan astuna, diru gutxi eta, bestalde, zailtasun handiak baserri bat lortzeko, eta martxan jartzeko, zer esanik ez! Ordainak, txikiak. Arazo ugari, baserriko lana ez da batere era-kargarria. Norbaitek baserritarra izan nahi badu, arazoak: bere asmoa bere horretan geldituko da.

Denok ikuspegia motzarekin gabiltza, batez ere, gure politikariak, lau urtetakoarekin. Oraingoan, denok kezkatuta gaude, nabarmen igotzen ari direlako janariak, eta horretan jarraituko dutelako; mundu ezagun honetan -neurri guziak: tamaina, aberastasunak, ura, lurra-biztanleria gora eta gora doa, kontsumitzale gehiago, eta gu gehien kontsumitzen dutenen artean gaude: lanera bakoitzak bere autoan, tresnak, oporrak, eta



MIKEL ARROIABE

gainera, onto jatea gustuko dugu; asko, behintzat, bai. Aurrekontua, portzentualki, janarietan txikitzen joan da. Ematen du joera aldatzen doala, janariak bere garrantzia berreskuratzen ari direla. Espekulazioa da gaurko hitza, gutxi dagoenean, eta eskerera handia, kontsumo handia. Arazoa, baina, ez da hori, ondorioa baizik: ekoizpen eta garraio kostuak nabarmen goraka doaz -aukeratutako produkzio mode-loak, industrialak eta intentsiboa-, gasolioak, haziak, ongarri kimikoak, pestizidak... garraioak, zer esanik ez, askoz garestiagoak, eta martxan. Autosufizienteak izan beharrean, mendeko huts bihurtu ditugu baserriak.

**"Ekoizpen eta garraio kostuak nabarmen goraka doaz; mendeko huts bihurtu ditugu baserriak"**

**"Jar dezagun martxan nekazaritza ekologikoa, gure aberastasunak kudeatzeko eta elikagai onak edukitzeko"**

Azalera handiak, erosketak egiteko ere autoan, mundua globalizatu egin dugu; ondorioz, jaten duguna kanpotik dator, guk ez dugu ekoizten, besteak eskuetan gaude. Azkar etorriko dira, eraikitze planak ikusita. Motzean gabiltza eta motz geldituko gara.

Elikadura subiranotasuna, jasangarritasuna, etorkizuna. Etorkizunari begira antolatzen ditugu gure lan ildoak? Garbi dago ezetz: froga mordo bat dauzka gagu bistean. Aukeratu ditugun tresnak etorkizun gabekoak dira.

Intsumo gutxiko, gertuko, benetako kalitatemendun tresnak ezinbesteko bihurtzen ari dira, gertukoek garraio gutxi behar dutelako. Erregaiak fosiletatik dator, bukatzen ari dira, eta euren salneurria, etengabe goraka. Zen-tzurik ez dauka etengabe autobi-deak eraikitzen ibiltzea, gure lurra porlanez eta asfaltoz estal-tzen, ez daukagulako soberan dirua, lur gutxi eta, gainera, maldatsua dugulako. Autoak gutxiano erabilten ikasi beharko dugu, eta autobusean lanera. Zein da intsumo gutxien behar duen nekazaritza eta abeltzaintza, zeinek lurra zaindu eta aberastu, eta iraunkortasunari begira lana egiten saiatzen dena? Kalitatea nork lortzen du benetan? Nekazaritza ekologikoak. Orduan, jarri dezagun martxan nekazaritza ekologikoa gure baserrietan, gure aberastasunak kudeatzeko eta elikagai onak eskura edukitzeko. Gazteen artean ilusioa sortuz, gauzak ongi eginda goaz aurrera.

\*Tomás Larrañaga baserritarra da, eta nekazaritza ekologikoa egiten du.

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Euskal hondartzak ondo daude?

BAI	%50
EZ	%50

### > EZ GEHIEGI

Jende gehiegi egoten da udan, eta agobiatu egiten naiz. Batzuk, Zumaiakoa, adibidez, oso politak dira eta Bilbo inguruko gehienak oso zikinak daude. Enara

### > GAIKZI ZAINDUTA

Gaizki zaintzen ditugula iruditzen zait; bai hondartza eta baita beste edozer gauza ere. Garbiagoak izan beharko ginateke. Gainera, hondartzak jendez lepo egoten dira, eta ez naiz batere gustura egoten. Koldo

### > ZIKIN HUTSAK GARA

Arazoa ez da hondartzena bakarrik: oso zikinak gara eta hondartzak, kaleak, mendiak... zikin-zikin uzten ditugu. Horrela da. Alixia

### > BANDERA URDIN GEHIAGO

Niri, batez ere, Bizkaiko kostaldea gustatzen zait. Euskal Herrian baditugu bandera urdina merezi duten hondartzak gehiago. Andoni

## DATORREN ASTEKOAK: Erregaien krisiak arduratzentzat?

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## koplak

Julen Iriondo

## Mozio meteorologikoa

Aurreko negua egin zuen eguzkitsua ta sikua ta oraindik arriskua daukagu euritan itotzekua.

Aretxabaletako Durana erreka baten antzeko, gondoleroak bakarrik falta ziren Venezia izateko.

Baina Getxokoaren aldean gurea a ze huskeria, han urpean geratu da hainbat familiaren bizia.

Zientzia eta jakituriak egin duen arren gora, oraindikan natura gu baino askoz ere gehiago da.

Batzuek bilakatu nahi dute afera politikoa, laster jarriko dute mozio meteorologikoa.

Pello Zabalak iragarri du nahikoa giro eskasa, ez zaitezte etxearen geratu eta uda ondo pasa.

Segurutik tarifariak igotze-rik ez duten agintariak koldar eta populista hutsak izango dira, baina errealtitateari uko eginez bizi garen kontsumitzai-leak hipokrita samarrak.

## Reala, gero eta okerrago

Joxe Aranzabal  
[goiena.net/blogak/faroa](http://goiena.net/blogak/faroa)

Ez zait importa Real Sociedad futbol taldea 1. mailara igotzen ez bada. Ez du merezi. Realeko lehenda-

## Utzi bakean gerrak!

Bixente Serrano Izko  
[berria.info/blogak/bixente](http://berria.info/blogak/bixente)

Hain biziro maite zuten bakea, non prest ez baitzeuden ez eta haren alde ere borroka egiteko. Carlo Leví erran zuen horrelako zerbait nazien okupazio garaiez. Gaur, bertzela erranen lukeela-koan nago (...): hain biziro maite dute gerra, non gai baitira bai eta bakearen izenean ere edonora eramateko gerrak.

kariak bozeramale elabakarra izendatu du, Luis María Antoñanak ez baitaki euskaraz. Nire ikuspegitik, horrek esan nahi du Real Sociedad futbol taldea ez dagoela prest 1. mailan jokatzeko, ez baita gai bere inguruko gizartea kontuan hartzeko. Realaren testuinguruak diosku euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan, baita Gipuzkoan ere. Herrialde horretan, euskaldun kopurua inon baino handiagoa dela (...).

Era horretako erabakiak oso urrun daude bikaintasunetik, berau ez baita erakusten futbol zelaietan bakarrik.

## Neska eta gazte, elkar gaitzezen!

Amaia Etxabe

Arrasate

Berdinak garela esaten duskue eta guk, buruaz baietz eitten dou. Eskubide eta betebihar bardinak aitortzen jakula eta balixo zein esparru berdinan hezi gaituztela. Neska eta mutilak; mutil eta neskak. Eta esaten daue be bai, bardinak garenez, burukarako eztauela aitzakixaik, dana lortuta duela eta galderak eittia burua nekaketa besteik eztala. Zorionez edo, "gauzak dien bezelakuak" eztia argi eta garbi ezauketan dauen jendartia da guria, kontetan danetik ezagun doun errealtatera bittartien amildegia erraldoi bat duela jakin dakixena.

Berdin hezi bagaitzute (hezkuntzia etxia eta eskolia baino askoz gehixau dala ulertzen doula kontutan hartuta), zegatik da goi hezkuntzako ikasketetan sexuen araberako banaketia hain nabarmena? Zelan leike adibidez ingenieritzatan nesken batazbestekua hain bajua izetia eta majisteritzan aldziz kontrara? Berdin hezi bagaitzute, zegatik Zaldibarreko futbol txapelketan etza jolasten dauen neska kuadrilaik? Zegatik eztaue ein aurrera berau sustatzeko saiakerek? Zela da posible urtero herrixen hamaika musika talde sortzia eta neskek parte hartzen dauienak gutxien gutxienekua izetia? Eta era berien, abesbatza, musika eskola eta bestelako talde kulturaletan gero eta mutil gutxian egotia? Zegatik kuadrila gehixenak mutil edo neskaz bakarrik osatuta daz? Berdin hezittako belaunaldixa izeteko neska eta mutilen arteko ezberdinttasun larrei ez al die honeik?

Asko gare eskubide eta betebiharrei dagokionen berdinttasuna aldarrikatzentz doun pertsonak, baina feminismo berbia agertzen danien eta beronen aldarrikapen ideologikuak azalaratzen dienien, erreakzio alergiko baten tankerako zeoze sortzen da jende askon baittan. Hori gutxi ez eta, patriarkatua gure jendartia antolatzentz dauen egitura hierarkikua dala esatiak bildur antzeko bat sortarazten dau askon artien, feminismua gizonen kontrako ofentsiba antolatu bat balitz bezela. Berbia bera demonizatza lortu da eta egun, asko die matxismuan parekotzat ulertzen daueinak. Holakotan, pentzetako ardura apur bat hartzia nahikua izen leike betaurreko berriak janztian saiakeria eitteko...

## Este pueblo hay que quemarlo

Xabier Legorburu Igartza > Antzuola

**A**ntzuolatza ari zan esaldi hau esan zeban gizona. Maiatza hasieria zan eta Lurraldebuseko autobus batian gindoiatzela Antzuolan sartu berri giñanian jaurti zotsen bere bidaikidie. Kexatzen zen autobusak Antzuolai buelta guztia emutia gutxi balitz, egun bat bai eta bestian be bai, herrixa zeharkatzen gaizki aparkauta daen kotxien ondorioz autobusa pasa eziñik geratzen dala, egoera honek bidaia eta txoferei denbora galtzia eta alperrikako letxe txar eta haserriak eraitten jauelarik.

Bidaiarixa etsita azaltzen zan, izan be, egoeria ez da berrixa eta autobusetik, ez eta herrittik, ez da ikusten Antzuola egoera honi irtenbideik emuteko neurri eraginkorrik hartzen ari danik.

Bustinzuri inguruan bizi garenok ere egoera hau gertutik ezagutzen dou eta nik behiñepein, bidaia honen kexak ulertzen dittut eta bat nator bere etsipenarekin.

Denbora luzia da etxe aurrian autobusak geldirik, bozina joka, txoferra eta bidaiarixak autobusetik jaitsi eta trabak kentzen, gaizki aparkatutako kotxe jabien billa eta aukittutakuan hauekin eztabaian eta abar eta abar ikusten ari garela. Eta egixa esan, ni nazkatzen hasitta nao.

Nazkatzen hasitta, bat gaizki aparkatzen dabent jendakin eta bi, Udaletxian arazua konpontzeko benetako neutrrik hartzen ez dabelako.

Ez aparkatzeko kartel probisionalak jarri dia, nere ustez gaizki eta era ez oso eraginkorrian, ordua da gune hori behar dan bezala seiñalizatzeko, banduak jarri dia jendian borondate ona eskatu, gaizki aparkatutako kotxe bat ikusi dianian oharrak jarri dia kotxetan (15 minutu autobusa geldi eduki zeban kotxe batian irakurri ahal izan neban: "Gaizki aparkatu duzu, Eskerrak asko" (el?), e.a.).

Ikusirik jendian borondate onakin jai daukoula, nik proposamen bat jaurtzen dot: aguazilak, ertzaintzak edo dana dalakuak kontrolatu daixela herriko aparkamenduak (batzuetan goizian, bestetan arratsaldian, astegunian, asteburuetan...) eta bihar ez dan tokixan aparkatzen dabent gaizki aparkatzia itzalkorrak emuten dabent notak baiñor eraginkorrauak izango dien beste notatxo batzuk jarri daiztiela. Ia hola "este pueblo hay que quemarlo" esaten dabenei, gure herrixan beste irudi bat eskaintzeko gauza gan.

Galdera eta ardura hartzetako nexka gaztien topaketako antolatzeko gogua. Zalantza eta gogoeta honeittatik abiatuta, eztabaidatzia gurou, neska izenagatik bizi dittugun errealtatien inguruaren berba eittia, emun bilerreko aurrera pausueta jardutia, baina batez be, neska eta gazte izenagatik dittugun iritzi eta bizipenenak elkartrukatzia.

## Aspertzen bazara... ikertu euskara!

**Josu Zugasti**  
(Euskal Filologiako ikaslea)  
Arrasate

Kotxean nindoan batean, irratiko elkarrizketa txit interesarri bat entzuteko aukera izan nuen. Gizon batek (uste dut ingenaria zela) euskararen jatorrian argia isur

zezaketen erro zahar batzuk aurkitu zituen, berak esan bezala, lanean aspertzen zenean gure hizkuntzaren barne-egiturez hausnartuz. Erro bakarra gogoratzen dut shock egoeran sartu aurreitik irratia itzaltzeko zuhurtzia izan nuelako: *eg.*

Gizon hark zioen airean zebiltzan gauzek zeukatela erro hori: *eg-uzki(kur-kur!)*, *eg-o, eg-ur* (ez gaitezen estuegiak izan, ur gainean behintzat batabil!)... Zer ardura du *ego-k* hasperena daukala jakiteak (*hego* behar luke eta)? Eta *-g* bezalako hots batez bukatzen den euskal hitzik ez egoteak? Ezer ez. Azken batean hau euskara da, munduko hizkuntzari zaharrena, unibertsitateko hizkuntzalari eta filologoek ezjakintasunez eta aurreiritziz erdi-ikertua dagoena, euskaldun sen sakon eta prehistorikotik bakarrik ulertu daitekeena.

Irratiko tipo harena behin bakarrik gertatzen balitzait, honezkerro ahaztuta egongo

litzateke kontutxoa. Bainaz ez. Zeharo gogaikarriak dira batez ere azken aldian berriz azaltzen ari diren teoria eta aurreiritzi zahar zentzugabeak. Zentzugabeak baina ederrak, jendea liluratzeko gaitasuna daukatenak. Nahiz eta orain dela hirurogei urtetik filologo batek ere defendatzen ez dituen, kontrako frogak gehiegiz izan direlako eta edozein alor zientifikotan ikerketak eta teoriak datuen eta metodologia zorrotz baten menpe egon behar direlako.

Horrelako teoria xelebreen erakusgarri gutxi batzuk:

- "Iberikoa (eta tartesikoa eta etruskoa...) euskararen bitartez irakurri daitezke": Gezurra. Filologoak ez daude Euskal Herrian bakarrik, mundu mailako esparru zientifiko sendo eta aski garatua delako, eta iberikoz dauden testu urriak dagoeneko ondo konparatu eta ikertu dira. Ez dago ia morfema bakar bat ere testuinguruaren arabera euskararekin konparatu daitekeenik irizpide eta iragazki fonologiko eta semantiko serioak erabilita.

- "Latina eta Europako hizkuntzak euskarra ziren prehistorian": Gezurra (eufemismo bat erabili dut). Honen azpian beste aurreiritzi bat dago: "euskarra ez da aldatzten". Ba, euskara aldatu egiten da (ikusi bestela testu zaharrak!), hots berriak hartzentzu inguruko hizkuntzatik (gaztelera j eta frantseseko r-a bezala), hitzak sortzen eta hartzentzu, hitzak eta egiturak itxuraldatu egiten ditu belaunaldiz belaunaldi (horrela sortu dira euskalkiak)... Beraz, inguruko hizkuntzak beste aldatu den gaurko euskararen bitartez latinaren prehistoria azaldu nahi izateak ez dauka zentzurik eta kito. Batez ere, latina, bere familiako hizkuntzkin batera, gehien eta sakonen ikertu den hizkuntza delako eta ezin ditugulako ikerketa horiek ahaztu.

- "Euskara hizkuntza kaukasiarrekin eta bereberearekin lotuta dago": Horrelako konparaketak hitz gutxi batzuk konparatuz (eta gaizki konparatz) sortu dira eta behin ere ez dute sinesgarritasunik eduki. Normala da kasualitatez hitz gutxi batzuk antzeko itxura izatea bi hizkuntzatan, baina hizkuntzaren historian (testu zaharretan) atzera eginez gero, ikusiko dugu ziurrenik bi formak denboran atzera egin ahala aldenduz doazela bata bestetik.

Tristea iruditzen zait gurea bezalako herri kultu batean oraindik, sarri euskaraz ere ez dakiten batzuek jarraitzaileak lortzea aurrekoak bezalako teoriekin. Tristea egiten zait

Euskararen Jatorriaren Batzarrak egitea, druiden batzarren antza daukatela. Eta inori ez litzaiokelako ondo irudituko filologo batek astrofisikaz ezer irakurri barik Astrofisikaren Batzarrak antolatzea, han esango dituen astakeriak zientzia bailiran aurkeztuz.

Badaude lan serioak protoeuskaraen gainean. Joseba Lakarra, Koldo Mitxelena, Joaquin Gorrotxategi eta beste hainbat, autore eta zientzialari zorrotzak eta jakintza sendokoak dira eta euren artikulu edota liburuak ez daude Vatikanoko liburutegi sekretuan. Gai honetan interesa daukanak jo beza haien lan zientifikoetara eta ez teoria ikusgarri eta hutsaletara, bada garaia eta.

## Inkernu: Guzton topagune

**Gorka Akizu** (Aitzorrotz Kultur Elkartearen izenean  
Eskoriatza

Pasa den asteartean Eskoria-tzako Inkernu tabernan agertutako pintadak direla-eta, Aitzorrotz Kultur Elkarteak zera adierazi gura du: Inkernu taberna Aitzorrotz Kultur Elkarteak kudeatzen duela. Elkartearen helburuak herrigintzara eta kultura arlora mugatzen direla, bere estatutuetan adierazten den bezala.

Inkernu taberna bere sorreratik topagune zabala eta anitza izan dela, adierazpen askatasunean oinarritutako ekimenak babestu eta bultzatu dituena.

Bukatzeko, esan gura dugu, orain arte gertatu den bezala, etorkizuneari ere Inkernuko atea beti egongo dela zabalik herriko elkartze zein eskoria-tzar guztientzat. Bertan elkar ikusiko dugulakoan, Agur bero bat.

## ZUZENKETA

Maiatzaren 23ko GOENKARIAko 4. orrian, hezkuntzako grebaren gaineko albistearen, idatzi genuen Arizmendi ikastolak greba ez egitea bozkatu zuela. Hori ez da zuzena: Arizmendi azpimarratua gura izan du eurei ez sindikatuek beste inork ez zielatela abi-satu greba deialdia zegoenik, eta horregatik ez zutela bozketarak egin ahal izan.

GOENKARIA



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goinena.com



Aurten 84 milioi euro inbertituko ditugu Gizarte Ekintzan. **Adituek esaten digute publizitate-kanpaina zirraragarriren bat egin beharko genukeela. Bainaz ezagutzen gaituzu.** Guk nahiago dugu zuri Institutu Onkologiko berriaren lanak nola doazen erakutsi.

I25 urte gizartearen ongizatearen alde lanean  
Gizarte Ekintza, **kutxaren izateko arrazoia**



EKAINAK 5 INGURUMENAREN NAZIOARTEKO EGUNA



# NATURAN GUZTIOK BIZI GARA E'TXEPE BEREAN.

Zaindu Biodibertsitatea



DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



ingurumena.net  
Gure esku dago

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31 oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39




> **ARRASATE**  
Herrialde pobreen aldeko Elkartasun Eguna egingo dute hilaren 14an > **19**



> **BERGARA**  
Elosua-Plazentzia eta Udala-Intxorta eremuak garbitu dituzte > **24**



> **ARETXABAleta**  
Udako kirol ekintzetarako izena emateko aukera dago > **31**



> **OÑATI**  
Arrantzaleen txapelketa datorren domekan izango da > **33**



KANPOKO IGERILEKUA Orain berdegunea dagoen lekuak eraikiko da 300 m<sup>2</sup> baino gehiagoko igerileku berria.

NEREA MENOR

**BERGARA** > IGERILEKUA

## Kanpoko igerileku berria datorren urteko udan zabaltzeko asmoa dago

### OBREN HASIERA

Urrian hasiko dituzte lanak eta ekainerdialderako amaituta eduki nahi dituzte

### 300 M<sup>2</sup>-KO PUTZUA

Txirrista bat, ur korronteen zona eta jaioberrientzako gunea edukiko ditu

### NEREA MENOR > BERGARA

Uda pasa ondoren, berdegunea itxi eta urrian hasiko dira Bergarako igerileku berria eraikitze-ko obrak. Udazkenean hasi eta 2009ko ekain aldera amaitzeko asmoa dago. "Udako sasoia hasten generako guztia gertu eduki nahi dugu, baina ez da erraza izango, obra guztiak atzeratu egiten baitira. Lanak urrian hasi beharrean irailean hastea zen beste aukera bat, baina, agian, udako egun eguzkitsuenak izango ditugu orduan. Badaezpada, urrian hastea erabaki dugu", dio Kirol Zerbitzuak.

Bi milioi euro izango da aurrekontua. Orain arte Udalak zuen proiektuarekin alderatuz, hainbat berrikuntza egin dituzte, eta garrantzitsuena igerilekuaren estalkiari dagokiona da; izan ere, hasieran estalkiarekin egin nahi

zen igerileku, baina oraingo, ez egitea erabaki dute. Hala ere, dena prest lagako da aurrerantzean, aldatu nahi bada, eraiki ahal izateko.

### JOLASTeko IGERILEKU EGOKIA

300 m<sup>2</sup> baino gehiagoko azalera izango du igerilekuak eta 170 zentimetro inguruko sakontasuna. Ume jaioberrientzako gune bat

edukiko du, korronteak egindo dira eta txirrista bat ere ipiniko da. Borobil formak edukiko ditu eta hesiz inguratuta egongo da, segurtasunagatik. Berdeguneari dagokionez, kanpoko igerileku zaharren garaian zegoen leku egongo da libre, gutxi gorabehera. Barruko eta kanpoko zatiak komunikatuta egongo dira udan eta, estalkia jartzen denean, baita neguan ere. Sarreren eta abonamenduen prezioa guztiz argi ez dagoen arren, Kirol Zerbitzuak ez du uste aldaketarik egongo denik.

Instalazio handia osatuko da kanpoko igerilekuarekin. Jende asko joaten da igerilekura igeri egitera, baina beste asko jolastera joaten dira: gurasoak seme-alabekin, esaterako. Hain beharrak aseko ditu igerileku berriak udan; izan ere, bailarako herrietan ez dago igerileku ludikorik.

### Hamar egun barru irekiko dute berdegunea, eta iraila arte egongo da zabalik

Hamar egun barru zabalduko dute igerileku berdegunea, eta iraila arte egongo da zabalik. Igerilekuo arduradunak buru-belarri dabilta garbiketa eta mantentze lanetan, ekainaren 16an zabaldu ahal izateko. Bizpahiru kale lagako dira ume jolasentzako eta gainerakoak igerilarientzako izango dira. Urtero legez, karpak egongo dira eta udako liburutegia ere han izango da.

Bestalde, astelehenean hasiko dira Ipintzako futbol zelaiko obrak. Belar artifiziala jarriko da eta neurria 90x52 izango da. Hasiera batean, 100x60ko zelaia egiteko asmoa zegoen, baina, saihesbidea ondoan egonda, obrak gehiegiz igotzen zuen aurrekontua, eta ezin izan da aurrera eraman. Abuztuaren 20an amaitzeko asmoa dago, irailean partiduak hasiko dira-eta.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatura, 7	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 8	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Astelehenetik, 9	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09
Martitzena, 10	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguaztena, 11	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 12	Azkoaga	Iturrioz, 17	943 79 79 99
Egubakoitz, 13	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26

**BERGARA**

Zapatura, 7	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 8	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehenetik, 9	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 10	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 11	Urritikoetxea	Oixondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 12	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitz, 13	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

**ONATI**

Zapatura, 7	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 8	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehenetik, 9	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 10	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 11	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguena, 12	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitz, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22

**ARETXABAleta**

Zapatura, 7	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 8	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehenetik, 9	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 10	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 11	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 12	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitz, 13	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali

SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEza.

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Oasakidetza (Larraldia).....	943 03 54 00
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udalitztaingoak.....	943 76 62 46
Antzuola.....	943 79 14 39
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 79 12 22
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltetegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakidegi alternatiboak.....	943 77 11 43
Arrasate.....	943 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67

**Kiroldegiaik**

Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Onati.....	943 71 63 75

**Kultura Etxeak**

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58

**Eskoriatza**

943 71 46 88	
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 03 53
Udalak.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16

**Arrasate**

943 79 09 00	
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07

**Leintz Gatzaga**

943 71 47 46	
Onati.....	943 78 04 11
Udalak.....	943 78 04 11
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00

**Aretxabaleta**

943 71 18 62	
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46

**Onati**

943 78 04 11

## kale inuesta

# Hartuko duzu parte Bergarako Mundumira jaian?



Amelia Aginagalde  
Langilea  
Aramaio



Aizpea Ajuriagerra  
Langilea  
Aramaio



Maite Pan  
Langilea  
Aramaio



Erik Gartzia  
Langilea  
Aramaio



Unai Gartzia  
Langilea  
Aramaio

Joango naiz Bergarara. Pasa den urtean joan nintzen Aretxabaletan izan zen Mundumirara, baina Arrasatera ere. Asko gustatu zitzaidan kultura ezberdinak musika eta ohiturak ikustea.

Ez naiz joango, ezin dudalako. Arrasaten ospatu zen Mundumirara, ordea, joan nintzen. Giro polita egon zen bertan. Kultura ezberdinak ikustea oso interesgarria eta aberasgarria da.

Joango naiz Bergarako Mundumirara. Aretxabaletakora ere joan nintzen pasa den urtean. Ikusteko oso polita da, gune ezberdinak daude eta kultura ezberdinak elkartzen dira bertan.

Oñatiko Mundumiran egon nintzen, baina aurten ezin izango dut Bergaran ospatuko denera joan. Jai polita da; niri gehien gustatu zitzaidana kontzertuak izan ziren.

Ez naiz joango. Kanpoan egongo naiz asteburuan. Aretxabaletan ospatu zen Mundumirara, baina, egon nintzen. Beste herrialdeetako gauza ezberdinak ikusten dituzu, eta ondo dago.

## txaloak



GOIENKARIA

## Aretxabaletako plazan arrapala ipini dute



Duela bi asteko GOIENKARIAn, Aretxabaletako plazan egiten ari diren lanak direla-eta bai elbarriendako eta baita umeen kotxeekin doazen gurasoendako izugarritzko oztopoa zen; horretako, irakurle batek arrapala bat ipintzea eskatzen zuen, oztopo horiek nolabait ekiditeko, eta halaxe egin zuten duela astebete.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

**2.000.000**

Bi milioi euro, hori da Bergaran Agorrosin Gunean egingo den igerileku berriaren aurrekontua. Igerileku berri horrek 300m<sup>2</sup>-ko lursaila hartuko du. Lanak-oraindik eguna zehaztuta ez badago ere- urriko lehen astean hasiko dira eta 2009ko ekainerako amaituta egotea espero du Bergarako Udalak.

## 5 galdera...

# Ane Bereziartua

Arrasate Bidaietakoa  
Arrasate

## 1. Jendea denboraz joaten da bidaia agentziara bidaia erostera edo azken momentuko erosketa izaten da?

Bidaia handizkariek aurrez erosteagatik haurrak doan eta deskontu ugari jarri dituztela aprobetxatuz, gero eta jende gehiagok aurrerapenez erosten du. Hala ere, urtero, azken orduko bezeroak ere izaten ditugu.

## 2. Azkenaldian entzuten da bidaia agentziien salmentek behera egin dutela nabarmen. Horrela da?

Fakturazioan ez dugu askorik igarri; hala ere, bezeroak gero eta eskaintza hobeak aurki ditzake, krisi hau dela-eta. Jendeak bidaiatzen jarraitzen du.

## 3. Zeintzuk dira aurtengo udarako modan dauden bidaia lekuak?

Estatu Batuetara jende asko doa. Asian, Thailandia, Vietnam, eta Ozeanian, berriz, Australia eta Zelandia Berriera ere badoa jendea. Spainia mailan, irletako bidaia beti saltzen den gauza bat da; gainera, eskaintza interesgarriak ditugu, eta kostalde mailan Salou izango litzateke tokirik aipagarrienetarikoa.

## 4. Udako oporrezen gain, jendeak erosten ditu beste jai edo zubi batzuetarako bidaia?

Gero eta gehiago, hotel xamangarri eta bainuetxeetan asteburuetako egonaldiak oparitzen dira. Zubi eta herriko jaietarako ere bezero ugari izaten ditugu. Jendeak orain ez dauzka abuztuan bakarrik oporrak, eta urte guztian zehar bidaiatzen du. Bestalde, karabanak alokatzen aukera ematen dugu. Eskaintza honek nahiko erantzun ona eduki du jendearengan.

## 5. Bizimodu garesti dagoela eta, zein da zure gomendioa eskaintza on bat lortu nahi baldin bada?

Orokorrean, gure gomendioa aurrerapenez eroste da, inork bidaia konfirmatzeko arazorik eduki ez dezan; horrela, haurrek doan eta deskontu aipagarriak izan ditzakete.





Legarre pabiloian oraindik geratzen diren enpresak lekuz aldatu beharko dira Udalak plana garatzea erabakitzetan.

U.M.

**HIRIGINTZA > LEGARREKO PLAN BEREZIA**

## Legarren etxebizitzak egiteko plana, onartuta

80 etxebizitza eta, gutxienez, 169 garaje eraikiko dituztela zehaztu dute planean; dena den, plana besterik ez da hori, ez dago beste ezer zehaztuta

**UBANE MADERA > ARRASATE**

Jakinekoa da gero eta etxe behar handiagoa dugula. Bada, horrekin lotuta, herriko beste gune bat etxebizitzak eraikitzeko izango dela finkatu du udalbatzak.

Legarre da gune hori; gaur egun pabiloi industrialak daude han, Gelma ondoan. Udalbatzak onartu duenez, Legarre pabiloia bota, eta hantxe eraikiko dituzte etxebizitzak, 80, guztira, Gipuzkoa etorbidera begira.

**ERAIKINAREN EZAGURRIAK**

Legarreko plan bereziak zehazten duenez, eraikin bakarrean egir beharko dituzte etxebizitzok, asko jota 24 metro garai izango dena. Eraikinak, gehienez jota, sei solairu izan beharko ditu, etxeak egiteko, sotoa eta soto azpikoa.

Jakina, legeak zehazten dueña errespetatuz, garajeak eraikiz ere aurreikusita dago Legarreko planean: gutxienez, 169.

Horrekin batera, oro har, inguruko azpiegiturak (saneamendua, argindarra, bideak...) berrituko dituzte; adibidez, beste bide bat eraikiko dute, errekanren ondoan, Legarreko urbanizazio berriak Zabalguneko (Gelma) urbanizazioarekin lotura izan dezan.

**EGITAMU OROKORRA**

### Aurreikusitako betez gero, Legarre ingurua izango da herrian gehien aldatuko dena

Udal Egitamu Orokorean onartutakoaren arabera, Gipuzkoako etorbidearen zati hori oinezkoendako bilakatu gura dute, Maalako biribilguneraino. Are gehiago, alde batetik gura dute oinezkoendako bulebarra egin eta haren ondoan berdegune bat sortu, eta berdegune horretatik pasako litzateke tranbia. Juan Antonio Urdangarin Hirigintzako teknikariburuak esandakoaren arabera, tranbiaren egitasmoaren gaineko berririk ez daukate, baina, oraingoz, Udala "plan horren arabera dabil lanean". Adibide moduan, Gipuzkoako etorbidearen zati horretan egiten diharduten etxeak orain arteko eraikinak baino atzerago dabilta egiten, esandako guztiari leku egiteko: "Udala badabil espazioak husten hori egin ahal izateko".

**EUSKARA > UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA PLANA**

## Udalean euskararen egoera hobetzen ahaleginduko dira

Euskara plana garatzeko ekintzen artean, euskara eskolak izango dira

**T. MADINA/J. BEREZIBAR > ARRASATE**

Udalean euskararen egoera txarra ez den arren (%92k dakite euskaraz), bada hobetzeko aukera. Hori dela-eta, hainbat ekimen abiaraziko dituzte Udaleko langileen eta zinegotziengatik artean euskara bultzatzeko. Horixe da Udaleko Euskara Sailek adierazi dutena onartu berri duten Euskararen Erabilera Planaren arrazoia azaltzeko.

Joan den asteko osokoak onartu zuten plana. Hain zuen, onartu dutena da zein ekintza egin behar dituzten plana garatzeko. Berez, plana Emun enpresek diseinatutako da.

Hala, abiaraziko dituzten ekintzen artean, euskara ikasteko aukerak jarriko dituzte.

Dena den, planak ez du bakanrik eragingo langileen ahozko erabilera, barne paper eta izapideak ere euskara hutsean egitea planteatzen du-eta. Izan ere, harremanetik hasi eta paperen tramitazioetaraino, esparru zabala hartuko du. Eta berez, barne plana den arren, asmoa da herritarrek Udalarekin duten harremanetan ere eragitea.



GOIENKARIA

## Katekesiaren ikasturte bukaera

Oporrak gerturatzentz dabiltzan seinale, hasi dira hainbat ekimen, ikastaro eta halakoak amaitzen, irailera arte. Argazkiko laguntxoak San Frantzisko parrokiaren katekesia ikasten ibili direnak dira. Ikasturtea bukatu dela-eta ospakizuna egin zuten katekista eta ikasleek.

**> POLITIKA**

### EAJ eta PPren babesarekin, zentsura mozioa aurkezteko asmoa erakutsi du PSE-EEk

Atzo, eguna, PSE-EEk iragarri zuen aurrera egingo dutela zentsura mozioekin, baina jakinarazi zuten bakarrik aurkeztuko dituztela Arrasaten, Pasaien eta Hernanin (bigarren indarra diren lekuetan). Arrasateko kasuan, esan zuten behar dituzten 11 bodoetatik bederatzit badituztela (PSE-EE, EAJ eta PP) badituztela eta giltza EBkoek dutela. Haiek, berriz, diote ez dutela iritzia aldatu.

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**  
*Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletagak*

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**UGARAN**

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



**KONTRATAK**  
**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

GIZARTEA > ELKARTASUNA

# Herrialde pobreekiko elkartasun keinua 14an

Gobernuz kanpoko erakundeen eskutik, 10. aldiz antolatu dute Elkartasun Eguna

Mugarik Gabeko Zinema jardunaldiak ere izango dira, astelehenetik zapatura

UBANE MADERA > ARRASATE

Datorren ekainaren 14an, 10:00etan abiaraziko dute aurteno Elkartasun Eguna, 10. edizioa. Ekimenen artean, betikoak eta berriak iragarri dituzte antolatzaileek. Hala, ohikoan artean, bidezko merkatarietan oinarritutako produktuak dastatzeko eta erosketa azokatxoa izango da. Hortxe ipiniko dituzte, baita ere, gobernuz kanpoko hainbat era-kunderen produktuak salgai; adibidez, saharar tea eta hango dan-

tzak erakusteko tailerra izango dira eta Oporrak Bakean proiektuari laguntzeko taloak (Ekin Emakumeak) salduko dituzte.

Ohiko ekitaldiekin jarraituz, aurten ere tonbola ipiniko dute, Ibai Arte merkatarteak elkartea emandako produktuekin; 10:00etan hasiko dira txartelak saltzen. Eta aurten ere, Eroski Bidaia enpresak emandako opari berezia ere sartuko dute tonbola horretan, baita UMU jantzi denak emandako opari berezia ere.



Argazkian, Amnesty International erakundearen saltokia.

GOIENKARIA

## 1.000 euroko saria eta opariak XII. mus txapelketan, Doken

Dagoeneko egin dute deialdia aurtengo San Juan jaietako mus txapelketarako. Sari erakargarriak iragarri dituzte, gainera, 12. edizio honetarako: 1.000 euro, txapela eta urdaizpiko bana bikote irabazlearendako; 500 euro eta opariak bigarren bikotearendako; 300 euro eta opariak hirugarrenrendako; eta opariak laugarren bikotearendako. Inskripzioan 40 euro ordaindu beharko du bikote bakoitzak. Ekainaren 14an egin dute partidetarako hitzordua, Doken tabernan (Garibai etorbidea 6), 16:30ean.



ROMAN LOPEZ

**ad** **Ibabe**

## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

#### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

#### Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta personalizatua



**Gubi**  
ILE APAINDEGIA  
Otalora Lizentziaduna 5  
Tel.: 943 79 12 74

## Eguna-ordua

### 9. astelehena

20:00 Paseo film laburra  
Madres film luzea.

### 10. martxena

20:00 Republica Banana laburra  
Caribeños del Sahara luzea eta  
Nubirekin mahai ingurua

### 11. eguaztena

20:00 Nasja film laburra  
Sister in Law film luzea

### 12. eguena

20:00 As de Corazones film  
laburra, adimen urrikoek eginda  
eta mahai ingurua, Atzegikoekin

### 13. egubakoitza

20:00 El viaje de Said film  
Clandestinos luzea eta  
Arrasateko etorkinen gaineko  
azterketaren aurkezpena

### 14. zapatua

20:00 Strike 2 laburra eta Urre  
belza film luzea eta Etiopiako  
kafearen dastatzea

tzipioak bultzatzea helburu duten zinema jardunaldiak antolatu ditu Elkarhezitzen Lan Taldeak. Astelehenetik zapatura izango dira emanaldiak, Kulturaten. Eta egun bakotzean film labur eta luze bana emango dituzte. Diktadura, isolamendua, emakumeen eskubideak, adimen urrikoak, hezkuntza eta tolerantzia, etorkinak eta bidezko merkatarietza landuko dituzte filmen bitartez. Sarrera doan da.

OSPAKIZUNAK &gt; X. GARAGARDO FESTA

# Garagardoz blai, errugbia ezagutarazi eta primeran pasatzeko asteburua

Atzo ezkero zabalik da Herriko Plazako karpa; bihar gauera arte, garagardo ezin hobea edan eta Alemaniako janariaz bapo afaltzeko aukera izango da bertan

**JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE**  
Hamarkada bat beteko du aurten Arrasate Errugbi Taldearen Garagardo Festak. Hamarkada osoa errugbia herriari ezagutzen ematen eta, gainera, kaleak girotzen -azken hori bigarren helburu moduan zehaztu zuten orduan.

Hasia da jaialdia, Herriko Plazako karpa atzo ezkero baitago zabalik. Iaz bezala, egunetik zapatu gauera arte iraungo du.

**IRABAZI ASMORIK GABEKO FESTA**  
Joseba Zabala errugbi jokalari beteranoak jakinarazi duen moduan, Garagardo Festa "errugbia ezagutarazteko eta herriko



Goi mailako zerbeza edateko aukera izaten da Garagardo Festan. Irudian, iazko jaialdia.

GOIENKARIA

kaleak girotzeko" helburuarekin sortu zen, "futbolaz gain beste kirol batzuk bidaudelako". Beraz, 1998ko lehen jaialdi hartan, dirua irabaztea ez zen helburu nagusia. Edoze-

lan ere, Zabalak adierazi duenez, irabazten diren sosak errugbian inbertitzen dira; esate baterako, kadete eta gazteentzako autobusak jartzen dira.

**JOKALARIAK, KONPROMETITUTA**  
Jaialdiaren antolakuntzari dago kionez, Arrasateko Errugbi Taldeko jokalarien konpromiso handia nabarmendu nahi izan du

jokalari beteranoak. Hala, kade teatik beteranoetaraino, guztiek egiten dute lan karpan: "Ez da inor libratzen", dio Zabalak.

## ESPERO BAINO ERANTZUN HOBEA

Zabalak adierazi duenez, herriaren erantzuna espero baino hobia izan da urte hauetan guztietan. Garagardo Festa ospatzen den asteburuan, dio, karpak sortzen duen giro intimoagatik-edo, "Herriko Plazan urtean zehar dantza egiten den une bakarrenetarikoez" goza daitekeela.

Gutxienez hiru garagardo mota ezberdin izango dira eta, janarien artean, txerri-ukondoa, oilaskoa eta denetariko saltxitxast dastatu ahalko dira.

Prezioari erreparatuz gero, erositako zerbeza pitxerrak bueltatuz gero dirua ere itzuli egiten dela gogorarazi nahi izan du Zabalak. Beraz, garestiegia dela uste duen jendeari jakinarazi nahi dio zerbeza pitxerrak kobraztuko ez balitzte, jende askok etxera era mangotu lituzkeela. Horrela, "dirua galduko genuke", adierazi du jaialdiaren prentsa arduradunak.

SANJUANAK &gt; HAUR DANTZARIEN EGUNA

# Txikienek dantzaren harrobia osasuntsu dagoela frogatuko dute

**J.B. > ARRASATE**

Datorren domekan, hilaren 15ean, ospatuko da Arrasaten Haur Dantzarien Eguna. San Juan jaietako egitarauaren barruan antolatutako ospakizuna da, oso berezia izaten den eguna bai herriko zein kampoko dantzari eta dantzazaleentzat.

**HAMAIIKA DANTZA TALDE**

Aurtengoan ere hainbat dantza taldek hartuko dute parte Haur Dantzarien Egunean. Bailarako taldeen artean, Aretxabaletako Loramendi, Oñatioko Oñatz eta Arrasateko Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz dantza taldeek egingo dute dantza; egun berezi horri fidel, beti bezala.

Bailaratik kanto, honako talde hauek euren presentziari ziurtatu dute: Legazpiko Korosti dantza taldeak, Zornotzako Arin Arin dantza taldeak eta Zangozako Rocamador dantza taldeak.

Ipar Euskal Herriko ordezkaritzari dagokionez, bestalde, ez dakite etorriko diren, ez baitiote antolakuntzak egindako gonbidapenari erantzun. Arabatik ez da espero dantzaririk etortzea, egun horretan Araba Euskaraz ospatu-

ko baita Bastidan. Dantzari kopuru urtero izan ohi dena espero dute, gutxi gorabehera 500 bat.

## ARRASATEARRAK EZAGUTZEN

Dantzari txikienentzat hain berezia den egun horretan ohikoa denez, kanpotik datozen dantza riekin goizeko dantza emanaldiaren ostean herriko jendearen etxean -edo elkartean- bazkalduko dute. Ia goiz osoa dantzan pasa ostean, indarrak errekupeatzeara ezinbestekoa da haurrentzat, arratsaldeko saioan dena ondo irten dadin. Gainera, herriko jende berria -dantzazaleak gehienak- ezagutzeko aukera ezin hobe ematen du.

## GOIZEKO EMANALDIA

Goizeko hamarretan Zaldibar pilotalekuaren elkartuko dira dantzariak eta Herriko Plazara abiatuko dira, bertan hamarretakoa egiteko. Plazara heldu eta gutxira dantzarien kalejira egingo dute txistularien txistu doinuen laguntzaz. 11:15ean hasiko dira dantza erakustaldiak, eta Arrasateko kaleetan zehar eta 13:30ean dantza talde guztiak elkartu ostean, haurrek etxe ezberdinetara bana-

tzen hasiko dira. Hori guztia, nola ez, txistularien laguntzaz.

## ARRATSALDEKO SAIO HANDIA

Hamaika dantzaz osatutako ikuskizun handia 17:15ean hasiko da. Jorrail-dantza, ihitai-dantza, sagar-dantza, zinta-dantza eta larrain-dantza izango dira arratsaldeko emanaldiaren parte, beste batzuen artean. Saioan, herrialde bakoitzetik gonbidatutako taldeen dantza tartekatuko dira.



Kanpotik etorritako dantzariekin euren dantza ezagutarazten dituzte.

GOIENKARIA

**Txitxinpe**

**Berezitasunak**  
**Kazuelatxoak**  
**Ogitarteko**  
**hotz eta beroak**

Arrasate pasealeku 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK  
**AGR**  
García Ripa  
ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA  
Erausketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 beheha (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Monte taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

# Ez galdu aukera!



## Azahar kostaldea

3 izar. Mantenu osoa. Haurrak doan  
Ekainaren 1etik 20ra.  
Eguna: 31,25 €  
Ekainaren 26tik abuztuaren 1era.  
Eguna: 42 €

## Playa Bávaro

9 egun / 7 gau  
Gran Paradise Bávaro 5 izar  
Inteera egunak ekainaren 3, 20, 24 eta 27  
Ekainean 545 €  
Uztailatik urrira bitartean 695 €



## Egipto

Sekulako pagotxa 2 x 1  
7 gau: 3 itsasbidaian + 4 Cairo OG  
Ekainaren 6an eta 13 an 311 €



## Tenerife (7 gau)

Marte hotela 3 izar OG 374 €  
Trovador hotela: 3 izar ME 416 €



## Kanaria Handia (7 gau)

Astoria hotela 3 izar OG 305 €  
Beverly Park hotela. 3 izar ME 390 €



## Lanzarote (7 gau)

Astoria hotela 3 izar OG 305 €  
Beverly Park hotela. 3 izar ME 390 €



## Costa Rica

11 egun / 9 gau 890 €  
Irteera egunak:  
ekainaren 7a eta ekainaren 14a  
Bisitak: Tortuguero parke nazionala, Arenal  
sumendia eta Monteverdeko erreserba biologikoa.

## Egipto, Turkia, Asia eta Amerikako bidaietan %15eko beherapena.

Ekainaren 15a baino lehen hartuz gero.

- Itsas bidaietan %10eko beherapena
- Kostako bidaietan %7ko beherapena (abuztua barne).
- Oporrak finantzatzeko aukera interesik gabe.
- Bidai luzeetan espezializatuak.

### AUTOKARABANA ESKAINTEZA BEREZIA

\* Eguneko eta pertsonako 20 €-tik aurrera.

- Bizikleta-eramatekoa
- Eski-eramatekoa
- Berria



\* prezio hori 6 pertsonek hartutako  
McLouis 2.11 autokarabanetan

Oharrak: tasak eta erregaiak ez daude barruan.  
OG: Ohea eta gosaria  
ME: Mantenu erdia

# Arrasate Bidaiaik

CIE 2214

B I D A I A - A G E N T Z I A E L K A R T U A

ARRASATE BIDAIAK • Kontzeziño kalea 12 – ARRASATE • Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45 • E-posta.: d4051@marsans.es



ERRUGBIA &gt; NAZIOARTEKO ZAZPINAKO TXAPELKETA

# Nazioarteko Errugbi Txapelketak, hamar urte

Bihar egingo dute Mojategin Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketa (15:00); emakumeek lauko torneoa egingo dute

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Aurtengo Nazioarteko Errugbi Txapelketa berritasunekin beteta dator. Batetik, txapelketa Atxabalpen jokatuko beharrean Mojategin jokatuko dutelako –kartelean alderantziz badator ere–, eta horrekin batera, gizonzkoen zazpinako partiduekin batera emakumezkoek ere lauko torneoa jokatuko dutelako.

Arrasatek emakumezkoen taldea izan du aurten, eta orain arte ekaineko errugbi torneo hori gizonzkoendako izan bada ere, bihar emakumezkoak ere izango dira Mojategiko zelai gainean.

Hala, Mungia, La Única, Atlético San Sebastián eta Arrasatek jokatuko dute lauko torneo hori. Eta, gizonzkoek moduan emakumezkoek ere zazpinako modalitatean jokatuko dute torneoa: zelai txikiagoa, baina joko askoz ere azkarragoa.

Gizonzkoen torneoari dagon kionez, talde hauek gonbidatu ditu Arrasateko klubak: Bordeleko BEC taldea, Donostiko Berri, Ordizia, Hernani, Eibar, Zarautz, Durango, Gasteizko Gatzetadi eta Iruñako La Unica taldea. Printzipioz hamar talde horiek izango dira txapelketan, baina

possible da azken momentuan beste talderen bat lehiazera anizmatzea.

## GARAGARDOAREN JAIA

Hamar urte hauetan errugbi txapelketa eta garagardoaren jaia eskutik etorri dira, eta aurten ere horrela egingo dute. Iaz, baina, karpako ateak egubakoitzean beharrean eguen arratsaldean ireki zituzten, eta aurten ere gauza bera egin dute; horrek esan gura du lerro hauek irakurri orduko Arrasateko plazan Alemaniako garagardo onena zerbitzatzen ibiliko direla.

Zapatu gaua izango da giro handiena izango den momentua, sariak banatuko dituzte-eta orduan. Gainera, urtero moduan aurten ere zuzeneko musika emaldiak egingo dituzte.



Arrasateko jokalariak, bilbotarren erasoa bertan behera utzi guran, aurtengo denboraldiko erretreatuan.

GOIENKARIA



FERNANDO ZUFIRIA

## Arizmendi, Euskadiko hirugarren

Joan den asteburuan egin zituzten Euskadiko 27. Eskolarteko Kirol eta Jokoak, eta infantil mailan Arizmendiko neskak hirugarren sailkatu ziren -federazioak ez zuen kontutan hartu errelebotako lasterketan kalez aldatzearren jasotako zigorra-. Beste behin, emaitza onak harrobia lantzen dihardutela erakusteko.

Erretreatuan daude Amaia Diez, Izar Gorroñogoitia, Malen Azua, Ane Orue, Maria Jaka, Uxue Bengoetxea, Nagore Uriarte, Maider Etxagibel eta Fernando Zufiria entrenatzalea.

## > FUTBOLA

### Real Sociedad taldeak Mondrako atezain Sokoa Azkarate fitxatu du, Superligan jarduteko

Sokoa Azkarate (Arrasate, 1979) hamabi urtez ibili da Mondrako emakumeen taldeko atea defendatzen –Kopako finalera iritsi dira aurten-. Orain, baina, Realean jokatzeko aukerari heldu dio, talde horrek Superligan jokatzeko eskaintza egin dio-eta; hau da, emakumeen kategoria goreanean jokatuko du.

Urte askotan emakumezkoen talde goreneko atezaina izatearekin batera, kategoria txikiekin ere ibili da lanean arrasatearra, entrenatzalea modura.

## > BESAIDE

### Beteranoen martxa oraingo domekan, eta beste bi kirol hitzordu datozen asteotarako

Oraingo asteburuan Besaidek bi hizordu izango ditu. Batetik, Aiba! mendi martxa egingo dute domekan [ikus 41. orria], eta zapatuan beteranoen martxa egingo dute Urbasatik Irantzura.

Datozen asteotarako, baina, Besaidek beste proposamen batzuk ditu. Ekainaren 14rako mendiko bizikleta irteera prestatu dute, Araotzeko kanalera. Irteera horretan izena emateko egunak ekainak 9 eta 10 izango da (19:30-20:30), Besaideko egoitzan.

Horrekin batera, ekainaren 15erako mendi irteera antolatu dute. Hala, mendi zeharkaldi horretan Belatetik (847 metro) Urkiagara egingo dute, lehenago Saioatik (1.418 metro) igarota. Izena emateko egunak, ekainak 9 eta 10, 19:30etik 20:30era.

## KULTURAK BATZEN GAITU

Erakusketa: Sabin Oregi zarauztarraren argazkiak ekain osoan.



## Astelehenetik barikura eguneko menua

Asteburuetan  
plater konbinatuak, ogitartekoak eta menu bereziak

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

bote prontuen

Alicia Carrasco > Klas dendako arduraduna

## "Umeentzako arropan berezitu nahi dugu"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Alicia Carrascok aspalditik dihardu Iturriotz kaleko Klas jantzi denda lanean. Izen kuriosodun denda horrek -Aliciak ez du izena nondik datorren gogoratzen-San Juan jaien ostean ateak itxiko ditu. Irail aldera zabalik izango da berriz; hori bai, Ume Iturriotz izen berriarekin.

Ezaguna da Klas jantzi denda Arrasaten. Noiz zabaldu zenuen?

Bada, zehazki esateko, 1989ko irailean zabaldu genuen denda. Gezurra badirudi ere, hurrengo urtean 20 urte beteko ditu.

Zein motatako arropa saltzen duzue?

Orain arte nerabeei zuzendutako arropa saltzen genuen, baina hemendik aurrera umeei zuzendutako jantziak saltzen hasiko gara.

Zuen aktibitatean aldaketa, beraz...

Bai, umeentzako arropatan espezializatza erabaki dugu. Jaioberrietatik hasita, 20 zenbakidun tailara arteko arropak salduko ditugu. Hala, ahizparen Garibaiko Ume dendako eskaintza osatuko dugu.



Zer dela-eta dator aldaketa?

Garaiak aldatzen ari dira, eta espezializatzeko hautua hartu dugu. Aldaketaren arrazoia hori da, espezializatzeko nahia, alegia. Merkatuak joera hori darama eta guk ez dugu atzean gelditu nahi izan.

Gaur egungo gazteen moda modernoegia dela esaten duzu; horrenbeste aldatu dira joerak, bada?

Ez. Moda moda da. Esate baterako, garai latzeten, krisi egoeratan... kolore ilunak era-biltzen dira eta garai oparoetan, ordea, kolore argiagoak. Hori ez da aldatu, moda oso erre-pikakorra den zerbait da, nire ustez behintzat. Hainbat jantzi daude orain dela 20 urte ere janzen zirenak.

Moda norberak sortzen duen zerbait da ala urtetik urtera inposatu egiten dela deritzozu?

Modak, merkatuan, ez du sormenerako tar-te handirik uzten. Arropa aukeratzeko bildu-metan bada aniztasuna, baina hasieratik eurek inposatzen dizute gerora gustuko izan-go duzuna.

bere ustez



Nerea Makazaga

Loak ihes egitean / Loak harrapatu arte

Bat-batean esnatzen zara. Gorputz osoa zeharkatzeraino zerka ziztatu zaituen jakin gabe. Hotza sentiarazten dizun gelditasunean agertu zara, eta gelditasun hori puskatzen hasiko dira zure taupadak, uhinez uhin mezu ezkutu bat igortzeko.

Ez dago isiltasunik, inoiz geldituko ez dela dirudien euriak plastikozko sabaia zulatu gura duelako. Tarte-ka pausuak; inoiz jarraitu dizkizuten pausuak; gerturatzen, poliki-poliki urrentze-ko. Eta tik-tak amaigabe hori!


Alde batera, beste aldera, gorputz osotik hasten zaizki zu inurriak. Alde batean hil dituzunak beste aldean bir-sortzen zaizkizu, aldiro bikoitzuz, segunduro azkar-tuz... Altxatzea erabakitzun arte! Orain zigarro bat erreko zenuke egongelako leiholan, eta kaka! jada ez duzu erretzen! Eta horregatik eskua lehotik ateratze-ra mugatzen zara, arrazoi berezirik gabe, beste ezer okurritu ez zaizulako edota gehiegi pentsatzea komeni ez zaizulako.

Eta aspertuaz bat ohean zara berriro, hor jarraitzen duen tik-tak horri jarraitze-ko. Zirkuluan bueltaka... zirkuluan bueltaka... kiribilean loak harrapatuko zaituen arte.

txutxu-mutxua



BESAIDE



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ONDAREA &gt; TRIKUHARRIAK ETA TUMULUAK

# Garbitu dituzte eremu megalitikoak

Elosua-Plazentzia eta Udal-Intxorta eremuetan egin dituzte garbiketak maiatzaren 27tik 30era

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Herriko eremu megalitikoak garbitu egin dituzte. Lanak Udaleko mendi brigadak egin ditu Luis del Barrio arkeologoaren zuzendaritzapean.

**EGIN DITUZTEN LANAK**

Udalak Donostia Lurailan enpresa kontratatu du eta bertako arkeologo Luis del Barrioren agindupean herriko mendi brigada maiatzaren 27an hasi zen lanokin. Guztira, bi estazio megalitikotako 13 trikuharri eta tumulu garbitu dituzte. Horre-

la, Elosua-Plazentzia eremuan -Karakatetik Irimora doan tartean- 15 megalito dauden arren, zortzi dira Bergarako eremua dagozkionak -beste zazpiak, berriz, Elgoibar, Soraluze, Azkotia eta Antzuolari-, eta haiek garbitu dituzte. Udal-Intxorta eremuan, berriz -Iru-tontorreta menditik Intxortaraino-, bost megalito garbitu dituzte. Bi eremu megalitiko horiek Monumentu Multzo Kalifikatua izendatuta daude, eta babesik handiena dute. Horregatik, Luis del Barrioren zuzen-



Irudian, Agerreburuko trikuharria, garbitu ondoren.

LUIS DEL BARRO

daritzapean: "Kontu handiz egin beharreko garbiketak izan dira, ezin daitezkeelako ez trikuharri ezta tumulu horiek hondatu ezta mugitu ere, baina azkenean, lortu dugun emaitza oso ona izanda". Lan horien aurrekontua 3.950 euro izan da. Garbiketa lanak amaituta mantentze lanak

egingo dituzte hemendik aurrera. Horrela, azaroan beste garbiketa saio bat saio bat egingo dute, orain arte garbitutakoa mantentzeko.

**EREMU MEGLITIKOETARA IRTEERA**

Eremu megalitikoak garbitu osten, eta asteberu honetan ospatuko den Mundumira jaiaren

barruan, bihar, zapatua, ekainak 7, eremu megalitikoetara irteera antolatu dute, hain zuen ere, goizeko zortzietan, Irurutzetara egongo da irteera, trikuharrien ibilbidetik, Pol-Pol mendi taldearen gidaritzapean. Izena eman nahi duenak ondorengo telefona dei dezake: 902 18 14 71.

JAIAK &gt; PADUAKO SAN ANTONIO

## Herri afaria, erromeria eta arte azoka daude aurtengo jaietako berrikuntzen artean

Zapatuan egin beharreko txaranga txapelketarik ez da egongo, txaranga bakarra aurkeztu delako lehiaketara

JASONE ZABALA > BERGARA  
Aurtengo San Antonio auzoko jaiak ekintza ezberdinakin datozen. Antolatzaleek ahaleginak egin dituzte egitarauan berrikuntzak sartzen.

**HIRU BERRIKUNTZA**  
Eguaztenean, 19:45ean, txupinazo eta kanpai hotsekin emango zaie hasiera jaietako ondoren,

bederaziurrena auzoko ermitan. Egubakoitz Paduako San Antonio eguna izango da. 10:30ean meza egongo da, eta ondoren, San Joxepeko abesbatzak Gure Ametsa elkartea ondoño plazatxoan abestuko du; 21:00ean, herri afaria egongo da -aurtengo berrikuntzako bat- eta ondoren DJ Angirekin musika emanaldia. Afarirako izena emateko, Kristina estankuan, Agirrebeña oinetako dendan, Gure Ametsa elkartean eta Konde okindegian eman daiteke ekainaren 10 arte. Txartel bakoiak 15 euro balioko du.

Zapatuan, berriz, 12:00etan gaztetxoendako zezentxoak eta zalditxoak egongo dira. Arratsaldean, mus txapelketa eta 16:30ean Honorio Agirregabia-

riaren omenezko 72. txirrindulari lasterketa. 20:00etan, Gure Ametsa elkartea antolatutako afari-merienda sagardo, ardo, sardina eta solomoarekin, eta giroa animatzeko erromeria egongo da bigarren berrikuntzak bat- Itziarko Uriarte anaiekin.

Domekan -jaietako azken egunean- 11:00etatik 14:00ak arte azoka egongo da -hirugarren berrikuntza. Nahi duen edonork gauzak saldu, erosteko edota elkar aldatzeko aukera izango du: liburuak, diskoka, koadroak, eskulanak, filatelia... Azoka honetan parte hartu nahi duenak, baina, aurrez izena eman beharko du ekainaren 11 aurreko ondorengo telefono zenbakian: 648 01 32 40.



MUSIKA ESKOLA

## Gazte Bandak Anoetan jo zuen

Pasa den zapatuan, maiatzak 31, Musika Eskolako Gazte Banda Anoetan izan zen. Jokalarriko Anoetara iritsi zirenean, banda guztiek *txuri urdin* jotzen hartzitzen jokalarriak. Ondoren, partiduan zehar hainbat pieza jo zituzten. Bestalde, Bergarako Musika Eskolak 2008-2009 ikasturterako matrikulazio epea ekainaren 15era arte zabalik du.

**Lokal klimatizatua  
Egunero zabalik  
WI-FI GUNEA**

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)  
BERGARA

**Guisasola** burdindegia "Erratzu"

Zerbitzu berria  
labanak eta guraizeak zorroztzen ditugu

San Pedro, 8 Tel. / Faxa: 943 76 27 70  
20570 BERGARA (GIPUZKOA)

**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

# Goienkaria

Martitzena / 2008ko maiatzaren 6a / GOIENKARIaren ARGITALPEN BEREZIA

# PAZKOAK 2008

## Bergarako jaiak



ARGAZKILARIA: JOSETXO ARANTZABAL

San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea  
BERGARA • 943 76 90 04

PROFESIONALTASUNA,  
GAS BEROGAILUEN  
EKOIZPEGINTZAN

1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech  
Teknologi eta Ekoizpen Zentroa sortu zen.  
Gure bezero, lankide eta eskualde  
honetako jende guztia agurtu nahi dugu.


Jai zoriontsuak!



*Gogor  
estutzen dugu!*

**Torlojugintza**  
Epezialitatea: era guzietako azkoinak  
JAI ZORIONTSUAK!

**INDUSTRIAS**  
**ZANGUITU**



Tel.: 943 76 18 05 / Faxa: 943 76 27 43 / 20570 San Juan auzoa 40 BERGARA / [industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es](mailto:industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es)



**GOIENA**  
asegurua  
arteekaritza



**ARRASATE** Antso Abarka 6  
Tel.: 943 79 59 81 Faxa: 943 79 39 18  
[www.goienaaseguruak.com](http://www.goienaaseguruak.com)  
e-posta. [goiena@goienaaseguruak.com](mailto:goiena@goienaaseguruak.com)

**GOIENA ASEGURU  
ARTEKARITZAREN  
TALDEAK  
JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE  
ONDO PASA!**



**BERGARA** Zurradero 2  
Tel.: 943 76 97 65 Faxa: 943 76 40 37  
[www.goienaaseguruak.com](http://www.goienaaseguruak.com)  
e-posta. [goiena@goienaaseguruak.com](mailto:goiena@goienaaseguruak.com)

*Zurekin*  *Zuretzat*

GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA SL, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioen Sailak baimendurik, izena emanda Aseguruen Artekaritza Erregistro Berezian MS-241 KLABEAREKIN

## Goienkaria

### Argiratzalea

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea  
Nafarroa etorbeidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktoreburua**  
Iker Barandiaran **Erredakzioa** Edu Mendiñol, Xabier Urtzelai, Mirian Biteri, Irati Agirrezaidegi, Leire Kortabarria, Jason Zubala, Arantza Ezkibel, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Maketazioa** Oxel Arrieta  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Zortza Martin  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate

### EGOITA NAGUSIA BERGARA

20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK ARRASATE

20500 Otarola Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasate@goiena.com

### ARETXABAleta

20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

### Publizitatea

Arrasate 20500 Nafarroa etorbeidea 2  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 79 22 93  
Posta-e: publi@goiena.com

### Harpidetza

Arrasate 20500 Nafarroa etorbeidea 2  
Tel.: 943 25 05 05 • Posta-e:  
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000  
ISSN: 1577-1210 • Tirada: 4.900 ale



OIN erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

Bergarako  
Udal

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen berten adierazitako  
iritzien erantzukizunik.



## alkatearen agurra

Agurne Barruso

# Kaixo, bergararroi eta Pazkoetan Bergarara hurbildu nahi duzuenoi:

**A**urtzen ditugu lehenengo pazkoak alkate-tzan eta ezin ukatu pazkoa bereziak dire-nik. Bereziak Udal gobernuan egoteak suposatzen duen ohoreagatik eta bereziak batez ere jaiak antolatzearen eta guztia ondo ateratzearen ardura sentitzen dugulako.

Jaiak ez dira jai kolorea eta musika falta badira. Udalai sainatu da bere programazioan kolo-re eta musika sartzen, baina kolorea eta musika herritarrok ematen dizkiegu jaiet. Jaiak ez baitira jai herritarrik gabe.

Jaietako programaren agurra den honetako dei berezia luzatzen dizuet bergararrei jaie-tan parte har dezazu eta koadriletatik, elkar-teetatik eta norbanakoarengandik musikari eta koloreari ekarpena egin diezaiozuen. Atera jaie-tako blusak, atera kantatzeko eta dantatzeko grina eta egin ditzagun pazkoak bergararrek bul-tzatutako jaiak.

Gure eskerrik beroenak jaiak antolatzen jardun duen jendeari. Eskerrik asko, jai-batzordean, ahalik eta jairik oparoenak antolatzeko lanean boluntario ari zaren pertsonai eta taldeei, eskerrik asko txos-na batzordeari gune hain aberatsa eta emankorra antolatzeagatik eta eskerrik asko jaien antolaketan murgilduzaren teknikari eta hautetsiei. Eta aurrez bada ere, eskerrik asko bergararrei eta kanpotik etorri zare-tenoi jaietan kolorea eta giroa sustatzeagatik.

Jai alai eta irudimentsuak opa dizkizuet guztioi. Ondo pasa eta gozatu jaietaz.

Ezin ahaztu pazkoia hauek, beste asko bezala, espe-theetako ziega ilunetan edo erbesteko urruntasune-an igaroko dituzuen bergararrak.

Baita arrazoiren bat ala beste dela medio Berga-ran egoterekiz izango ez duzuenok ere.

Hemen izango zaretenoi, gozatu eta parte hartu.

Izan daitezela jai alaitu eta kementsuak. Elkar ikusiko dugu jai-giroan eta jai-guneetan

## AURKIBIDEA

**Egitaraua** > 05-06

**Zapi lehiaketa** > 08

**Erekortadoreak** > 09

**Umeen ikuskizunak** > 10

**Plastika sarketa** > 13

**Txaranga topaketa** > 15-16

**Bideberri Rock** > 18-19

**Txosnak** > 22

**Samu Crew** > 23

**Dantza soltea** > 25

**Herri bazkaria** > 26

**Mahaijokoak** > 28

**Herri kirolak** > 31

**Jaietako irudia** > 32

**Jolas-parkea** > 33

**Barrakak** > 35

**Argazki rallya** > 36

**Bike Trial** > 38



## argazki zaharra

# Sagarpe elkartea

1966ko argazki honetan Sagarpe elkarteko lagun koadrila jaietarako mozo-rotuta agertzen da. Bigarren planoan Irala kaleko etxeak egiteko lanak.

Ezkerretik eskumara, Laurentxi Lazpiur (argazkilari-z jantzia), Lorentzo Laskurain (gozoki saltziale), Jose Miguel Lizarralde (piruli saltzaile), Ramon Mujika eta Juan Carlos Larrañaga (barkilleroa).

**Argazkia:** Bergarako Udal Artxiboa.  
Lorentzo Laskurain Fondoia.

**Testua:** Iker Barandiaran.

**Urtea:** 1966.




# J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

- **INPLANTEAK** Punta-puntako teknologia
- Aho zirugia
- Ortodontzia
- Odontologia orokorra

**Aseguruak: PADI** (Osakidetza)  
AEGON

Ondo pasa jaietan!



Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

# BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa

Aurrekontua  
konpromiso barik.

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02  
[bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) • [www.euskalnet.net/bolusukaldeak](http://www.euskalnet.net/bolusukaldeak)

**ELKAR**  
ELEKTRAGINTZA

ZURE  
ZERBITZURA!!

Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00  
 Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**

EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza 9

**20:00** Jain hasiera, etxafuegoak jaurtitzea eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.



BITORIANATXOREN JAITSIERA.

**20:15** KALEJIRA Zpeiz Mukaki taldekoekin herriko kaleetan barrena. Iluntzean, Matxiategin BARRAKEN IREKITZEA eta Bideberrin TXOSNEN IREKITZEA.  
**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Enboskada, Hesian eta Amaiur musika taldeekin.  
**22:30** KALEJIRA eta SU IKUSKIZUNA 0,7 Cabriolas y diablitos taldearekin, San Martin plazatik abiatuta.  
**23:00** ERROMERIA San Martin plazan Drindots taldearekin.

## Zapatua 10

**09:00** 28. Haur eta gazteen PLASTIKA-LEHIAKETA, Beart Bergarako Arte elkartea antolatuta, San Martin plazan. Euria eginez gero, Beartek Bolu 49.enean duen egoitzan.  
**10:00** DIANA. Labegaraietatik, Elgoibarko dultzaineroak. Oxirondotik, Udal Txistulari Banda. Bolutik, losu eta lokin soinu-joleak. Dianaren ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak, eta Mizpirualdera joango dira.  
**10:30** Euskal Herriko txarangen Pentekoste jaietako I. bilgunea.

**11:00** Herriko elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan.  
**13:15** Haur eta gazteen plastika lehiaketako sari banaketa San Martin plazan. Euria eginez gero, Beart Bergarako Arte elkartearren egoitzan (Bolu kalea 49).



ZPEIZ MUKAKI TALDEKO KALEJIRA.

**13:30** Bakailao lehiaketako sari banaketa egingo dute San Martin plazan.  
**15:00** Bazkaria txosnetan, Xabier Silveira, Sustrai Colina eta Ainhoa Agirreazaldegiren bertsoekin, eta trikitilariekin alaituta.  
**16:30** TXANOGORRITU ROCK, gazteendako kontzertua, San Martin plazan.  
**17:30** Preso eta iheslariei omenaldia txosna gunean.  
**18:00** ERREKORTADOREEN eskola, umeendako; eta ondoren, Errekortadoreen ikuskizuna.  
**18:15** Haurrendako BONBA JAPONIARRAK, San Martin plazan.  
Horren ostean, erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskozuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin Agirre plaza.  
**19:00** Kalejira aldarrakatzailea txosnagunetik.  
**21:00** Euskal Herriko I. Txarangen Pentekoste bilguneko sari banaketa San Martin plazan egingo dute.



San Juan auzoa  
BERGARA  
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39  
Web orria: [www.ibili.net](http://www.ibili.net)

**Zorionak bergararroi!**

*Aro berriko sukaldaroko tresneria*



Ondo ibili Pazkoetan!

943 25 05 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)  
BERGARA

**EGITARAUA**

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Turboshit, Inoren Ero Ni eta Pikitara taldekin.  
**23:00** DANTZALDIA San Martin plazan, Impekables eta La Güeteke Band taldekin.

**Domeka 11**

**08:00** ALBORADA Udal Txistulari Bandarekin.  
**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan, txarangen bilguneko txaranga irabazleak alaituta.  
**10:00** Euskadiko banakako XAKE TXAPELKETA Agorrosingo ekitaldi aretoan.  
**10:00** 72. Pentekoste Saria TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpiko txirrindularientzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorentzotik.  
**10:30** FUTBOLINEAN, DARDOEKIN ETA PIN-PONEAN jolasteko aukera San Martin plazan.

**12:00** Bike Trial ERAKUSTALDIA Iker Lezeta munduko txapeldunaren eskuak, zezen-plazan.

**12:30** Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoloian.

**Egitaraua:**

*Euskal festara.* (Euskal martxa). J.M. Usandizaga  
*El pescador de perlas.* (Obertura). G. Bizet  
*Batalla della tromba.* F. Pisano  
*La granjera de Arles.* (Zarzuelako aukeraketa). E. Rosillo  
*Nostradamus.* (Fantasia) O.M. Schwarz  
*Bergarako ereserkia.* A.Gz. Chirlaque  
 Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

**16:00** XAKE AZKARREKO taldekako partiden txapelketa, Agorrosingo ekitaldi aretoan, Bergarako Xake Elkartek antolatuta.

**16:30** Umeendako JOLAS PARKEA Ipintza IIn. Puzgarriak, quads-ak, ludoteka...

**17:00** SAMU CREW break dance taldea eta Aritz Sound System Djaren ikuskizuna eta tailerra Simon Arrieta plazan.

**17:30** MURAL MARGOKETA txosna gunean.

**17:30** 31. Euskadiko DANTZA SUELTOKA TXAPELKETA, 16 urtez azpiko bikoteentzat, San Martin plazan, Abarka taldeak antolatuta. Udal Txistulari Bandak eta Trikitilariek lagunduko dute.

**18:00** Bergarako ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA zezen-plazan: Kulunpiao, quad toreroa, igerileku...

**ERREKORTADOREAK**

**20:00** Arratsalde paxa antzezlan txosna gunean, KOLOKLOWN taldearen eskuak.

**20:30** MULANBO perkusio taldearekin eta Bergarako hanka-paluekin kale-animazioa.

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin, Belceblues, Olympic Darts, Adi Holden eta Mahaster River musika taldekin.

**23:00** DANTZALDIA Arizgoiti taldearekin, San Martin plazan.

**Astelehena 12**

**10:30** PLATER TIRAKETA Gorlako Iribide zelaian, Ollagorra elkartek antolatuta.

**11:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan.

**11:30** KOADRILEN ELKARTZEA txosna gunean.

Koadrilen artean PATATA TORTILAK egitea eta dastatzea. Arrautzak, patatak, olioa, gatza eta sutegiak Udalak jarriko ditu. Gainerakoak norberak eraman beharko ditu.

**12:30** EGUERDIKO KONTZERTUA Espoloian, Garibaldi mariatxi taldearekin.

**13:00** KOADRILEN KALEJIRA alaia Xapre eta Zarra trikitilariekin, San Martin plazatik hasita.

**13:30** Herriko trontzalariekin eta antxintxikalariekin

DESAFIOA Munibe plazan.

**14:30** HERRI BAZKARIA, San Martin plazan. Bazkaria Xafre eta Zarra trikitilariek alaituko dute. Horren ostean, EUSKARAOKEA egingo dute, eta KOADRILEN ARTEKO JOLASAK izango dira.

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan.

**19:00** BERGARA HIRIA pilota txapelketako finalak Bergarako Udal pilotaleku, Bergarako Kirol Elkarteak antolatuta.

**19:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan, Bergarako errekortadoreen eskuak. Goizean ikasitako praktikan jartzeko aukera.

**20:00** Euskararen alde txotx egingo dute txosna gunean.

**22:30** KONTZERTUA Bideberrin Lord Witch, Zea Mays eta Karelean taldekin.

**23:00** ERROMERIA San Martin plazan Tapia eta Leturia bikotearekin eta Ilok Otamendi dantzariarekin.

**23:00** CAMP DANTZALDIA Tarantella taldearekin, Espoloian.

**Martitzena 13**

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan, Incansables txarangak alaituta.

**11:00-14:00** Umeendako JOLAS-PARKEA Ipintza II.go patioan. Auto txikiak, zezen mugikorrak, karsak, *goming...*

**11:30-13:30** HERRI TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera. Irteera guztiek Fraiskozuri plazatik egingo dira.

**12:30** HERRI-KIROLEN ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Ana Berasategi, Ane Arrospide, Mari Jose Sardon, Jagoba Otaegi, Hodei Ezpeleta eta Ioritz Gisasola herri-kirolari gazteekin, San Martin plazan. Lastoa jasotzen, ingudea altzatzen, aizkoran... airtuko dira. Hizlari lanetan Ernesto Ezpeleta *Bihurri* ibiliko da.

**12:30** Incansables txarangaren bisita Mizpirualde egoitzara.

**17:00** Umeendako jolasak egingo dituzte txosna gunean.

**18:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan Bergarako errekortadoreen eskuak.

**18:30** Umeendako ipuin kontakizuna egingo dute txosna gunean.

**19:00** Helduendako ipuin kontakizuna egingo dute txosna gunean.

**18:00** KALE ANTZERKIA Brakala taldearekin, San Martin plazatik hasita.

**20:15** Akerbeltz taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.

**21:00** Akerbeltz taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.

**22:30** Akerbeltz taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.

**00:00** BITORIANATXOREN IGOERA eta agurra. Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan Incansables txarangaren laguntzarekin.

**24:30-01:00** Akerbeltz taldearekin DANTZALDIA San Martin plazan.

**ANTOLATZAILEEN OHARRAK:**

-Jai batzordeak deia egiten die herriko koadrilei kalera blusa edo kamisetarekin irteteko.

-14 urtetik beherakoek debekatuta izango dute errekortadore eskola ibiltarian izan ezik gainerako zezen ikuskizunetan esku hartzea.

**UMEENDAKO JOLASAK**

# HORKONPON

oinetako konponketa

*Albertok jai zoriontsuak  
 opa dizkizuete!*



kremailerak  
 poltsen konponketa  
 tindatzea  
 krisketak

Bidekurutzeta 28  
**943 76 04 07**



# TORBER

ONDO IBILI  
 PAZKOA JAIETAN!



Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO




Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

Mizpildi 8  
943 76 12 32  
BERGARA

Matxiategi 1  
943 76 72 73  
BERGARA



MIZPILDI  
  
OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!

**JARDUNEN ZAPI LEHIAKETA**

# Usoa Mendikute, bigarren aldiz jarraian zapi lehiaketako irabazle

Aurtengo lehiaketara bost marrazki aurkeztu dituzte guztira, eta apirilaren 25ean eman zuten ezagutzen irabazlea

JASONE ZABALA

**Jaietan kalean jantzia ikusi ahal izango diren mila zapietan Usoa Mendikuteren marrazkia joango da. Bera izan da aurtengo zapi lehiaketako irabazlea.**

**U**rtero bezala aurten ere Mendekoste jaietako zapian joango den irudi edo marrazkia lehiaketa bidez aukeratu dute.

Apirilaren 25ean era-baki zuten zein izan zen batutako bost marrazkien artean onena. Irabazlea -bigarren urtez jarraian- Usoa Mendikute berargarra izan da. Marrazkiarekin batera, Mendikutek aurtengo jaietarako aukeratu duen leloa ondorengoa izan da: *Gure hitzetan festarik festa euskara bezelakorik ez da*. Saria irabazleak egindako marrazkia -lelo eta guzti- jaietan aterako dituzten 1.000 zapitan azaltzea, eta 60 euro izan dira.

**ZAPI LEHIAKETA, NOIZTIK?**

Hasiera batean, Xamatz dantza taldeak ateratzen zituen zapiak. Horren ostean Jardunek hartu zuen eginkizun horren ardura. Aurtengoa zapiko marrazkia aukeratzeko lehiaketa egiten den hirugarren urtea da. Lehen, norbaiti eskatzen zitzzion marrazkia egitea eta hori jartzen zuten zapian: "Batzuetan gustuko genuen, beste batzuetan gutxiago, eta egile


berdinarenak izatean, estilo aldetik antzekotasuna izaten zuten urte desberdin netako marrazkiek", adierazi dute Jardunekoek. Horregatik, urtez urte alda-tzearen antolatu zuten lehiaketa. Marrazkiarekin batera, festa eta euskara uztartu eta bultzatzen dituen lelo bat asmatzea eskatzen dute. Jarduneko kideen arabera, "lehiaketa antolatzeko arrazoi nagusia aukeratzeko aukera izatea izan zen. Hau da, marrazki desberdinak izatea eta onena edo gustukoena aukeratzea".

Jarduneko arduradunen arabera "zapi irabazlea aukeratzeko, marrazkiari dagokionean, kalitatea, originaltasuna, bizitasuna eta alaitasuna baloratzentzituzte, eta leloari dagokionean, berriz, batez ere, jaiak eta euskara uztartzen dituena izatea. Horregatik, aurtengo jaietarako Usoa Mendikutek jaiak eta euskara ederki uztartu dituela uste izan dute antolatzaileek, eta horren marrazkia izango da aurtengo jaietako zapien protagonista.

**Saria da marrazkia jaietako zapian agertzea eta 60 euro**

**Marrazkiak eta leloak, biek, euskara eta jaiak uztartu behar dituzte**

**GURE HITZETAN FESTARIK FESTA EUSKERA BEZELAKORIK EZ DA**



Irudian, aurtengo marrazki irabazlea.

JARDUN

# Azkoin

Industriak



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu berigarar guztioi!

Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa. 109 posta kutxa Tel.: 943 76 10 52 Faxa: 943 76 98 20 Bergara



**umelaga**  
JATETXEA

San Antonio 5 BERGARA 943 76 20 21

*Jai zoriontsuak izan ditzazuela denok!*

**66 urte zuen zerbitzura!**

ZEZEN-PLAZA

# Maila handiko errekortadoreen ikuskizuna jaietan

Egun nagusia domeka, maiatzaren 11, izango da

NEREA MENOR

**Maila handiko errekortareak egongo dira auren. Gazetxoen partehartzea bultzatuko dute eta teknikaren xehetasun guztiak argituko dizkigute.**

**E**uskal Herriko Errekortadore Taldeko arduraduna da Iñigo Almortza. Bere zaletasuna duela 16 urte hasi zen, eta orain oso inplikatuta dago errekortadore alorrean. Ikuskizunetan erabiltzen duten guztia eureka da, ganadua barne, eta oso ondo antolatuta daude. Partaide asko estatu mailako lehiaketetan dabilta, eta oso maila alta daukate. Domekan, maiatzaren 11, beraien ikuskizun berezia eskainiko dute

herrian. Duela bost urte hasi ziren hori prestatzen eta normalean Euskal Herrian egiten dute lan, baina Errioxan eta Burgos-en ere egon dira. Hala ere, oraindik ez dute Bergaran aurkezteko aukerarik izan

eta aurten egiteko gogo handia dute. Ikuskizuna bi zatitan banatuta dagoela azaldu du Almortzak: "Ikuskizunak zati serioago bat dauka alde teorikoa aurkezten duguna, saltosak zelan egiten diren... Beste zatia komikoagoa da, instrumentu batzuk ditugu prest, guztiok ondo pasatzeko: bainuontzi bat, quad bat... eta behiak ateratzen ditugu. Oso ikuskizun polita da".

**GAZETXOAK PLAZARA**  
Gazteei taldean sartzeko aukera emateko prest dade beti: "Errekortadore eskola ibiltaria jarri genuen martxan iaz. Umeekin egiten dugu lan, batzuk zezen plazara ateratzen dira, ikuskizunean bertan, eta klase teorikoa eman ondoren txala txiki bat botatzen diegu: izugarriko arrakasta izaten du.



Seminario zezen-plazan eskainiko dira errekortadoreen ikuskizunak.

GOIENKARIA

Benetako poza ematen du umeak zelan disfrutatzen duten ikustea. Umean adinaren arabera txalekin ibiltzen dira edo oso gazetxoa badira gezurretako zezenak ipintzen dizkiegu". Hiru arratsaldeetan egingo dute Bergaran:

zapatuan, astelehenean eta martitzenean, hain zuzen ere.

Lege berezi batek lagatzen die umeei zezen plazara ateratzen, baina lege-dedia aldatu gura dute. Iskanbila handia sortu da horregatik. Alegazioak

egin ondoren, zirriborro berriaren zain daude. Lege berria ezarriz gero, aldaketa dezente egongo dira. Bi adibide: 16 urtetik beherako inor ezin izango da zezen plazara atera eta egun argirik ez dagoen orduetan ezin izango dira zezenak atera.

**KIZKUR**  
•  
**Ile apaindegia • Estetika**

[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
Bolu kalea 51, BERGARA Tel.: 943 76 50 32

**20. URTEURRENA**  
**Eskerrik asko denoi!**

Pazkoak zoriontsuak opa dizkizuegu!



**iBARRALDE**  
Administrazio zerbitzuak SM

25.068 kolegiatu zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA  
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta juridikoak
- Finken administrazio zerbitzua

ondo pasa jaiak!

## UMEENDAKO IKUSKIZUNAK

# Euskal doinuak gaztetxoei zuzendutako erromerian

'Txanogorritxu rock' gaztetxoei zuzendutako kontzertua izango da egubakoitzean Santa Martin plazan

## ARANTZAZU EZKIBEL

Jaietaz gozatzeko aukera paregabea izango dute herriko gaztetxoenek aurrengo Pazkoetan. Zapatuan erromeria eta Bonba japoniarra izango dituzte eta martitzenean jolasak.

**J**aiak herritar guztientzat izaten dira gozagarri; baina, batez ere, gaztetxoenek gozatzen dute jaietaz. Kalera irten eta kaleko animazioa ikustea ikaragarri polita izaten da etxe-ko txikienetzetat.

Aurtengo Pazko jaietarako hainbat ikuskizun eta hitzordu antolatu dituzte haur eta gazteek herriko jaietaz gozatzeko. Beste urte batuetan bezala, aurten ere martitzena izango dela jaietako haurren egun berezia adierazi du Mai-der Osa kultura teknikariak. Baina, Pazko jaietako irauten duten egun guztietan izango dute non jolas-ko aukera.



Bergarako gaztetxoak jai giroan: hainbat jostailurekin jolasean ageri dira.

## GOIENKARIA

**'TXANOGORRITXU ROCK'**  
Haur eta gazte dantzari jarriko ditu Gasteiztik datorren *Txanogorritxu rock* ikuskizunak. Gaztetxoenei zuzendutako erromeria izango da; zapatuan

**Martitzenean txosnagunean  
umeendako ekintzak  
egingo dituzte: haur jolasak  
eta ipuin kontalaria**

izango da 16:30etan San Martin plazan. Euskal musika egiten dute *Txanogorritxu rock* ikuskizunean; baina, izenak dioen bezala, rock ukitu berezia jartzen diote kantuei.

San Martin plazan  
**Zapatua  
16:30ean**  
Gaztetxoei zuzendutako erromeria  
Txanogorritxu rock  
taldearekin

## BONBA JAPONIARRAK

Urteroko hitzorduak bilakatu dira Pazko jaietan Bonba japoniarra. Jai giroan murgiltzeko hainbat txistu eta serpentina eskuratzeko aukera izango dute San Martin plazan botako dituzten bonba japoniarretan. Arratsaldeko 18:15ean izango da.

Ordu berean, umeendako errekontadore eskola jarriko dute Seminario zezen plazan. Gaztetxoek zezenaren aurrean nola jokatu behar duten ikasiko dute; era berean, errekontadoreek eskainiko duten ikuskizuna ikusteko aukera izango dute. Errekontadore eskola 18:00etan izango da.

## TXOSNAGUNEA

Txosnaguneko egitarauaren barruan, martitzenean haurrentzako jolasak egongo dira. Martitzena *Hezkuntza Eskubideen Eguna* izendatu dute txosna batzordeko kideek. 17:00etan haurrendako jolasak egongo dira eta 18:30ean umeendako ipuinak kontatuko dituzte.

## BERGARAKO URTEAGA AUZOAN

40 etxebizitza eraikitzen hasi gara



2009an Bukatuak

Informazioa eta salmenta: 943 76 27 58

Ondo ibili jaixetan!



Nokia 6300

0€ + Nabigatzailea opari



kontratua



### Beheranzko kontratua:

zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta gutxiago ordaindu

#### BERGARA

Ibargarai hiribidea 4  
Tel.: 943 76 39 79

#### EIBAR

Zuloagatarren 1  
Tel.: 943 20 62 28

#### ERMUA

Bizkaia etorbidea 10  
Tel.: 943 03 00 13



Promozi baliagarria 08/04/01etik 08/05/31ra Orange dendatan, beste operadore nazional batetik etorritakoendako, gutxienez sei hilabeteko kontratu murriztailearekin eta 18 hilabeteko kontratuarekin Orangen. CGC Orangeri atxikia. Salneurria penintsula eta Balear uharteetarako. Kontsultatu salneurria Kanarietarako, Ceutarako eta Melillarako. Zeharkako zergak barne. Baliagarria aparailuak bukatu arte (15 unitate).



Pazkoa jai  
zoriontsuak opa  
dizkizuegu!

# OLABE

## OKINDEGIA-GOZOTEGIA



Amillaga 21  
Matxiategi 4  
Zurradero 2  
Simon Arrieta 6

Tel.: 943 76 72 28  
Tel.: 943 76 57 99  
Tel.: 943 76 01 26  
Tel.: 943 76 10 71



**Euskal gizartea etorkizuna erabakitzeko eskubidea du**  
*Jai zoriontsuak izan ditzazuela guztiok*

**BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00**

**TABERNA Tel.: 943 76 49 33**

[www.eaj-pnv-bergara.org](http://www.eaj-pnv-bergara.org)  
[ejbergara@euskalnet.net](mailto:ejbergara@euskalnet.net)

**San Pedro 4, BERGARA**



**Saunier Duval**



**DICOMAN S.L.**

**San Lorentzo 21**

**20570 Bergara**

Laguntza teknikorako zerbitzu  
ofizial baimendua

**Tel.: 943 76 06 61**

**Faxa: 943 76 06 91**

[dicomanbergara@dicoman.com](mailto:dicomanbergara@dicoman.com)

**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**

PLASTIKA SARIKETA

# 28 urtez artista gazteenen sormena saritzen dihardute

Aurten ere San Martin plazan bilduko dira ume eta gazteak, euren irudimenari ahalik eta probetxu onena ateratzeko

JOKIN BEREZIARTUA

Beart arte elkartea antolatzen du eta ume eta gazteen sormena sarituko dute. Txikienen artean arrakasta izan ohi du ekitaldiak

J aietan hamaika dira aurrera eraman daitezkeen plakanak. Hauen artean protagonismo berezia hartu izan dute txikienek parte hartzen duten ekimeneak. Plastika sariketa da azken honen adibide garbia, ume eta gazteen batbateko sormena saritzen den ekitaldia da-eta. Azpimarratzeko da txikienek momentuan sortu behar duten lana dela, askotan euren irudimena agortzea arte.

Plastika sariketa ez da berria Mendekoste jaietako egitarauan, ezta gutxiago ere. Aurten, 28. edizioa beteko du dagoeneko. Eta badira urte batzuk. Plastika sariketak ume eta gazte ugari erakarri



Haur eta gatzetxoek hartzen dute parte urtero plastika sariketan. Irudian, aurreko urteetako irabazleetako batzuk.

GOIENKARIA

izan ditu 28 urte hauetan zehar. Hala, herriko ume ugarik hartu dute parte, jadanik ia hiru hamarkada beteko dituen ekitaldi honetan. Goizean goiz hasiko da sariketa, 09:00-e-

**Bost artelan onenak sarituko dituzte, adinka sailkatuta. Gazteenek 12 euro jasoko dute; zaharrenek, aldiz, 30 euro**

tan, hain zuzen ere. San Martin plazan izango da eta eguraldi txarra egingo balu Beart elkartea Bolu kaleko 49an duen egoitzan egingo litzateke. Sariei dagokienez, bost

sari banatuko dituzte adin multzo bakoitzeko: txikiek 12 euro jasoko dituzte; 9 eta 11 urte bitartekoek 20 euro; eta, azkenik, 12 eta 14 urte bitartekoek, 30 euro, hurrenez hurren.



*Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa*

Royde, S. Koop. • 157 posta-kutxa • Amilaga 9 • 20570 BERGARA  
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila: rap@royde.com • www.royde.com



Jai zoriontsuak  
bergararroi!



## LAGUN GARAJEAE

ad®

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

Santalaitz 3. BERGARA. Tel.: 943 76 11 20

**UGARTE**  
AROZTEGIA - ALTZARIAK

arotz lanak orokorrean  
leihoak  
ateak  
horma-armairuak

**K21**  
KALITATEA  
Engintariola Ispina ZL  
1/00/025  
1 Maila

**Ondo pasa  
Pazkoa jaietan!**

**altzari denda**  
ikerleku zeharbidea · bergara  
tel.: 943 03 46 30

**erakusketa eta tайлerra**  
san juan 1a · bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxa: 943 76 08 04

**metagra**

*Aurtengo Pazkoetan, jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu herritar guztioi!*

Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxa: 943 76 50 34  
e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com

TXARANGEN BILGUNEA

# Txaranga, herriko kaleetan dantza doinuen eztanda

Herriko musika adituek aukeratuko dute talderik onena, domekan zezen plazan jardun dadin; Ierro hauek idazterakoan txaranga gutxi zeuden baina Udalak izenemate epea luzatu zuen

IRATI AGIRREAZALDEGI

Mendekoste jaiei euskal kutsua emateko eta jai giroa suspertzeko Euskal Herriko txarangen bilgunea antolatu du Udalak zapaturako. Hortaz, musikarik ez da faltako kalean.

Txaranga doinuak jaiekin lotzen ditugu gehienok eta Bergaran ere hala izango da Mendekoste jaietan. Izan ere, txarangen bilgunea antolatu dute kaleko jai giroa eta musika sustatu asmoz.

Bilgunean parte hartzeako izena ematen duten txarangek goizez eta arratsaldez jardungo dute kalez kale; goizean 11:30etik 14:00etara eta arratsaldez 17:30etik 20:30era. Denek ala denek ibilbide bertsua egingo dute herrian barrena. Hau da, txaranga bakoitzak herriko txoko batean hasi-



Askotariko doinuak eta musika tresnak entzun ahal izango dira herriko kaleetan.

GOIENKARIA

ko da, zozketak erabakita-koaren arabera, eta gunetik gunera mugituz joango dira musikariak ibilbidea osatu arte.

**PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**  
Txaranga bakoitzeko musikari kopurua mugatua izango da; gutxienez bost lagun eta gehienez 12.

Udaletxetik herriko zein inguruko musikariak animatu nahi dituzte taldea osatu eta bilgunean parte hartzera. Izan ere,

gutxienez bost txarangak eman behar dute izena txarangen bilguneak aurrera egin dezan, bestela bertan behera geratuko da. Gehie-

nezko kopurua ere badago, ordea, hamar txarangakoa, hain zuen ere.

Musika tresnak eskuan kalez kale ibiliko dira musikariak. Txarangelan haize instrumentuak ikustea da ohikoena baina Bergaran hori ere aukerakoa izango da. Hau da, taldekiek eurek libreki erabakiko dute zein musika tresna erabili euren kantuak joitzeko. Errepertorioa ere txaranga bakoitzak erabakiko du. Hortaz, baliteke jaietako betiko kantuak edo egungo modako abestiak entzutea.

LEHIAKETA

Txarangen bilgunea lehiaketa ere izango da. Bergarako Udalaren eskutik, parte hartzen duten txaranga guztiek 300 euroko dieta jasoko dute. Baina dieta hori jaso ahal izateko egunen bertan, maiatzaren 10ean, antolatzaileek emandako orria bi aldiz sinatu beharko du txaranga bakoitzeko ordezkariek 10:30ean eta 21:00etan.



Talleres  
**FILBER S.L.**

Filtrazio ekipamenduen eta zinta garraiatzaileen fabrikazioa



Pazkoa jai zoriontsuak!

Amillaga 14 - 71 P.K. • Tel.: 943 76 17 45 • Faxa: 943 76 97 46



JAI ZORIONTSUAK  
GUZTIO!!

# JOXAN ARRAINDEGIA

Orain Super Amaran ere bai!

Ibargarai 24. BERGARA. Tel.: 943 76 70 29

**TXARANGEN BILGUNEA**

Baina izango da 300 euroez gain, bestelako sari-rik jasoko duenik. Txaranga irabazleari 3.000 euroko diru saria emango dio Bergarako Udalak 21:00etan San Martin plazan.

Epaimahaia Bergarako musika aditu talde batek osatuko du. Kontuan hartuko dituzte txarangek jota-ko piezen interpretazioa edo exekuzioa, afinazioa, erabilitako erreptorioa eta herrian ipinitako jai giroa edo animazioa.

**ARRASATEKO TALDEA**

Arrasateko Dragoialde txarangak izena eman du txarangen bilgunerako. Urte hasieran osatu zuten hamar laguneko taldea. "Gehienok Arrasate Musikaletik intendako musikariak gara. Hasi ginen elkartu eta talde bat sortu guran jai giroan jotzeko", esan digu Antton Peña Dragoialdeko musikariak.

Bergarakoa izango da jendaurrean Dragoialdek egingo duen lehen saioa eta aurrerago, San Juanetan, Arrasaten egin asmo dute beste kalejiraren bat gaztetxekoekin.

Txarangetan ohikoak diren musika tresnak jotzen dituzte Dragoialdekoek: bi saxofoi, bi tronpe-ta, kaxa, bonboak, txindatak, bi tronboi eta helikoiak.

Abestiak ere askotakoak joko dituzte. "Denetarik jotzen dugu. Nahi izan dugu erreptorioa osatzea jendeak ezagutzen dituen



Txaranga bakoitzak 300 euroko dieta jasoko du eta irabazleek 3.000 euroko saria.

GOIENKARIA

### **Bergarako musika adituek osatutako epaimahaiaik kontuan hartuko du afinazioa, jai giroa erreptorioa eta interpretazioa**

kantuekin, Pirritx eta Porrotxenekin, esaterako. Bestalde, txarangek betidainik jo dituzten abestiak ere joko ditugu: *Murga, Kabi*

*Alai, Asteazkenak...; eta Ramonesen Rock & roll radio* ere entzun ahal izango da gure emanaldietan", dio Antton Peñak.

### **Txaranga gutxi zeudela-eta, Udalak ahalegina egin du epea luzatu eta talde gehiago batzeko**

Bergarako txarangen bilgunera Dragoialdekoak bi helburu nagusirekin etorriko direla jakinarazi digu Antton Peñak: "Nahi dugu

gure taldea ezagutzera ematea batetik, eta bestetik kaleko giroa alaitza jaietan, hori baita bilgune honen asmoetariko bat".

### **Txaranga irabazlea domekan ere**

Kalez kale ibiliko dira zapatuau goizean eta arratsaldean txarangak Bergaran, euren dohainak eta musikaren bidez giro polita ipintzeko gaitasuna erakutsiz. Izan ere, daukaten onena eman beharko dute, baldin eta lehiaketako sari nagusia eskuratu nahi badute behintzat.

3.000 euroko diru sariaz gain, txaranga irabazleari Bergarako Udalak ostatu emango dio zapatu gaelean herriko txokoren batean lotarako, baita domekako gosaria ere. Izan ere, domekan, goizeko bigantxen ikuskizunean txaranga irabazlearen ardura izango da musika ipintzea. Horretaz gain, eguerdi aldera artean herriko kaleetan ibiliko dira txarangakoak jendea alaitzen.

Txaranga doinuak batean eta bestean entzun ahal izango dituzte bergararrek eta jaietan herrira gerturatzen direnek.



# **ANDUZI**

ANDUZI S.L. BERGARA Poltsikokoa: 607 349 043



**Grua zerbitzua**



Zerbitzu publikoa



Era guztiako kargak



# **IAM**

# **IAMMEK**

# **IAMCUT**

Sarpen eta hari bidezko elektrohidradora

Abiadura handiko mekanizatuak

Ur-zorrotada bidezko mozketak

GRUPO  
**IAM**

Aribar industrialdea B pabilioia  
San Juan auzoa 52 BERGARA  
Tel.: 943 76 91 00 Faxa: 943 76 29 49

Ondo ibili jaietan!

[www.iam.es](http://www.iam.es)

# TELAE TXE

Oihalen neurketatik etxean  
ipintzera arte dena gure esku  
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara  
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko  
kolekzio berria  
ikusgai eta orain  
**ALFONBRAK**

# Jaixak ospatu, gozatu eta parte hartu!

BERGARAKO UDALA

The collage includes images of a brass band, a marimba band, a traditional Basque mask (marramendi), people eating at a food stall, a person pouring wine, a person riding a small vehicle, and a group of people dancing.

**BIDEBERRIKO KONTZERTUAK**

# Kolore eta mota askotako musika eskaintza jaietan

Domekan Bergarako lau talde arituko dira Bideberrin, eta gainontzeko egunetan herriko talde bana igoko da agertokira Arrasatetik, Bilbotik, Zestoatik, Andoaindik, Sakanatik eta Zestoatik etorritakoekin

# 9 egubakoitza

**J**aietako lehenengo egunean, egubakoitzean, Bergarakoak ez diren hiru talde arituko dira Bideberriko txosna gunean. Horietako bat hurbilekoa izango da, Arrasatekoa, hain zuzen ere. Enboskada taldeak punk-oi! edo street-punka egiten hainbat urte daramatza, nahiz eta zuzenean ez duten askorik jotzen. Euskaraz abesten dute, eta hitz gogorrak idazten dituzte. Iaz *Zilegi al da?* diskoa kaleratu zuten euren kabuz, eta orain dela lau bat urte beste disco bat Never Surrender taldearekin erdibana.

**AMAIUR ETA HESIAN**

Hesian taldea Sakanatik etorriko da. Talde gaztea den arren, aspaldian kontzertu ugari egiten dabil. Ohiko rock taldeen instrumentuez gain, tronboia, saxoa eta tronpeta ere ibiltzen dituzte, eta emaitza rock, pop eta ska nahasketarindartsua da. 2007an *Maite dugu* diskoa autoekoiztu zuten; eta aurten Gazte Topaguneko *Zeru*

gorriko egunak abestia konposatu eta grabatu zuten. Hitz abertzale eta ezkertiarra idazten dituzte Hesian taldeko kideek.

Gaua bukatzeko, Amaiur plaza talde beteranoa izango da Bideberrin. Triki-pop-rock talde hori gaur egungo eta iraganeko talde esanguratsuenen piezak jotzeko gauza da; eta are gehiago, edozein plaza edo areto girotzeko.



Enboskada

GOIENKARIA

# 10 zapatua

**B**ergarako taldeak ez dira falta izango Bideberrin, jakina. Horien artean, orain arte kontzertu bakanra egin duen Turboshit. Aby-Kem eta Stuckaselko bateria jotzaile ohi Iñigo Ibarzabal gitarra jotzen eta abesten; Goiko Rock eta Rotten Teenagers ohi Mikel Gallastegi bateria jotzaile; eta WC eta The Bollocks proiektuetan ibilitako Mikel Martinez baxu jotzaileak osatzen dute, eta punk-rocka egiten dute.

Inoren Ero Ni taldeak, berri, bestelako doinuak landuko ditu post-hardcore eta post-rocketik abia-



Inoren Ero Ni.

LA LORES

tuta. Euskal Herriko hard-corearen aitzindari izandako Bap! taldeko errau-tsetatik sortutako taldeak *Gronhölm* diskoa argitaratu berri du, eta aurretik kaleratutako diskotik aurrerapauso handia egin du. Erritmoekin asko jokatzen dute, sonoritate oso bereziak lortuz.

Hirugarren taldea Oretako Pikutara izango da. 80ko hamarkada bukaera-

ko talde horrek zelanbaiteko izena hartu zuen, eta kaleratu zuen maketa berehala saldu zen. Rocka egiten dute euskaraz, hitz oso abertzaleekin.

Urte askoan isilik egon ostean, iaz jotzen hasi ziren berriro eta aurkezpena, gainera, Bergarako jaietan izan zen. Bergaran oso maitatua da taldea, eta batek baino gehiagok gozatuko du kontzertuan.

**PARAFARMAZIA  
BELAR-DENDA  
DIETETIKA**

Marian Ortiz Iriondo  
Farmazian Lizentziaduna  
1.578 elkargokide zenbakia



**JAI ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUEGU!**

[www.eki-lur.com](http://www.eki-lur.com)

Ibargarai 48 Bergara • Tel.: 943 76 44 41 • eki-lur@hotmail.com

Ondo pasau  
**JAIXETAN!**

# GRUPO ITESA

San Juan 7 • BERGARA • Tel.: 943 76 22 97



# 11 domeka

Domeka Bergarako taldeen eguna izango da. Belceblues ezagunena da, Danbako bigarren edizioko finalistak izan zirelako eta Kilometroak 07ko Argia daukagu! kantua idatzi zutelako. Asier Elorza, Ibon Larrañagak eta Oihan Vegak bluesa egiten dute, eta diskoa prestatzen dabilta.

Mahaster River ere ezagunak dira, Danbako bigarren edizioan aritu zirelako eta, batez ere, *Irtenbiderik gabeko auto-bideak* diskoa kaleratu zutelako. Orain Unai Azkarate, Fernando Lascurain eta Mikel Azkar-



Belceblues.

GOIENKARIA

gorta bigarren diskoa prestatzen dabilta: bluesa, rocka, flamenkoa eta beste batzen dituzte.

Olympic Darts ere hasi-berri den taldea da. Gorka Martin, Gorka Gonzalez, Aitor Fernandez eta Andoni Sasigainek osatzen dute, eta heavy taldeen bertsioak egiten dituzte: Iron Maiden, Metallica, Motörhead eta beste.

#### BI GAZTEENAK

Adi Holden Cool Paniceko Alex Muelaren talde berriada. Alboan Ruben Gauna,



Karelean.

GOIENKARIA



Mahaster River.

GOIENKARIA

nio Pelicano, Iker Narvaez, Jorge Gomez eta Javi Valverdek. Azken hori, Arrasateko baxu jotzailea, talde sartu berri da

#### ZEA MAYSEN INDARRA

Bilboko Zea Mays taldea ere igoko da astelehenean agertoki gainera. 1997an sortu zuten, eta dagoeneko bost diskoi kaleratu dituzte. Laukote horrek rock indartsua egiten du, ñabar-dura eta estilo asko batuta, eta horren guztiaren gainetik Aiora Renteria-ren ahotsa nagusitu egiten da, ahots ikaragarria dauka-eta. Aspaldian Bonberenea Ekintzakekin kalera-tutako *Morphina* diskoa aurkezten dabilta.

**KARELEAN, TALDE IREKIA**  
Gauko perla Karelean taldea izango da. Zestoa eta Azpeitia aldeko bost lagu-

nek osatzen dute, eta aurten *56. gelatik* izeneko disko kaleratu dute. Lin Ton Taun, Lantz eta Ttakunpa taldeetan ibilitako lagunek osatzen dute.

Bossanova, elektronika, poesia errezzitazek, flamenkoa eta doinu arabiarak batzen dituzte, trikitixarekin.



Zea Mays.

GOIENKARIA

# López Ojeda

Amillaga 25 • Industrialdea  
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852  
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)

López Ojeda

Errioxako  
ardo beltza, urtekao



Errioxa




Nañarroa



Urtekao  
eta ondua

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

ATXEGA ARDOAK S.L.



Ondo pasa jaixetan!

MicroBank  
"La Caixa" ren Gizarte Bankua



"la Caixa"  
egingo dugu berba?

Fraiskozuri plaza 7  
Tel.: 943 71 09 10  
Faxa: 943 76 93 77  
[www.lacaixa.es](http://www.lacaixa.es)  
[www.obrasocial.lacaixa.es](http://www.obrasocial.lacaixa.es)

# GUREAN, EZIN HON

Jai ZoRiOnTSuAI

Agorrosin • Aralar • Ariznóa • Avenida

Azpeitxi • Biko • Etxagi • Eusebio II

Frontoia • Iraho • Irish pub Galways

Kai • Kayak • Kaixo • Oilagorra • Pol pol

Sirimiri • Toki Ona • Usoa • Zunbeltz

# GIRO BEA!

k!!!



**TXOSNA BATZORDEA**

# Eguneko giroa indartu gura dute txosnetan

Aurtengo jaiak ez dituzte gauera eta gazteriari mugatu nahi. Hori dela eta, 'Erain Gerixa Erein Hazixa' lelopean, egitarau zabala prestatu dute.

MIRIAN BITERI

**Partehartzean oinarritutako giro euskalduna eta abertzalea nahi duenak badaki nora joan behar den: txosna gunera.**

**B**errikuntza asko prestatu ditu Txosnetako Batzordeak aurtengo jaietarako. Eguneko giroa indartzeko asmoa dauka eta, horiaz, egitarau zabala prestatu du. Bideberriko txosna gunea egubakoitzean zabalduko dute, Bitorianatxoren

jaitsieraren ondotik, irekiera ekitaldiarekin. Zapatura-kokoa Amnistia Eguna prestatu du. Bazkaria berreskurtatu dute berriro; iaz, afaria egin zuten egubakoitzean.

Domekan Independenzia Eguna ospatuko dute. Arratsaldean, murala margotuko dute; antzerkia ikus-

## Txandak egiteko jendea behar dela eta parte hartzeko dei egin dute



Txosnetako Batzordeak agerraldia eskaini zuen joan zen astelehenean, aurtengo egitaraua aurkezteko.

M. BITERI

teko aukera ere izango da. Astelehenean, bestalde, Euskararen Eguna izango da; eta martitzenean Hezkuntza Eskubideen Eguna.

### EDALONTZI BIRZIKLATUAK

Aurten, lehen aldz, edalon-tzi berrerabilgarriak egongo dira txosnetan. Euro bat balioko du bakoitza.

Aurten ere bi gune izango dira Bideberrin eta plazan. Lehenengoan jatekoak emango dira arratsaldetik.

Txosnetan lan egiteko jendea behar dute; interesatuek herri mugimenduean dabiltzan herritarren-gana jo dezatela.

## Txosnetako Batzordeak egitaraua zabala antolatu du eguneko giroa indartzeko

### EGUBAKOITZA

20:00etan Bitorianatxoren jaitsiera izango da San Martin plazan. Handik kalejira egingo dute txosnetarantz, irekiera ekitaldia egiteko.

### ZAPATUA:

Amnistia Eguna. 15:00etan, bazkaria izango da txosnetan, Xabier Silveira, Sustrai Colina eta Ainhoa Agirreazaldeiren bertsoak eta trikitilarik alaituta. Jarraian, 17:30ean, preso, iheslari eta senideei omenaldia; eta 19:00etan kalejira egingo dute.

### DOMEKA

Independentzia Eguna. Arratsaldean emango diote hasiera domekako egitarauari. 17:30ean indepen-

dentziaren gaineko murala margotzeari ekingo diote eta 20:00etan Arratsalde pasa antzezlanaz izango da, Koloklown taldearen eskutik.

### ASTELEHENA:

Euskararen Eguna. 13:00etan, desafioa egongo da Muniben; eta 20:00etan, euskararen aldeko txotxa egingo dute han biltzen direnek.

### MARTITZENA

Hezkuntza Eskubideen Eguna. Arratsaldean, 17:00etan, umeendako jolasak egingo dituzte txosna gunean; 18:30ean, haurren-dako ipuin kontalaria izango da eta 19:00etan, helduendako ipuin kontalaria.

**ZANGITU margoak**  
Irala z/g BERGARA  
Tel.: 943 76 19 54




**deco-tex**  
**ZANGITU alfonbrak**

Telesforo Aranzadi 2  
**BERGARA**  
Tel.: 943 76 08 69

D. IRALA KALEA  
IBARGARAI KALEA

Etxerako ederrena, Zangitun



**TORREKUA**  
  
**ERRETEGIA**

Ibargarai 37  
BERGARA

Tel.: 943 76 50 99

Batik bat arraina • Karta • Eguneko menuak • Goizeko 7:00etatik zabalik

ELKARRIZKETA SAMU CREW BREAKDANCE TALDEA

# "Breakdance-a, dagoen dantza mota konplexuena eta osoena da"

JASONE ZABALA

**Samu Crew breakdance taldeak dantza ikuskizuna egingo du domekan, maiatzaren 11n.**  
**Simon Arrieta plazan egingo dute, 17:00etan. Taldea zazpi kidek osatzen dute eta horietako hiru berargarra dira**

**Bergarako Mendekoste domekan eskainiko duzue zuen ikuskizuna. Nola sortu zen ideia?**

Proposamena egin ziguten eta oso pozik gauude. Orain arte egindako ahalegin guztiak bere emaitzak eman dituztela dirudi. Gainera, Bergaran emanaldia egiteko izugarriko gogoak genituen, eta ez genuen bi aldiz pentsatu aukera hori eskaini zigitenean.

**Zer suposatzen du zuendako Bergaran emanaldia eskaintzeak?**

Izugarrizko poza emanen digu jendeak gugan konfiantza duela ikustea, lagundu egiten gaituztela eta guk egiten duguna ere baloratu egiten dutela.

**Breakdance moda bihurtu da. Zergatik?**

Gure ustez, dantza konplexuena eta osoena delaiko: oreka eta akrobazia ariketak kombinatzentz dira. Horretarako, erritmoa eta koordinazioa izan behar da, itzulipurdia eta birak eman ahal izateko.

**Ikuskizuna prestatzeak lan asko ekartzen du?**

Jakina. Gainera, ez dugu kolperik hartzen ezta hezurrik apurtzen, nahiz eta jendeak kontrakoa pentsatu.

**Zer behar da ikuskizuna borobila izateko?**

Entsegu ordu asko, eta batez ere urduritasunak etxean uztea.

**Nondik dator Samu Crew izena?**

Angel Alcarazek eta Amaia Bernalek semeari Samuel izena jarri zioten, eta *Tu si que vales!* saioko ikuskizuna bere omenez egin genuen.

**Zein ikuskizun eskainiko duzue Bergaran?**

Bi ikuskizun eskainiko ditugu. Lehena, *Tu si que vales!* saioko finalera heltzen lagundu ziguna eta bestea... etorri ikustera!"



Samu Crew breakdance taldea domekan izango da Bergarako Simon Arrieta plazan.

SAMU CREW

izango da; eta bestea, domekakoa, zertan oinarrituko den jakin gura baduzue, Simon Arrietara joan beharko duzue bertatik bertara ikustera.

**Beste proiekturik?**

Alcarazek eta Bernalek breakdance eskolak ematen dituzte. Bestalde, badauzkagu zenbait emanaldi hitzartuta.



## HORTZ KLINIKA

Silvana Caviglia doktorea  
Simon Arrieta plaza 3, 2 B Tel.: 943 76 38 54 BERGARA

PADI

ASEGURUAK


·Sermesa  
Pakea  
Grupo Eroski

·Ibersalud Globalcard  
Aegon  
Asepeyo

·Mapfre  
·Fremap  
·Ocaso

·Azkarlan  
·Previsora

Jai  
zoriontsuak  
denoi!




## EVSKO s.a.

Jai zoriontsuak!

Makina-erremintako laguntzailea • Doitasunezko multzoak

Amillaga 7 · 147 pk · 943 76 21 41 / 76 46 05 · Bergara



# IRURAK MARGOAK

## DISEINUAK SM

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta-kutxa • 20570 Bergara  
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

*Ondo pasau jaiak!*

Mendekoste  
jai zoriontsuak  
herritar guztioi!



[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)

Barrenkalea 18  
BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 943 76 26 81



[www.gazteabertzaleak.org](http://www.gazteabertzaleak.org)

DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA

# Bolinaga eta Arrillaga, bigarren txapelaren bila

Urtero bezala, fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte domekako txapelketan parte hartzen duten bikoteek

MIRIAN BITERI

Domeka arratsaldean bikote gazteendako 31. Euskadiko dantza solteko txapelketa hartuko du San Martin plazak. Partideen artean, iaz irabazi zuen bikotea izango da.

**M**aiatzaren 11n, domeka, Mende-koste jaietako klasikoa izango da San Martin plazan: Euskadiko dantza solteko txapelketa. Aurten 31 urte betetzen ditu esandako lehiaketak.

Oraindik ez da ezagutzen txapelketan egon behar direnen partaideen zerrenda. Bada, joan zen urtean garaile izandako bikotea agertoki gainean izango dela baieztago du Abarka dantza elkarteko Juan Mari Basetak. Alegia, Amaia Bolinaga eta Aritz Arrillaga bergararrak. Bikotea bigarren txapela lortzen saiatuko da domeka arratsaldean.



Joan zen urteko dantza solteko txapelketaren irudia.

DAN

Aurtengo txapelketa 17:30ean hasiko da. Betiko moduan, bikoteek fandangoa dantzatu beharko dute, Bergarako udal txistularien laguntza dutela. Arin-arinarekin duten trebezia ere erakutsiko dute agertoki gainean. Euskal Herriko jantziekin behar bezala apainduta azaldu beharko dira dantzariak.

SARIAK

Sariak ez dira aldatu; joan den urtekoak bezalakoak dira. Txapeldunek 180 euro, txapela eta zapia lortuko dituzte; bigarren bikoteak, 160 euro; hirugarrenak, 150; laugarrenak, 140; eta bosgarrenak, azkenik, 130 euro. Diruaz gain, sari-tuek Udalak emandako garaikurra jasoko dute.

Txapeletan parte hartzen duten gainontzeko bikote guztiak, bestalde, 100 euroko dieta eta garai-kurra jasoko dute. Horrez gain, garaikur bereziak izango dira jantzi egokie-nendako, hamabi urtetik beherako lehen sailkatzen den bikotearrendako eta bikote gaztearendako.

**Urtero bezala, Abarka dantza taldeak antolatzen du Euskadiko dantza solteko txapelketa**

**Bikoteek fandangoa eta arin-arina dantzatuko dute, udal txistularien eta trikitilarien laguntzarekin**

Zuri beltz Margoak

Barnealde eta kanpoaldeen erreforma  
Pintura zerbitzu osoa

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494  
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615

Ondo pasau  
jaixetan!

**Zuber**®

- Metal gogorrezko herramintak ZB
- Hotzeko estanpaziorako metal gogorrezko matrizeak

Tel.: + 34 943 76 26 78  
Faxa: + 34 943 76 56 79  
[www.adegi.es/zuber](http://www.adegi.es/zuber)

Leizeaga kalea 8  
112 posta-kutxa  
BERGARA



*Jai zoriontsuak  
bergararroi!*

DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA

# Bolinaga eta Arrillaga, bigarren txapelaren bila

Urtero bezala, fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte domekako txapelketan parte hartzen duten bikoteek

MIRIAN BITERI

Domeka arratsaldean bikote gazteendako 31. Euskadiko dantza solteko txapelketa hartuko du San Martin plazak. Partideen artean, iaz irabazi zuen bikotea izango da.

**M**aiatzaren 11n, domeka, Mende-koste jaietako klasikoa izango da San Martin plazan: Euskadiko dantza solteko txapelketa. Aurten 31 urte betetzen ditu esandako lehiaketak.

Oraindik ez da ezagutzen txapelketan egon behar direnen partaideen zerrenda. Bada, joan zen urtean garaile izandako bikotea agertoki gainean izango dela baieztago du Abarka dantza elkarteko Juan Mari Basetak. Alegia, Amaia Bolinaga eta Aritz Arrillaga bergararrak. Bikotea bigarren txapela lortzen saiatuko da domeka arratsaldean.



Joan zen urteko dantza solteko txapelketaren irudia.

DAN

Aurtengo txapelketa 17:30ean hasiko da. Betiko moduan, bikoteek fandangoa dantzatu beharko dute, Bergarako udal txistularien laguntza dutela. Arin-arinarekin duten trebezia ere erakutsiko dute agertoki gainean. Euskal Herriko jantziekin behar bezala apainduta azaldu beharko dira dantzariak.

SARIAK

Sariak ez dira aldatu; joan den urtekoak bezalakoak dira. Txapeldunek 180 euro, txapela eta zapia lortuko dituzte; bigarren bikoteak, 160 euro; hirugarrenak, 150; laugarrenak, 140; eta bosgarrenak, azkenik, 130 euro. Diruaz gain, sari-tuek Udalak emandako garaikurra jasoko dute.

Txapeletan parte hartzen duten gainontzeko bikote guztiekin, bestalde, 100 euroko dieta eta garai-kurra jasoko dute. Horrez gain, garaikur bereziak izango dira jantzi egokie-nendako, hamabi urtetik beherako lehen sailkatzen den bikotearrendako eta bikote gaztearendako.

**Urtero bezala, Abarka dantza taldeak antolatzen du Euskadiko dantza solteko txapelketa**

**Bikoteek fandangoa eta arin-arina dantzatuko dute, udal txistularien eta trikitilarien laguntzarekin**

*Zuri beltz Margoak*

**Barnealde eta kanpoaldeen erreforma  
Pintura zerbitzu osoa**

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494  
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

Ondo pasau  
jaixetan!

**Zuber®**

**Zuber**

- Metal gogorrezko herramintak ZB
- Hotzeko estanpaziorako metal gogorrezko matrizeak

Tel.: + 34 943 76 26 78  
Faxa: + 34 943 76 56 79  
[www.adegi.es/zuber](http://www.adegi.es/zuber)

Leizeaga kalea 8  
112 posta-kutxa  
BERGARA



*Jai zoriontsuak  
bergararroi!*

**HERRI BAZKARIA**

# Entsalada, paella eta tarta izoztua 500 lagunendako

Bazkaritarako txartelak 12 euroren truke eros daitezke Pol-Pol, Kortazar, Zuhaitz eta Avenida tabernetan

[IRATI AGIRREAZALDEGI](#)

Koadrilen eguna da astelehena eta lagun giroan ibiliko dira bergararrak. Egurdiaren plazan denek batera bazkaltzeko aukera izango dute.

**B**lusa jantzi eta goizean goizetik parranda giroa nagusituko da herriko koadrilen artean. Txosna gunean elkartuko dira 11:30ean eta patata tortillak prestatu eta jango dituzte han. Arrautzak, patatak, oliao, gatza eta sutegiak Udalak ipiniko ditu; sukaldariendako amantaloak Lacor etxeak emandakoak izango dira; eta gainerako osagaiak eta tresnak herritarrek eraman beharko dituzte.

Tripa bapo bete eta indarrak hartu ostean, Xapre eta Zarra trikitilariekin kalejiran joango dira San Martin plazara. Bien bitartean herriko kale eta tabernetan jai giroa ipiniko dute.



San Martin Plazan gertatuko dute paella, eta lagun artean bazkaltzeko mahaia ikipiniko dituzte.

GOIENKARIA

**HERRI BAZKARIA**

Trikiti doinuen gainetik tripa soinuak hasten direneko bazkaria gertu izango da plazan. 500 lagunendako platerak ipiniko dituzte herri bazkarian.

## Bazkal osteko giroa alaitzeko euskaraokean kanturako aukera izango da, baita koadrila artean jolasteko ere

Menua honakoa da: ensalada, paella eta tarta izoztua. Haragi eta marisko paella zortzi ontzitan egingo dute plazan. Ogia, edariak, kafea eta kopa ere banatu dituzte.

San Martin plaza

**Astelehena  
13:30**

Herriko koadriletan lagunek elkarrekin bazkalduko dute herriko plazan

Bazkaritarako txartelak salgai ipini dituzte 12 euroren truke Pol-Pol, Kortazar, Zuhaitz eta Avenida tabernetan. Txartelak agortu artean egongo dira eta beranduenez maiatzaren 9a baino lehen eskuratu beharko dira.

**KARAOKEA ETA JOLASAK**

Bazkal ostean, askori pizten zaie kanturako grina eta horretarako aukera apropoia izango dute karaokean. Hitzei adi-adi jarraituz euskarazko kantuak abestuko dituzte, ausarte-nek taula gainera igota, eta jende artetik besteek.

Doinu eta hitzen jolasak baino bestelakoak gogokoago dituztenek ere erakutsi ahal izango dituzte euren dohaiak. Izan ere, koadrilen arteko jokoak egingo dituzte: aulkien, laranjena, zaku karrerak, globoak hankan lotu eta apurtzea... Abileneak baliteke sariren bat eskuratzeari.

Koadrilen egunean eta oro har jaietan Bergarako kaleak kolorez janzteko herritarrei dei egin diete blusekin irten daitezten.

# Garaje Murillo

Auto konponketak orokorrean

Ondo ibili jaietan!

Leizeaga 4 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • Tel.: 943 76 13 84



# DISSOL

SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA

**BERRIZ BILTEGIA**  
Etxea poligono industriala 41B  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
Tel.: 946 82 76 06  
Faxa: 946 82 65 34

**BERGARA BILTEGIA**  
Benta berri z/g  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 76 28 97  
Faxa: 943 76 50 56

**Banatzale ofiziala**  
**PRAXAIR**

**ONDO PASAU JAIXETAN!**

euskaltegiak  
**25**  
urte

*...eta ospatzeko,  
ekainaren 20an  
AFARIA!*

*Deitu euskaltegira!*

Ondo pasau  
jaixetan!



**BERGARAKO  
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi 13 • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53

[berg.eusk@udal.gipuzkoa.net](mailto:berg.eusk@udal.gipuzkoa.net)  
[berg.euskudal@euskalnet.net](mailto:berg.euskudal@euskalnet.net)



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



**gelatzz.**

Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

**MAHAI-FUTBOLA, MAHAI-TENISA ETA DARDOAK**

# Mahai-tenisa ere jarriko dute, baina txapelketa barik

Iaz BTLS-7 Opena egin zuten lehenengoz, baina aurten ez dute txapelketarik egingo; mahai-tenisa da berritasuna

XABIER URTZELAI

Domekan mahai-futbol, mahai-tenis eta dardoak jarriko dituzte BTLSekoek San Martin Plazan; herritarrek 14:00ak arte jokatu ahal izango dute.

**U**dalaren eskaerari erantzuna emanez, BTLSekoek ez dute aurten txapelketarik egingo: "Egia esan, iaz 30 lagun inguruk hartu zuten esku txapelketan, eta bestalde, 500 lagun inguru ibili ziren dardoeitan eta mahai-futbolean jokatzen. Horrenbestez, aurten txapelketarik ez egitea erabaki dute", adierazi du BTLSeko ordezkarri Karlos Lasak.

**MAHAI TENISA, BERRITASUNA**  
Txapelketa kendu izana ez da domekan plazan egongo den berritasun bakarra: "Mahai-tenisa jarriko dugu, hori ere Udalak eskatu digulako. Guztira, mahai-teniseko, fut-



Mahai-futbolarekin batera, herritarrek mahai-tenisean jokatu ahal izango dute domekan; mahai horiek arauzkoak izango dira, txapelketetakoak.

GOIENKARIA

boleko eta dardoetako sei-na joko jarriko ditugu, jendeak joka dezan".

Horrekin batera, eguraldiak ez du hitzordua baldintzatuko: "Euria egiten badu plazako aterpee-

**Eguraldi txarra egiten badu plazako arkueetara eramango dituzte mahaiak, iaz egin zuten moduan**

tara eramango ditugu mahaiak, iaz egin genuen moduan.

**LIVERPOOLEN, ONDO**  
Bestalde, BTLSeko kideak Liverpoolen izan ziren

urtarrilean, hango mahai-futboleko txapelketan parte hartzen, eta Igor Alberdi semi-pro kategoriara iritsi zen: "Estatuan ez dago inor Alberdi baino hobeto sailkatuta".

**OXIRONDO**  
**BANAKETAK**

Tel.: 943 76 28 81  
BERGARA


## Espezialitateak:

- Urdaiazpiko iberikoak
- Paletak
- Kordobako urdaiazpikoak
- Solomoak

- Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
- Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
- Erriberako esparragoak
- Pikillo piperrak
- Guardiako Luis Alegre ardoak

**Pazkoa jai zoriontsuak izan ditzazuela!**

**ALTUBE**  
**tailerrak SM**



**ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA**

Tel.: 943 76 22 74  
Faxa: 943 76 04 99

**PAZKOAK ZORIONTSUAK!**

**San Lorentzo poligonoa - Urarte 22  
94 posta-kutxa - BERGARA**



Tartago Jatetxea

**San Juan Auzoa 35.  
Elgetara bidean.  
20570 Bergara.  
Tel. 943763551.**

*Bergarako jaietan,  
terraza eta parrilla zerbitzua  
Razio eta karta berriak  
oilasko erreak.*

*Egunero jaietako  
menu berezia 20*


*Etor zaitez gurekin  
jaiak ospatzera!*

**ELUSU ERAIKUNTZAK**



- Gremioen koordinazioa
- Era guztiako eraikuntzak
- Erreformak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak

**Baserri eta jauretxeen  
erreformetan  
eta txaleten eraikuntzan  
espezializatuta gaude**



**Ondo ibili Pazkoetan!**

Arruriaga 5 Tel.: 943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45  
Gremioen koordinazioa: 619 71 60 65 / 679 00 40 89  
elusueraikuntzak@telefonica.net



**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

**ondo ibili  
Pazkoetan!**

Argazkia Kiñu

Ibargarai 44-46 BERGARA  
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA  
943 76 31 27

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI  
943 78 24 13

"ideia guztiak, proiektu guztiak,  
pertsona guztiak"

ondo pasau jaixak.

bergarako



aralar

[www.aralar.net](http://www.aralar.net)

HERRI KIROLAK

# Hiru umek eta hiru neskak erakustaldia egingo dute

Hodei Ezpeleta, Jagoba Otaegi eta Ioritz Gisasola 7 eta 14 urte artekoak dira, eta herri kirolak egingo dituzte plazan

LEIRE KORTABARRIA

Herri kirol erakustaldi berezia izango dugu aurten Pazkoetan: hiru kirolari oso-oso gaztek eta hiru neskak egingo dute erakustaldi hori. Gazteak izanda ere, maila bikainekoak dira.

**H**erri kirolen erakustaldi interesgarria antolatu dute Umenen Egunerako, hilaren 13rako, martitzena. San Martin plazan, 12:30ean hasita, Ana Berasategi, Ane Arrospide, Mari Jose Sardon, Jagoba Otaegi, Hodei Ezpeleta eta Ioritz Gisasola kirolariek euren trebeta-suna erakutsiko dute jendurrean, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolaria aurkeztuta. Parte-hartzaile-eta baten, Hodei Ezpeletaren, aita da.

Ikusleendako, bi ezau-  
garri ezohiko izango ditu erakustaldi horrek: bate-  
tik, hiru parte-hartzaile-  
ren adina –Hodei Ezpeletak  
8 urte ditu; Ioritz Gisaso-



Hodei Ezpeleta -8 urte-, erakustaldi baten enborra mozten.

BELEN GARCIA

**ERAKUSKETA ETA TALDEKA**  
Ernesto Ezpeleta *Bihurri*-k aurreratu digunez, bi zati izango ditu erakustaldiak: lehenengo, hainbat joko egingo dituzte, erakusketa

soil gisara; eta, gero, taldeka jardungo dute. Mari Jose Sardonek, adibidez, harriak jasoko ditu; Ana Berasategik eta Ane Arrospidek Iparraldeko jokoak

egingo dituzte; eta hiru pro-  
mesa gaztetxoei dagokie-  
nez, Ezpeletak eta Gisaso-  
lak enborrak moztuko  
dituzte, eta Otaegik harriak jasoko ditu.

San Martin plazan

**Martitzena**  
**12:30-13:30**

Bergaran lehenengo aldiz jardungo dute hain kirolari gazteek herri kiroletan

## Gazteak, baina maila handikoak

Primerako erakustaldia izateko elementu guztiak izango ditu Bergarakoak. Hala, Ezpeleta, Euskal Herriko aizkolarri gazteena, Ernesto Ezpeleta *Bihurri* aizkolaria semea da eta hainbat erakustaldi egin ditu; Ioritz Gisasola Joxe Antonio Gisasola Zelai-ren iloba da, eta Jagoba Otaegik ere argi utzi du promesa sendoa dela; Interneten daude bideoak 100 kiloko harria jasotzen erakusten dutenak. Emakumeei dagokienez, Mari Jose Sardonek apiril bukaeran marka gogoangarría egin zuen, 125 kiloko zilindroa jasotzen; ETB2ko abentura saio ezagun baten ere parte hartu zuen.



## Iratxo mertzeria

Telesforo Aranzadi 3B  
Tel.: 943 76 00 79  
BERGARA

ONDO PASA JAIXETAN!



## Ondo ibili Pazkoetan!



**BELMEK S.L.L. Doitasunezko Mekanizatuak**  
Telleria kalea 19, B-5  
20570 Bergara - Gipuzkoa  
Tel.: 943 76 94 60 - Faxa: 943 76 92 81  
e-mail: belmek@belmek.com  
www.belmek.com



**ELKARRIZKETA MIKEL CALVO JAIETAKO HORMA-IRUDI LEHIAKETAKO IRABAZLEA**

# "ET'-ren ordez Bitorianatxo jarri dut irudian"

EDU MENDIBIL

**Mikel Calvo 23 urteko gazteak irabazi du Pazkoetako horma-irudi lehiaketa. Berak egindako irudi digital batek, Bitorianatxo ilargiaren argitara irudikatzen duenak, iragarriko ditu aurteno jaiak. Bilbon harrapatu dugu, Deustuko pisuan. Arte Ederretako 4. mailan dabil, Leioako Fakultatean.**

*ET filmari erreferentzia egin diozu zure lanean...*

Bai. Jaietako irudi adierazgarri bat aukeratu nuen lehenbizi eta gehienetan Bitorianatxo etortzen zaigu gogora. Steven Spielbergrek 80ko hamarkadan egindako filmeko horma-irudian *ET* azaltzen zen, bizikletan hegan, ilargiaren argitara, eta horren ordez Bitorianatxo ondo egon zitekeela pentsatu nuen. Irudi digital bat da, Freehand eta Photoshop

programak erabiliz egin-dakoa. Ideia asmatzea izaten da zailena. Egiteak ez zidan horrenbeste lanik eman. Nahiko aguro bukatu nuen.

Eta saria eskuratu. Ez da gainera zure lehenbiziko saria...

Ez, iaz Udalak Aratus-teetarako deitutako horma-irudi lehiaketa irabazi nuen. Eta aurten, Pazkoetako. Beti da pozgarria

**"Ideia asmatzea da zailena. Egin nahiko erraz egin nuen"**

**"Giroa eta txosnetako kontzertuak atsegin ditut gehien jaietan"**

horrelako sariak jasotzea. Gainera, oraingoan saria hobea zen... Iaz 300 euro eman zizkidaten eta Pazkoetako lehiaketagatik 600 euro jasoko ditut. Ez dago gaizki...

Jaietan lagunei gona-bidatzeko bada zerbait... Diruaren zer egin pentstu duzu?

(Barre) Bueno, oraindik ez dut dirua jaso... baina zerbaitetara gonbidatuko diet... Gero ikusiko dugu. Udan bidaiatzoren bat egiteko zerbait aurrez-tu nahiko nuke. Oraindik ez dut pentsatu nora joan...

Bestela, jaietatik zer da gehien gustatzen zai-zuna? Jaiekin gozatze-ko akera izango dugu?

Batez ere aste bukaean aprobetxatuko dut, unibertsitatean eskolak dauzkagu-eta. Eta Bergarako jaietatik zera nabarmenduko nuke: egoten den giroa, txosnetako kontzertuak eta jendea bestetan baino alaiago egoten dela... Dena dela, benetako jaiak izateko zerbait falta zaie, eta guztion gauza da.



Mikel Calvo, Leioako campusean egindako argazkian.

GOIENKARIA

**Datorren urtean amaituko dituzu unibertsitateko ikasketak.**

Diseinu grafikoko eta ikus-entzunezko espezialitatea egiten nabil eta

horretan jardutea nahi nuke. Ikusiko dugu.

**Bestalde, hainbat film labur egin dituzu dagoeneko. Baduzu horren asmorik?**

Bai, Bergarako Udalak deitutako lehiaketara aurkeztu izan naiz eta orain unibertsitatean *Inversa* izeneko auto-erretretatu moduko bat egin dut.



**PAZKOA JAI ZORIONTSUAK BERGARAR GUZTIOI!!!**

Elgeta bidea, Post. 130 20570 BERGARA  
Tel.: 34 943 76 48 44 Faxa: 34 943 76 50 47  
ttt@grupottt.com www.grupottt.com



**Jai zoriontsuak bergarroi!**

Ibargarai 11 • tel.: 943 76 28 92  
Barrenkale 19 • tel.: 943 76 70 03

JOLAS-PARKEA

# Jolas-parkea bi egunetan: domekan eta martitzenean

Horixe da Umeen Egunak duen berrikuntza nagusiena: bi egunetan ospatuko da Ipintza Ilko patioan

MIREIA BIKUÑA

**Txikienendako gozamenerako berrikuntza bat du aurtengo Umeen Egunak; alegia, bi egunetan ospatuko dute, domekan eta martitzenean, Ipintza Ilko patioan.**

**E**gun bat gehiago izango du aurtengo jaietan Umeen Egunak. Hain zuzen ere, domekan 16:30etik aurrera, eta martitzenean 11:00etatik 14:00etara egongo dira jolas-parkeak Ipintza Ilko patioan. "Bi egunetan jolaseko aukera ezberdinak egongo dira. Dena den, parkea Ipintza Ilko patioan egingo dugu bi egunetan", esan digu kultura teknikari Maider Osak.

Domekan, itsasontzi mugikorrik, Spider Manen txirrista, mini-etxeak, basoa, ludoteka, sugea eta tximista izeneko jolasak egongo dira, besteak beste. Gainera, lau gurpiletako quad-etan ibiltzeko aukera

izango dute jolas-parkera hurbiltzen diren neskamutikoek.

**KART-AK, IZAR**  
Kart autoak dira urterik urte arrakasta handien izaten duten jolasak, eta aurtenten ere tokia izango dute martitzeneko parkean. "Abiadura dezente hartzeako gauza badira ere, zirkuituak motel ibiltzeko prestazten ditugu, kurba askorekin", azaldu digu Maider Osak. Lasaiago ibili gura dutenendako zezen mugikorrik, iratxoak, rockomendia, ludoteka erraldoia eta txirristak jarriko dituzte. *Goming* egiteko aukera ere izango dute.

**"Kart-ek  
abiadura har  
dezakete,  
baina zirkuitua  
motel ibiltzeko  
prestatzen  
dugu"**



Kart zirkuituak Ipintza Ilko patioan egokitzen dituzte urtero.

GOIENKARIA



50 urte baino gehiagoko esperientzia eta profesionaltasuna egunez egun frogatuak.

Iturgintza, gas natural, propano eta butano eta berogailu instalakuntzak.

Sukalde eta bainu berrizketak. Bainuko altzariak.

ITURGINTZA-BEROGAILUAK-GASA  
BAINURAKO ALTZARIAK

**Larrañaga  
Eiguren, B. M.**

Juan XXIII plaza  
Tel. eta Faxa: 943 76 11 88  
20.570 BERGARA

**Jai zoriontsuak izan ditzazu!**



Aroztegia • Enbalajeak  
[www.euskalnet.net/ipinarri](http://www.euskalnet.net/ipinarri)

## MADERAS IPINARRI, S.L.

- **INSIGNIS** pinua zerratu eta lantzen dugu sektore hauendako: altzariak, eraikuntza, aroztegia eta enbalajeak.
- **ALERTZEA, DOUGLAS IZEIA, HARITZA** eta beste batzuk ondorengo sektoreendako: birgaitzeak, eraikuntza eta aroztegia.

Ibarra z/g • 184 posta-kutxa  
20570 BERGARA

Tel./Faxa: 943 76 15 93  
[ipinarri@euskalnet.net](mailto:ipinarri@euskalnet.net)

**JAI ZORIONTSUAK  
BERGARAR GUZTIO!**



Bidekurutzeta 34 BERGARA  
9 4 3 7 6 1 7 4 1




# EUSKAL ESTATUAren bidean


EUSKAL HERRIRAKO...  
BERGARARAKO...

marko demokratikoa

# 4 herrialdeetarako autonomia

euskal presoak · euskal herrira

txapi · migelon · aitor · mikel · kanto · jabi · bizkai · gaztelu · ane miren · aska · antxon



bergarako ezker abertzalea

BARRAKAK

# Barraken prezio berria: 1,20 euro bidaia bakoitzeko

Barraken jabeek eta Udalak lortutako tratuaren arabera, bidaia iazkoak baino 0,30 euro merkeagoak izango dira

MIREIA BIKUÑA

Gurasoek eskertuko duten berrikuntzarekin datozen Pazkoetako barrakak. Hain zuzen, ere iazkoak baino merkeagoak izango dira. Eta maiatzaren 12an bidaia euro bat ordainduko dute.

Udalak eta barraken jabeek, bidaiaaren prezioa merkatze aldera egindako batzarrek emaitza ona izan dute: Pazkoetako barraken bidaia 1,20 euro ordainduko dute, iaz baino 0,30 euro gutxiago. "Posible izan den guztia merkatu dugu. Gainera, inguruko herrietan dauden prezioen parekoak lortu ditugu. Ziur, gurasoek eskertuko dutela", azaldu digu Bergarako alkate Agurne Barrusok. "Hasiera baten guk egindako proposamena izan zen lurruk doan uztea, bidaiaaren prezioa euro batekoa izan zedin. Bainan, ez ziguten onartu. Azkenean, 6.000 euro ordainduko dituzte



Prezioak merkeagoak izango idira Pazkoetan: bidaia bakoitzeko 1,20 euro ordaindu beharko dute.

GOIENKARIA

barrakak jarriko dituzten lurrengatik, eta bidaia, 1,20 euro izango da". Gainera, maiatzaren 12an, goizetik, txartel bakoitza euro baten salduko dute.

**MATXIATEGIN EGONGO DIRA**  
Aldaketarik ez da egongo barrakak jartzeko tokian. Hain justu ere, Matxiategin jarriko dituzte. Guztira, hamar barraka egongo

dira, besteak beste, auto-txokeak, ohe elastikoak, sorginaren trena, zezena, eskaletxira eta txiki-parkeak. Gainera, bestelako postuak ere egongo dira,


hala nola, tonbola, bingoa, txurreria, taberna eta tiro postuak. Guztira hamalau postu egongo dira. Barrakak maiatzaren 12ra arte egongo dira Bergaran.

Matxiategin  
**Astelehena  
11:00-15:00**  
Astelehenean, hilak 12, merkeago izango dira barrakak: bidaia bakoitza euro bat


## Mantenu lanen garrantzia

Euskadiko Feriantz Autonomoen Elkarteko kideek jarriko dituzte Pazkoetako barrakak. Maiatzaren 9tik 13ra egongo dira barrakak Bergaran. Bainan, barrakak jabeak egun batzuk lehenago hasiko dira barrakak muntatzen. Hain zuzen, hori da ferialarien lanik gaitzena. Gainera, arreta berezia jartzen diote mantenu lanei; izan ere publizitate txarra da eurendako jaietan daudela, barrakaren bat apurtzen bada. Debagoieneko herriak plaza nahiko onak direla diote barrakak jabeek, baina hemen, beste tokietan baino tradizio gutxiago dutela ere badiote.

## Turkintz Berri S.L.



**Bainurako altzarien  
salmenta eta instalakuntza**  
Gas naturalezko, propanozko  
eta gasoleozko kalefazioak



Jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu  
bergarar guztioi!

Amillaga 1 behea • Tel.: 943 76 28 04 • Faxa: 943 76 36 58



## GARAJE BERRIA, S.L.

Zerbitzu ofiziala

### Ondo pasa jaixetan!

Amillaga 49 - San Lorenzo industrialdea  
Tel.: 943 76 24 43  
Faxa: 943 46 22 43  
Polt.: 617 08 11 89  
BERGARA  
[fordberriaventas@telefonica.net](mailto:fordberriaventas@telefonica.net)



**ARGAZKI RALLYA**

# Jai giroa objektibo herritarra erabiliz irudikatu

**Lehenengo antolatu du jai batzordeak  
Mendekoste jaietarako argazki rallya**

JOKIN BEREZIARTUA

**Aurtengo festetako  
une politenak betiko-  
tu nahi ditu udalak.  
Rallyan izango diren  
argazkiekin bilduma  
bat osatu eta erakus-  
keta bat prestatuko  
dute ekainerako.**

**M**aiatzaren 9tik  
13ra bitartean  
Bergarako kale-  
etan bizi izango  
den giroa betikotzea izan-  
go du helburu aurten  
estreinatuko den Mende-  
kosteko Jaietako argazki  
rallyak. Ekimena Berga-  
rako udaleko jai batzorde-  
ak antolatu du eta argazki

onenentzat sari ekonomi-  
koak izango direla iragarri  
dute. Parte hartzea erabat  
irekia da, hau da, interesa  
duen edonork aurkez ditzake  
bere argazkiak.

Aurtengo Mendekoste  
jaiekin argazki bilduma  
osatzeko asmoz, Bergarako  
Udal herritarrei zuzendu  
zaie festetako "giroa eta  
esentzia" irudikatuko  
dituen imajinak hartzeko.  
Jasotako argazkiekin era-  
kusketa bat egiteko asmoa  
dute, gainera.

Aurten izango da lehe-  
nengo argazki rallya.  
Lehiaketaren ideia jai bat-  
zordetik dator, baina bai  
erakusketa zein lehiaketa-  
ko oinarriak Udalarekin  
batera antolatu dituzte.



Herritarrei kalera irten eta argazkiak egiteko gonbidapena egin diente antolatzaileek. Irudian, argazkilari bat lanean.

XABIER URTZELAI

**RALLYAREN OINARRIAK**

Argazki rallyko irudiekin  
bilduma osatzeko asmoa  
dute. Baita bilduma hori  
herritarrei helarazteko  
ere. Hala, erakusketa egin-

go dute ekainaren 13tik  
27ra bitartean. Bergarako  
kultura etxean erakutsiko  
dituzte argazkiok, eta aste-  
lehenetik egubakoitzera  
18:00etatik 21:00etara izan-

go dira ikusgai. Lehiaketan  
esku hartu gura duenak  
honako arauak hartu  
beharko ditu kontuan:  
argazkia aurtengo jaietako  
izan behar dela, inter-  
resatua gehienez bost  
argazki aurkezta ahal izan-  
go dituela eta aurkeztekoko  
epea ekainaren 2ko eguer-  
diko 12:00etan bukatuko  
dela.

Bestalde, aurkezta nahi  
diren argazkien oinarri  
teknikoei dagokienez,  
honakoak dira irudiek bete  
beharko dituzten baldin-

tzak: koloretan eta kartoi  
zein kartoi mehe baten itsa-  
tsita aurkezta beharko  
dituzte; irudiok euskarri  
digitalean bidali beharko  
dituzte; eta argazkien  
tamaina 18x24 zentimetro-  
koia izan beharko da gutxie-  
nez eta 30x40 zentimetro-  
koia gehienez.

Azkenik, bidaltzaileek  
lanen atzeko aldean argaz-  
ki bakoitzaren titulua, egi-  
learen izen-abizenak, bizi-  
lekua eta telefono zenbakia  
ipini beharko dituzte derri-  
gorrez.

**Kalitatea, eta  
jaien esentzia  
eta giroa ondo  
islatzea  
sarituko dute**

**Bilduma eta bi  
argazki onenek  
dirua jasoko  
dute sari  
moduan**


Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza

# ORTUIBAR SM

## PROMOZIOAK

Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!



### CNC mekanizatuak

Telleria kalea • Pab. B-3 B-4 • 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 18 67 • Faxa: 943 76 53 81

Zorionak guztioi!





**Giauto**  
Kontzesionario  
ofizialak

**GIAUTO OPEL**  
ELGOIBAR · EIBAR · BERGARA  
ARRASATE · OLABERRIA · ANOETA  
Tel. 902 345 123 Salmentak  
Tel. 902 345 125 Tайлера  
[www.giauto.es](http://www.giauto.es)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

**GIAUTO CHEVROLET**  
EIBAR · OLABERRIA  
Tel. 902 345 225  
[www.red-chevrolet.com](http://www.red-chevrolet.com)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

**GIAUTO SAAB**  
BERGARA  
Tel. 943 763 347  
[www.giauto.redsaab.com](http://www.giauto.redsaab.com)  
[clientes@giauto.es](mailto:clientes@giauto.es)

**BIKE TRIALA**

# Munduko txapeldunen Bike Trial erakustaldia domekan

Iker Lezetak eta Alberto Gomezek euren trebetasunak erakutsiko dituzte domeka eguerdian herriko zezen-plazan

NEREA MENOR

Iker, 7 urte zituenetik dabil trial bizikleta baten gainean. Munduko hainbat txapelketa irabazi ostean, Bergaran aurkeztuko ditu bere abilezia ikusgarrienak Alberto Gomezekin.

**G**omez munduko txapelduna izan zen junior mailan, orain bizikleta handiekin aritzen da eta kategoria horretan ere munduko onena izatera heldu da. Lezeta lau aldiz izan da munduko txapeldun trialean, hiru bider Espainiako txapeldun eta zortzi bider Euskadiko txapeldun.

Bike trialaren gainean galdetu diogu Lezetari eta kirol horren puntu garrantzitsuenak azaldu dizkigu: "Indarra eta kontzentrazioa oso importanteak dira, baina teknika da gauza guztien artean garrantzitsuena. Zirkuitu askoko txapelketak jokatzen dira. Munduko txapelketan, adi-



Iker Lezeta txapelketetan hasi aurretik oso urduri egon arren, ez zaio bat ere igartzen bizikleta gainean jartzean.

PATRICIO ESCOBAR

**Bederatzi bider lehiatu da Japonian, Kalifornian eta Europan ere ibili da lehiaketetan**

**"Ezinbestekoa da asko entrenatzea eta bizikleta gainean ordu asko ematea"**

bidez, mendian dauden 20-30 metrotako 10 zirkuitu pasa behar izaten dira birritan. Batzuetan leku itxietan egiten dira eta kontainerren edo autoen gaintetik pasa behar gara".

**BIZIKLETA GAINEN 'BIZI'**  
7 urterekin erosia zioten Lezetari aurreneko trial bizikleta eta urtebete geroago Espainiako txapelketa-ra aurkeztu zen. Orain 25 urte ditu eta beti ibili da txapelketetan sartuta: "Urte asko dira eta entrenamendua oso gogorra da. Maila altuan zaudenean eta emaitzak onak direnean konpentsatu egiten du lan hori guztia. Zorionez nik emaitza onak lortu ditut, eta oso urte onak izan ditut". Askotan aurkeztu izan da munduko txapelketetara eta bidai asko egin ditu. Bederatzi bider egon da Japonian eta baita Txekiar Errepublikan ere. Europan asko ibili da eta behin Kalifornian egon zen. "Munduko txapelketak uztea erabaki dut. Euskadi eta Gipuzkoakoekin jarraituko dut".



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Masterreka 14-16 • Tel.: 943 76 11 23 • Faxa: 943 76 30 41  
goitu@grupogoitu.com



- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
- ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK
- ESPERIENTZIA LUZEA

Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tel.: 943 76 28 05 eta faxa: 943 76 05 28  
Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32 • Polt.: 666 42 78 58


# IKASLE

LOTERIAK  
FOTOKOPIAK  
FAXA (Bidalketa)

Ondo pasa  
Pazkoa jaietan!

A. Fleming kalea 11 BERGARA  
Tel.: 943 76 28 05

# P. MANSO optika



Eguzkitako  
betaurreko  
graduatuak

59€

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

*Modan dauden markak  
eskaintzen dizkizugu,  
begiratzeko eta  
begiratua izan zaitezen.*

Irizar pasealekua 2 BERGARA Tel.: 943 76 27 86



**BILTOKI**  
ASPIZA S.L.  
BERGARA



**dekorazioa**

ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK, ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO SOFAK...  
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK  
SAN MARTIN PLAZA Tel.: 943 76 43 51

**BILTOKIK markarik onenak eskaintzen dizkizu**

**1955. urtean sortua**  
**53 urte herriaren zerbitzura**



**dekorazio osagarriak**

BARRENKALEA 12 Tel.: 943 76 04 72

**ONDO PASAU JAIXETAN!**




**sukalde eta bainuak**

SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK  
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK  
GARANTIA ETA ZERBITZU HOBERENA  
SAN PEDRO PLAZA Z/G Tel.: 943 76 34 00

# Jean Louis David®

Ibargarai kalea 43, BERGARA Tel.: 943 76 22 48

## AUSART ZAITEZ!



Ile apaindegiak bezeroei adierazi nahi die maiatzaren 12tik 25era itxita egongo dela, berritze lanengatik.

Berriz zabaltzerakoan, Mari Carmen eta Dorleta izango dira zuzendari berriak.

Egingo diren berrikuntzak zuen gustukoak izango direlakoan eta arreta eta zerbitzu hobeak ekarriko dituztelakoan, barkatu eragozpenak.

Jai zoriontsuak izango dituzuelakoan, agur:  
Zuzendaritza berria.



ONDAREA > YRIZAR ARTXIBOA

# Yrizar Artxiboa eskuratu du Antso Jakinuna Fundazioak

Agiririk zaharrena 1392. urtekoa da. Tartean, 1746. urtean Liman (Peru) izandako lurrikara deskribatzen duen eskutitz bat ere bada

JASONE ZABALA > BERGARA  
Caja Vital Kutxaren Antso Jakituna Fundazioak Yrizar Artxiboa bereganatu du, 1332ko paper-sorta biltzen duen dokumentu-funtsa, hain zuen ere. Dokumentu horiek guztiak Azkoitiaren eta Latinoamerikaren historia ikertza ahalbide-tuko dutela esan dute fundazio-ko arduradunek. Gordailua oso garrantzitsua da bai kopuruari, bai edukiari erreparatuta; izan ere, Bergarako eta Azkoitiko Yrizar Artxiboa, esan bezala, informazio asko biltzen du.

BERGARAKO 11 MAIORAZKO  
Bergarako Yrizar Artxiboa 11 maiorazkoren inguruko agiriak biltzen ditu (Ortiz de Zandategui, Zabala, Echevarria, Moya, Izaguirre, Arostegui, Ortega, Oruesagasti, Zuazua, Ubillos eta Egusquiza).

160 paper-sorta biltzen ditu, horietatik %20 pergamo eran. Dokumenturik zaharrena 1392an izandako lur eremu baten salmentari dagokio. Fundazio-ko arduradunek zehaztu dute-nez, "agirien tipologia oso abe-ratsa eta askotarikoa da. Errege-Zedulak eta Pribilegioak, Caracasko Errege-Konpainia-ren dokumentazioa, komentuen sorkuntzak, odol garbitzeak, eta familiako kideen jarduera pro-fesionalekin zerikusia duten

dokumentuak biltzen ditu". Joaquin Yrizar Barnoya arkitektoaren inguruko agiriak eta Pedro de Yrizar Barnoya hizkuntzalariaren bilduma ere jasotzen du eskuratu berri duten bildumak.

Azkoitiko Yrizar Artxiboa, berriz, sei maiorazko 125 paper-sorta biltzen ditu (Zulaica, Loidi, Elorza Echevarria, Leceta, Madinaveitia eta Villarreal) eta agiri zaharrena XVI. mendekoa

da. Familia-agiriak ere biltzen ditu; hala nola, ezkontza pape-rak, testamentuak, erosketak, salmentak, auzi desberdinak, erroldak eta abar. Era berean, Azkoitiko hiribilduaren histori-ria ezagutzeko oso baliagarriak diren hainbat agiri ere eskura-tu dituzte.

Bestalde, Latinoamerikako herrialde batzuen inguruan ikertzeko aukera emango du artxiboak, familia horretako hainbat kidek Kolonbiako eta Peruko kolonia-administrazio-ko parte hartu baitzuten. Zehazki, Limako 1746ko lurrikara deskribatzen duen eskutitza jasotzen du Yrizar Artxiboa. Funts horiek XIX. mende erdial-dean eskuratu zituen Yrizar familiak; Pedro de Yrizar Bergarako Etxearren jabea, Amalia Palaciosek, Azkoitiko Etxearren jabearekin ezkondu eta

euren seme bakarra, Ignacio Yri-zar Palaciosek-egungo jabeen aitonaren denak- bi etxeen jabetza eskuratu zuenean, hain justu.

## ARGAZKI ERAKUSKETA

Bestalde, gogora ezazue, dato-ren ekainaren 13tik 29ra Aroz-tegi aretoan urte ezberdinak San Martzialeko argazkiak egon-ko direla ikusgai Udal Artxiboa-ak antolatutako erakusketa. Erakusketa hori, hitzaldi batekin inauguratuko da, EHUKO soziologia irakaslea Jose Ignacio Homobonok, *Las romerias vascas: religiosidad popular, sociabilidad e identidades colectivas. San Martzial de Bergara*. Izenburuean emango duena, hain zuen ere. Argazkiez gain, bideoak ere egongo dira ikusgai. Nerea Ibabe, Amaia Labaien eta Asier Altunak, egindako bideo-ak hain zuen ere.



Handitu berri dugun erakusketa  
bisitatzera gonbidatzen zaitugu  
Masterreka 9–11n

Eta gainera, aprobetxa itzazu  
%50erainoko deskontuak  
Barrenkalea 23an

Zure zain gaude!

**Jose Antonio Aperribai > Botanikazalea**

# "Gipuzkoa guztian, beste inon ez dauden landareak aurkitu ditut inguruko mendietan"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Jose Antonio Aperribai bergarrak landareak batu eta katalogatzea du gustuko. Azken 30 urteak daramatz horretan. Orain, Bergarako kultura etxearen landare erakusketa zabaldu du; 200 landare inguru ditu erakusgai. Hilaren 10a arte egongo da zabalik erakusketa.

**Erakusketara doanak zer iku-siko du?**

200 landare inguru daude; eta denetarik dago. Ez daude hemen go landareak bakarrik, baita kanpoak ere. Hasi goiko mendietik eta itsas ondoko dunetaraino batutako landareak daude erakusketan.

**Zenbat urtetako lana dago erakusketaren atzean?**

Zaharra 1981ean hartutako da; eta azkena aurtengoa izango da. Hortaz, azken 26 urteotan batutako landareak direla esan daiteke. Ez daude batutako guztiak, landare erakusgarri-enak jarri ditut ikusgai.

**Herritarren aldetik zelako erantzuna izan du erakusketak?**

Pare bat aldiz egon naiz kultura etxeen, eta esango nuke jendea gustura geratu dela. Esan behar dut ikusgarri samarra ere badela erakusketa; landareek izan dezaketen aberastasunaz gain, ikusteko ere polita da erakusketa.

**Zela sartu zinen landareen munduan?**

Aspalditik nabil landareekin, betidanik, esan daiteke. Naturarekin harremana beti izan dut; txikitik joan izan naiz mendi-ra. Gero, Pol-Pol elkartarekin hasi nintzen. Orain dela 30 urte, behintzat, hasi nintzen landareak batu eta gordetzen.

**Gure inguruneko berezitasunak ikusita, nolako landareak ditugu?**

Gure ibarrean badaude toki interesgarriak. Adibidez, toki interesgarri bat Araotz ingurua da eta beste bat, Aizkorri. Aizkorri, adibidez, altueran bakarrik hazten diren landareak daude. Esaten da Araotzen mikroklima berezia dagoela, hegoaldera begira, eguzki begian; Gipuzkoan beste inon ez dauden landareak aur-



Jose Antonio Aperribai, kultura etxeen.

ARANTZAZU EZKIBEL

**"Azken 26 urteetan batutako landareak daude erakusketan; 200 landare inguru daude"**

**"Batu eta gero, plastiko batean sartzen ditut; gero, prentsan sartzen ditut eta identifikatu"**

kitu izan ditugu Araotzen. Beste paraje on bat Udalatx da. Hegoaidera begira, Garagartzia alde-rra begira, mediterraneoko antza duten landareak daude han. Landare oso interesgarriak daude gure ibarrean.

**Landarea batu eta gero zer egi-ten duzu?**

Mendian plastiko batean sartzen ditut landareak, ez sikatze-ko. Gero, prentsan sartzen ditut eta identifikatzen hasten naiz; non eta noiz hartu dudan ere idazten dut. Gero, katalogatuta dagoen begiratzen dut, eta, berria bida, katalogatu egiten dut. Hala, Aranzadikoekin harremanetan jarri eta publi-kuatu egiten dugu.

> DIAPORAMA  
**'Auñamendien hatsa' emanaldia Jardunen eskutik, egunean**

Datorren egunean izango da, hilaren 12an, 20:00etan, kul-tura etxeen. *Auñamendien hatsa* diaporama emanaldia eskainiko du Jardun euska-ra elkarreka. Gema Arruga-etaek egindako lana da. Diaporaman, duela 60 milloi urte altxatutako mendikatea eza-gutzeko aukera dago. Izadian murgilduz, mendiak zehar-katuz eta bertako herriean sakonduz, hegoaldea eta ipar-raldea batuta azaltzen dira Auñamendiak.

> MUSIKA  
**Musika eskolako orkestrak kontzertua emango du**

Musika eskolako orkestra sinfonikoak kontzertua emango du datorren eguba-koitzean, hilaren 13an. Kon-zertua Mariaren Lagundi-ko elizan izango da, 19:00etan. Hiru zati izango ditu kon-zertuak: lehenengoan hariz-ko instrumentuak joko dituze; bigarrenean, harizkoak eta haizezkoak elkarrekin arituko dira; eta, azkeneko zatian, haizezko ikasle nagusiak joko dute.

GAZTETXEA > ZINE-KLUBA

## Ekainean eta uztailen, eguenetan izango dira saioak

Datozen bi hilabeteetako pelikulen gaia erotika izango da

A.E. > BERGARA  
Domekatik egunera aldatu dituzte zineklub emanaldiak. Hortaz, ekainean eta uztailen, eguenetan izango dira emanaldiak, 21:30ean, gaztetxeen.

Datozen bi hilabeteetako pelikulek erotikaren gainean jardungo dute. Ekainean, *Lila*

dice -Ziad Doueiri-, *Las mil y una noches* -Pier Paolo Pasolini- eta *La Memoria de los peces* -Liz Gill- emango dituzte. Azken hori egunean izan beharrean eguztenean izango da, hilaren 25ean; lesbiana, gay eta transexualen askapenerako egunaren inguruan izango da.

Uztaileko pelikulak *Lucía y el sexo* -Julio Medem-, *Deseando amar* -Wong Kar-Wai- eta *Historia de 0* -Just Jaeckin- izango dira. Esan bezala, emanaldi guztiak gaztetxeen izango dira, 21:30ean, eguenetan, hilaren 25ekoia izan ezik.

**K O N D E  
PANADEROKUA**



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

**Sugoi**

ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...

**BERRIZ ZABALIK!**  
%20 eta %50eko deskontuak

Irizar pasealekua 2 behea 943 76 59 54 BERGARA



**margolan**  
m a r g o a k

margo industriala  
margo orokorra  
margo dekoratiboa  
erreformak orokorean  
fatxadak

Sagasti auzoa 5-3D • ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 13 • 665 73 39 55 • 687 57 07 77

**K O N D E**  
PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**ANTIA**


HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



Luis senseiak diploma eman dio Julen Iñurrietari, senpai gerriko beltza (1. Dana) lortzeagatik.  
Kirol Kontseilu Gorenak eta Mailen Nazioarteko Epaitegiak emanda.




## Eskaintza

## **Body balance**

Gorputza lantzea, tonifikazioa  
eta flexibilitatea.  
Buruko lasaitasuna.

Spinninga

Spinninga  
Lan kardiobaskularra.  
Spinningeko hiru irakasle.  
Intentsitate ertaineko eta  
handiko eskola kontrolatuak.  
Laster eskola berezia, emakumeentzat  
bekarrik.



**Umeen karate eskola**  
2008-2009 ikasturterako  
matrikula epea irekita.  
**Helduen karatea**

## **Easy-line zirkuitua**

30 eta 45 minutuan lan trinkoa.

## **Galileo: ariketa eta terapia**

## Aerobik-stepa

## Tai txia

## Defensa pertsonala

Uztailean izenematea DOAN.  
Abuztuan zabalik 09:00etatik 14:00etara.

***www.giartzu.com | gimnasio@giartzu.com  
Boni Laskurain 3 BERGARA 943 76 30 05***

MUNDUMIRA &gt; JAIA

# Bizikletak aparteko protagonismoa izango du Mundumira jaian

Mundumira jaiak hainbat berezitasun izango ditu; bizikletak izango duen aparteko protagonismoa da horietako bat

XABIER URTZELAI > BERGARA  
Aurtengo Mundumira jaian bizi-kleta protagonista izango da, antolatutako hainbat ekitalditan ibilgailu hori da-eta ardatza.

Bihar, zapatua, mendiko bizi-kleta irteera egingo dute Bergarako ingurueta (16:00). Aste barruan hainbat lagunek eman dute izena –eguztenean 50 lagun apuntatuta zeuden–, baina askok eta askok azken unera arte itxarongo dute. Izan ere, bihar 11:00etan hasita izena eman ahal izango da, Agorrosinen.

Hiru ibilbide egongo dira aukeran: erraza (22 km), ertaina (38 km) eta gogorra (44 km). Bizi-



BMX bizikletekin saltoak egiteko gunea jarriko dute Ipintzan. MOOPHISTO

kletarekin mendi zeharkaldi horiek egiteko, federatuta daudenek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek, 20 euro. Prezio horren barruan daude osasun eta asistentzia medikua, segurua, material zozketa, opariak, jatekoak eta bestelakoak.

## BMX ERAKUSTALDIA

Bestalde, Ipintzako gunean bizi-kletekin saltoak egiteko gune bat jarriko dute, BMX eta DH bizi-kletekin erakustaldia egiteko.

Amaitzeko, domekan familiarian egiteko bizi-kleta irteera egingo dute (10:30), Osintxura joan-etoria.



Lagunarteko partiduko erretratua, bi taldeetako jokalarien. IÑAKI MARTINEZ

SASKIBALOIA &gt; LAGUNARTEKOA

## Promesek ondo hartu zuten mendean beteranoen saskibaloit taldea (41-34)

X.U. > BERGARA  
Joan den asteburuan partidu gogoangarria jokatu zuten Bergarako saskibaloiko promesek eta beteranoek. Esan barik doa gaztetxoek erraztasun handia goa izan zituztela Labegaraietako kantxan batetik bestera ibiltzeko, adinak ez du-eta baratzaten.

Adinez nagusiago zirenek –bat baino gehiago ama– esperimentazioz baliatu behar izan zuten kontrarioak markagailuan aurrera egin ez zezan.

Dena dela, norgehiagokan zehar indarrak parean egon ziren. Lehenengo hiru laurdenetan inork ez zuen aparteko nagusitasunik erakutsi. Hori bai, laugarren laurdenerako jokalariak nekea igartzen hasi ziren, eta hor, 14-18 urte bitarteko jokalariak gorputzaldi hobea izateaz baliatu ziren partidua irabazteko (41-34).

Lagunarteko hitzordu hori, baina, ez zuten kantxan amaitu, bi taldeetako kideak afaltzea joan ziren-eta ondoren.

**EUSKAL HERRIA**  
montaña • cultura • naturaleza • viajes  
www.euskalherria-aldizkaria.com  
revista de montaña, cultura, naturaleza y viajes  
mendi, kultura, natura, bidea aldizkariek  
aurkezten du

**Mundumira**  
*munduko kulturen festa*

**ekainak 6/7/8**  
**Bergara-Debagoiena**

**Ekainaren 6an**  
ALPHA BLONDY. San Martin Agirre plazan, 22:30ean

Nazioarteko reggae mugimenduan Alpha Blondy taldea da ezagunenetariko bat. Euren musika erritmo jamaikarrek janzen dute, eta 80ko hamarkadako rockaren eragina ere nabaria da. Disko berria aurkezteko daude hemen.



**Ekainaren 7an**  
KAIROKO DERBITXEAK. Ikastolan, 20:00etan

Lau greziarrek, txipretar batek eta italiar batek proiektu bat sortu dute, musika-bidaia batez gozarazteko, Greziako urretan garai desberdinetan sortutako musika-estiloetatik zehar.



**Ekainaren 8an**  
ASIKIDES .San Martin Agirre plazan, 18:00etan

Lau greziarrek, txipretar batek eta italiar batek proiektu bat sortu dute, musika-bidaia batez gozarazteko, Greziako urretan garai desberdinetan sortutako musika-estiloetatik zehar.



## bergararrak kanpoan

Mikel Azkarate-Ascasua > Karrerako amaierako proiektua bukatzen  
Delften bizi da (Herbehereak)

# "Garagardo turismoa egin dugu orain azkeneko Belgikan"

NEREA MENOR > BERGARA  
Mikel Azkaratek Elektronika Tekniko Industrialeko ingeniariaritzat ikasleak hasi zituen MUñ. Goi maila egitera Bordelera joan eta, bertan pare bat urte igaro ondoren, otsailean iritsi zen Delfterra. Karrera amaierako proiektuarekin dabil bertan: "Azkenaldian, buru belarri nabil lanean eta nagusia pozik daukat". Abuztuan itzuliko da eta, urteak kanpoan eman ondoren, herrian gelditzeko asmoa du, "denboraldi baterako, gutxinez, Arrasaten doktoretza egiteko asmoa baitaukat".

Delft Herbehereetako herri tipiko bat dela dio Mikelek; 100.000 biztanleko herria izanik, bzikletan edonora joateko aukera dago. "Asko gustatzen zait bzikletan joatea, bere puntuak du eta zerbaitek gutxiago kutsatzu pozik sentitzen naiz", esaten du. Esperientzia aberasgarria bizi zituen ari dela esan digu Azkaratek: "Herritik irten eta hilabete edo urte batzuetan mundu apur bat ikustea ariketa guztiz gomendagarria da".

**"Asko gustatzen zait  
bzikletan joatea, bere  
puntuak du eta zerbaitek  
gutxiago kutsatzu pozik  
sentitzen naiz"**

Ikasle etxebizitza baten bizi da, unibertsitatetik 10 minututara. Bizilagun atzerritarra ditzu, ikasleak baita ere, bat Istanbuleko eta bestea Dresden-ekoa. Oso ondo moldatzentz dira hirurak, eta "pata-tortilla afariak" oso gogoko dituzte. Bizilagunez gain, lagun asko egin ditu Mikelek, nafarrak eta galiziarrak, batez ere. "Bergarako lagun batzuk ere etorri dira,

eta falta direnak animatu nahi ditut". Asteburueta ez da geldi egoten: "Beti dago zereginha, jairen bat edo bidaiaaren bat. Belgikako hegoaldea bisitatu genuen orain azkeneko; garagardo turismoa egin genuen".

### KONPARAKETETAN

Holandarrak hemengoak baino antolatuagoak direla da Mikelek



Mikel, Enaitz eta Beñat bergararrak, Delften.

MIKEL AZKARATE

aurkitzen duen ezberdinatasun nabarmenena, eta "oso altuak" direla. Otsailean hotz handia jasan behar izan zuen arren, orain eguzkiak sarri berotzen du eta hondartzara joateko aukera ere izan dute; "bainatzeko, aldiz, nirea baino adore handiagoa behar da!". Holandarren eguneko janaria sandwichetara mugatzen dela azaldu digu Mikelek, eta "familia eta lagunek aparte, Kortazarreko pintxoak sumatzen ditut faltan". Nederlandera hitz egiten da Delften, baina gehienek ingelesa ere badakite, "saiatzten ari naiz nire kontu nederlanderaz apur bat ikasten, baina nire ingelesa oso ona ez bada ere, ingelesetan jarduten dut".

Holandan primeran dago Mikel, baina herrira gustura itzuliko dela esan digu; "hemen oso ondo bizi arren, dena nahiko temporala da eta, neurri batean, hori da ere bere xarma".



Beñat Iñarra eta Enaitz Alustiza Mikel bisitatzetan.

MIKEL AZKARATE

**"Bergara eta inguruko  
lagun batzuk etorri dira  
bisitaren, baina falta  
direnak animatu nahi  
ditut"**

**OGIZUN**  
koop. elk.  
**okindegia**

Argazkia Kiñu

**aretxabaleta  
kultura bizia**

# jar ku pe kultur etxea

## ekainak 6. Egubakoitza Inaugurazioa

**11:30** Inaugurazio ofiziala  
**Dantzariak • Zuzeneko musika • Ikus-entzunezkoa  
• Anjel Alkainen antzezlana • Luntxa**

**22:00 'Gu ta Gutarrak'**

Ekainaren 6tik 22ra Artium-en eskutik erakusketa.  
**Euskal Herriko artista garaikideen obrak.**

**ekainak 8. Domeka**  
**19:00** Aretxabaleta **abesbatzaren emanaldia**

**ekainak 10. Martitzena**  
**19:15** Leizarra musika eskolako **Txistu eta Flauta** emanaldia

**ekainak 11. Eguaztena**  
**18:00** Liburutegian  
Maite Frankoren  
**ipuin kontaketa**  
"Halabazango ipuinak"  
**19:00** Zaraia aretoan  
Leizarra musika eskolako  
**Dantza** emanaldia

**ekainak 12. Eguena**  
**19:00** Aretxabaletako Leizarra musika eskolako **talde instrumentalak** eta musika eskolako **abesbatzaren emanaldia**

**ekainak 13. Egubakoitza**  
**17:00 - 20:00** **Dantza ikastaroa:**  
Funky eta Hip hop  
**22:00** Akordeoi orkestraren emanaldia

**ekainak 19. Eguena**  
**19:00** Etiopia oinez **diaporama**  
Asier Arantzabal  
eta Mila Gallastegirekin






KIROLAK > UDAKO KIROL JARDUNALDIAK

# Zabalik, kirol kanpainarako izenematea

Urtero legez, txanda bi egingo dituzte: ekainaren 30etik uztailaren 11ra, eta uztailaren 14tik 24ra

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Kirol Zerbitzuek udarako antolatutako kirol kanpainan izena emateko epea zabalik dago. Lehenengo txandan jardun gura dute-nek hilaren 19rako deitu behar dute kirol etxera; bigarren txandakoek, osteria, uztailaren 9a arte daukate epea.

Adinaren araberako taldeak egingo dituzte. Txikiyenek, 4 eta 5 urtekoek, eta 6 eta 7 urtekoek, igeriketa, ur jolasak eta psikomo-

trizitatea jarduera multzoa izango dute egunero. Horrez gain, beste hiru ikastaro ere bai: igeriketa; patinajea eta minitenisa.

8 eta 9 urtekoek, eta 10 eta 12 urtekoek multikirola izango dute egunero, eta jarduerak txandakatu dituzte: tenisa, patinajea, igeriketa, futbola, pilota... Horrez gain kirol bakarreko ikastaroak dituzte aukeran: igeriketa; tenisa; patinajea; batuca; trialsina eta golfa.



lazko kirol kanpainan tenisean zelan jokatu ikasten, hainbat gaztetxo.

MIRARI ALTUBE

pilotalekuak. Kategoria ezberdinak egingo dituzte adina kontuan hartuta.

ARGIBIDEAK, KIROL ETXEAN

Ordutegiaren, kirol jarduera baten edo prezioaren gainean argibide gehiago gura duenak

kirol etxera deitu behar du (943 71 26 28). Kirol jarduera bakarreko ikastaroen prezioa 10 euro da kirol etxeko harpidedunendako eta 12 euro Aretxabaletako kirol txartela ez dutenendako. Jardue-ra bakoitzean, gainera, gutxiene-ko pertsona kopurua eskatu dute.

HEZKUNTZA > AISIALDIA

## Patin Sugea gaur, Iralabarri plazan

M.A. > ARETXABAleta

Arizmendi ikastolako Lanbide Heziketak -TAFYD zikloak- antolatuta Patin Sugea egingo dute gaur, 18:30ean, Iralabarri plazan. Patinen gainean ibiltzea gustuko duen edonork parte har dezake, eta ondoren, irristaketako hainbat ekintza egingo dituzte: jolasak, hockey partidak, zirkuituak...

500 METRO HELDUTA

Sugea osatu beharko dute patinen gainean egongo diren partadeen artean batak besteari gerritik helduta, eta asmoa da 500 metroko ibilbidea egitea plazaren inguruan: "Samurra ematen du, baina 500 metro ibili egin behar dira sugea apurtu barik", dio Xabin Arriola antolatzaleak.

Orain dela bi urte hasi zen Arizmendi ikastola Patin Sugea antolatzen. Urkulun egin izan



Orain dela bi urte egin zuten Patin Sugea, Urkulun.

ARIZMENDI

dute beti, iaz gainera, izugarrizko ekaitza suertatu zitzaien pareparean eta bertan behera utzi zuten. Aurten, baina, Aretxabaletan egitea erabaki dute: "Ume eta gaztetxoak gero eta gehiago direla konturatutu gara, eta erosogoa izango da herrian bertan,

egitea", dio Arriolak. Gainera, euria eginda ere Iralabarri plazako arkupetan egingo dute.

Ez dute helbururik jarri antolatzaleek, baina 35 lagunetik gora elkartzea gurako lukete —orain dela bi urte baino gehiago— eta urtero gehiago izatea.

> IKASTAROA

### Bizikleta konpontzen ikasteko tailerra, egunean, eta izarren gaineko ikastaroa, egubakoitzean

Loramendi EEk ikastaro bi antolatu ditu. Eguenean, hilak 12, (19:00-20:00) bizikleta konpontzen ikasteko tailerra egingo dute. Eta egubakoitzean, hilak 13, izarren gaineko ikastaroa Txus Arregiren eskuak. Horretarako izenematea epea zabalik dago ekainaren 12 arte, eta ordua izena emandakoekin adostuko dute. Doan dira biak.

> MERKATARITZA

### Merkataritza bultzatzeko jartzen dituzten gaztelu puzgarriak Loramendi kalean egongo dira bihar

Loramendi kalean, Dorleta tabernaren atzeko partean, egongo dira puzgarriak bihar (11:00-13:00). Eta 25 eurotik gorako gastua eginet gero Aretxarte elkarteko dendaren baten txartela jasoko dute Kioskoan, Brasileña kafetegian edo Orly tabernan trukatzeko.


> INTERNET

### Goiztan dago zabalik KZgunea ekainean, eta hainbat ikastaro eta azterketak egingo dituzte

Hil honetan 09:00etik 13:00etara egongo da zabalik KZgunea, eta hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: ikastaroak, IT txartela eskuratzeko azterketak eta osasun txartel elektronikoa eskatzeko aukera. Hitzordua aurrez egitea komeni da (943 79 94 44).

**Villar**  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA



**FAGOR**

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealeku 7  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00  
Faxa: +34 943 71 90 01

MONDRAGON  
UNIVERSITY OF MONDRAGON

Jose Manuel Mateos > Maketa egilea

# "Udaletxearen surrealdea egin dut egurrarekin, eta Otalorako dorretxea egiten nabil orain"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta  
Egurrarekin maketak egiten ditu Valdecarros (Salamanca) herrian jaio eta azken 45 urteotan Aretxabaletan bizi den Jose Manuel Mateosek.

Noiz hasi zinen maketok egiten?

Pasatu dugun neguan. Aurretitik koadroak margotzen nituen, eta egurrarekin gurdiak egin ere bai, Salamancako gurdiak.

Eta zein maketa egin dituzu?

Egin nuen lehenengoa Otalora jauregia izan zen, Euskadiko Kutzak egoitza duen jauregia. Gero, Erronkariko baserri bat eta

Aretxabaletako parroquia etorri ziren, eta azkena udaletxea izan da. Orain, Aozaratzako Otalorako dorretxearekin hasita nago.

Baina ez duzu egiten maketa osoa, zergatik?

Gordetzeko leku handia behar dutelako. Osoa eginda daudan bakarra Erronkariko baseria da; gainerakoei surrealdea bakarrik egin diet. Hala, koadroak bezala zintzilika ditzaket.

Zein material erabiltzen duzu?

Egurra. Parrokiarendako teilitua erosi egin nuen, baina gai-



Jose Manuel Mateos udaletxearen maketaren alboan.

MIRARI ALTUBE



MURUKIXO

## 168 lagun, mendi zeharkaldian

Eguraldi benetan narrasa izan zuten joan zen domekan V. Mendi Zeharkaldia egin zuten mendizaleek, eta lokatz handia aurkitu zuten. Hala ere, ibilbidea ondo adierazita zegoen, eta ez zuten arazorik izan. 168 lagunek egin zuen zeharkaldia, eta, izandako eguraldia kontuan hartuta, Murukixo ME oso pozik azaldu da parte-hartzearekin.

**Mobiliario ARENAZA**


- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

**Iber**

Loteria  
Paper denda  
Liburuak

Otalora 2.  
ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 04 39



**MAPFRE**



%60 ARTEKO BONIFIKAZIOA ZURE

**AUTOAREN ASEGUROAN  
ETA GAINERA BESTE**

%20KO DESKONTUA FAMILIARTEKO  
**BIGARREN IBILGAILUARENTZAT.**

Errekabarren 3 ARETXABAleta

Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net



EM PRESA  
CERTIFICADA  
ISO 9001:2000

**Zenbaki  
Aholkulariak**



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

• Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontabilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

## KULTURA

# Ekitaldiak egongo dira kultura etxeean

Hainbat konzertu, ipuin kontaketa, ikastaroa eta erakusketa daude

M.A. > ARETXABAleta

Kultura etxearen inaugurazio ekitaldia izan da gaur, baina ekitaldiak ez dira bukatu. Datorren aste guztian izango da zer ikusia Arkupe kultura etxeen. Gaur bertan (22:00) *Gu ta gutarrak* ikuskizuna eskainiko dute. Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak eta hainbat musikarik bertsoak eta musika elkartuko dituzte. Bestalde, gaur hasi eta hilaren 22ra bitartean era-kusketa izango da Artium museoaren eskutik.

## HERRITARREN EMANALDIAK

Domekan (19:00) Aretxabaleta Abesbatzaren emanaldia izango da eta martxenean, hilak 10 (19:15), txistu eta flauta konzertua. Eguaztenean, hilak 11, ipuin kontaketa izango dute umeek (18:00) eta danza emanaldia helduek (19:00).

Eguenean, hilak 12 (19:00), musika eskolako talde instrumentala eta abesbatza elkartuko dira emanaldia eskaizteko. Eta egubakitzean dantza ikastaroa (17:00) eta Akordeoi Orkestraren emanaldia (22:00) egongo dira.

ARRANTZA > TXAPELKETA

# Hilaren 15ean egingo dute herri mailako arrantza txapelketa

Izenematea ekainaren 13an bukatuko da, eta parte-hartzaileak hiru mailatan banatuko dituzte: infantilak, gazteak eta helduak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI  
Pago Uso elkartea antolatuta, herri mailako arrantza txapelketa jokatuko dute hilaren 15ean. Hain zuzen, 09:00etatik 12:00etara egin ahalko da arrantzaren, eta parte-hartzaileak hiru mailatan banatuko dituzte adinaren arabera: infantilak (14 urtekoak), gazteak (15-18 urte artekoak) eta helduak (18 urtetik gorakoak)

Parte-hartzaileek izenematea bi modutara egin dezakete: alde batetik, Pago Uso elkartean eman dezakete izena, ekainaren 11n, 12an eta 13an, 20:00etatik 21:00etara

ra; eta, beste alde batetik, Nicolas Ugarte ileapaindegira jo dezakete, egunero.

## KUOTA, ERDIBANA

Txapelketako kuota erdibana ordainduko dute arrantzaleak eta Pago Uso elkartea. Infantil mailakoek lau euro ordaindu beharko dute, eta beste lau euro, elkartea. Ostera, gazte eta helduak mailetakoek 15 euro ordainduko dute, eta Pago Usok, 10 euro.

Arrantza txapelketan parte hartzeko, bi baldintza bete behar dituzte arrantzaleek: federazio-

ko txartela eta arrantzarako baimena eguneratuak izatea eta oñatiarra izatea, hain justu ere.

## ARAUTEGIA

Indarrean dagoen Euskadiko Federazioko Arrantza Arautegia erabiliko da puntuaketa egiteko. Hala, 250 puntu emango dituzte 22 centimetro baino gehiagoako amuarrain bakoitzarengatik, eta puntu bat, amuarrainak pisatzen duen gramo bakoitzeko. Berdinakten kasuan, kontrolera iristen den lehenak irabaziko du. Kontrol gunea San Pedroko plaztxoan, Etxe Aundi jatetxearen surrealdean egongo da.

Aurreko txapelketen antzera, garaikurrak eta hainbat sari banatuko dituzte parte-hartzaileen artean.



Helduen danborradako entseguak irailean hasiko dituzte.

GOIENKARIA



San Pedroko zubitik gora egin ahal izango dute arrantzaren parte-hartzaileek, 09:00etik 12:00etara

GOIENKARIA

UDALA > OSOKO BILKURA

# Ino Galparsoro aske uzteko mozioa onartu zuen Udalak

EAJ, EA eta Oñati Ezkerretiken aldeko botoekin onartu zen mozioa osokoan

M.B. > OÑATI

Arrasateko alkate eta Mankomunitateko presidente Ino Galparsoroaren askatasuna eskaezko mozioa onartu zuen Udalak, maiatzeko osokoan. Hain zuzen, EAJ, EA eta Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotziek aho batez onartu zuten mozioa.

## "ASKATASUNA BERRESKURATU"

Hiru alderdiek eskatzen dute Ino Galparsoro askatza, "persoena gisa dagokion askatasuna berreskuratu" dezan. Gainera, Arrasateko alkatea, 2007ko udal hauteskundeetan, "herritarrek aukeratu" zutela azpimarratzen dute, eta Udalean nahiz mankomunitatean duen lan-konpromisoa betetzea "aske" egon behar duela esaten dute.

Mozioaren bigarren puntua hauxe dio: "Ino Galparsoroaren atxilotaketa bidegabeara eta arrazoi gabea da".

## > EKITALDIAK

### Hitzaldia eta ikasturte bukaerako jaialdia Elkar Hezi ikastetxeen

Elkar Hezi ikastetxeak *Zer da intelectzia?* izeneko hitzaldia egingo du ekainaren 12an, eguna, 18:30ean. Joxe Amiama psikopedagogoak intelligentziaren inguruan hausmarketa egiteko solasaldia gidatuko du, eta familietan sustatzeko intelligentzia mota ezberdinak landuko ditu. Hitzaldia, Elkar Hezi ikastetxeko Lehen Hezkuntzako liburutegian emango dute.

Bestalde, ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute haurtzaindegiko ikasleek eta gurasoek, ekainaren 20an. Xalto pailazoien ikuskizuna, musika eta jolasak egongo dira, besteak beste, haurtzaindegiko lorategian.

## > DEIALDIA

### Oporren aurreko azken odol-ateratzea egingo dute gaur, 18:30ean

Oñatiko odol emaileen taldeak oporen aurreko azken ateratzea egingo du gaur arratsaldean. Donostiatik datozen mediku eta erizainek, 18:30etik 20:30era egingo dituzte odol-ateratzeak Txantxiku Ikastolan. Gaurko odol-ateratzearen ondoren, hurrengoak irailaren 12an, urriaren 10ean, azaroaren 7an eta abenduaren 12an egingo dituzte. Ostera, uztailaren eta abuztuan ez dute ateratzerik egingo.

Oñatiko odol emaileen elkarrekin berezia egin du odola ematera joateko, izan ere, odol emaile kopurua jaisten doa Gipuzkoan eta emaile berriak behar dituzte.

## > EMANALDIA

### Musika eskolakoen ikasturte bukaerako kontzertua, plazan

Jose de Azpiazu Musika Eskola-ko ikasleek ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute, gaur. Urtean zehar landutako gaiak herriaren aurrean erakusteko asmoz, emanaldia, plazan egingo dute, 18:30ean hasita.

Instrumentu ezberdinak taldeka bilduta, guztira, 20 abesti eskainiko dituzte, besteak beste, The Beatles, Mecano, The Corrs, Metallica, eta Latzen taldeen kantak eskainiko dituzte. Bestalde, musikagile klasiko eta euskaldunen kantak ere joko dituzte. Kontzertua, bi kanta herrikoien bukatuko dute: *Ujuka-Borobilta* eta *Aita San Antonio*, hain zuzen ere.

JAIA &gt; XII. ESKORIATZAKO FERIXIE

# Herrigune guztia saltokiz, ekimenez eta jai giroz beteko dute egun osoz

Aurtengo berrikuntza nagusiena izango da egingo duten gazta dastatze eta txapelketa

Ernesto Ezpeleta 'Bihurri' aizkolariak ikuskizuna egingo du ikastolaren aurrealdean eguerdian

#### IKER BARANDIAREN > ESKORIATZA

Eskoriatzako Ferixie da urtean herrian egiten diren ekitaldietatik garrantzitsuenetako bat. Arizmendi ikastolako Jose Arana guneak antolatzen duen arren, Udalaren eta herritar askoren laguntza itzela jasotzen du. Hala, aurten ere 140 bat pertsonak lan egingo dute egun horretan. Horien artean daude gurasoak, aitaita-amamak, irakasleak eta herriko hainbat elkartetako partaideak, hala nola Amuskako emakumeak, dantzariak, trikitilariek eta beste.

Azken urteotan Rosa Elizburu irakaslea izan da azoka antolatzearren arduraduna. Aurten, berriz, Olatz Arrese eskoriatzarrak hartu dio lekukoa. Arresek sei urte daramatz Jose Arana gunean irakasle eta gogotsu hartu du ardura berria.

**SALTOKIEKIN ERREPIDEA MOZTUTA**  
Aurten ere marka egingo dute artisautzaren eta elikagaien saltokiek. Guztira, 90 saltoki jarri-

ko dituzte. Horietatik 53 artisauak; eta 31 barazki eta elikagaiak saltzen dituztenek. Horiez gain, baserrietako tresneria eskuagarri jarriko dutenak, organo emaileena, Txiapasekin Elkartsuna taldekoena, Jose Mari Arkauzek turroia saltzeko jarriko duena eta Arizmendiko ikasleen beste batzuk. Horren ondorioz, Jose Aranatik Aranburu balarara arte errepidea moztuta egongo da gaurko, egubakoitz, 13:45etik zapatuko 17:00ak arte.

#### HERRITAR ASKO ERE, SALTZEN

Mota askotako artisau lanak egongo dira eskuagarri: egur taila, pilota, xaboia, bitxiak, larrua, abarkak, albokak, jostailuak, arropak, euskal jantziak, artilea eta beste. Horietatik, zazpi eskoriatzarrek egingo dituzte, eta beste lau ibarreko beste herri batzuetakoek.

Barazki eta elikagaietako dagoienetan, 31 jarriko dituzte. Horietatik zazpi Eskoriatzakoak izango dira eta hiru bailarako beste



Mota askotako jakia erosteko aukera izan ohi da urtero herrian egiten duten azoka erraldoian.

GOIENKARIA



herri batzuetakoak. Eskoriatzaren kasuan, hiruk gazta salduko dute eta gainontzeko barazkiak. Kontuan hartu behar da horietako gehienek ez dutela euren produktuak salgai jartzen.

#### GAZTA DASTATZE ETA LEHIAKETA

Aurtengo berrikuntza herriko plazan egingo duten gazta dastatze eta lehiaketa izango da. Lehenengo aldia da, eta herriko hiru gaztagilek –Asier Heriz, Mila Goñi eta Arruakua baserrikoak– esku hartuko dute. Bakoitzari bina gazta erosiko diete eta gura duten herriarrek, gazta dastatzeaz gain, bat aukeratu dute.

#### DATUA

**90**

SALTOKI JARRIKO DITUZTE

Aurten 90 saltokik beteko dituzte Eskoriatzako kale gehienak. Horien artean, 53 artisauak jarriko dituzte, eta 31 barazki eta elikagaietako beteta egongo dira. Horiez gain, izango dira beste batzuk: Txipasekin Elkartsuna, organo emaileak, Arizmendiko ikasleenak eta beste batzuk.

11:00etatik 12:00etara izango da gazta dastatzeko aukera herriko plazan. Herriarrek bozkatu ostean, 12:00etan txapela emanago diote aukeratutako gazta egi-leari. Hala, orduan jakinaraziko dute zeinena den gazta bakoitzak.

#### AIZKOLARIEN IKUSKIZUNA

Aurtengo ekitaldi berezia Ernesto Ezpeleta 'Bihurri' aizkolariaren erakustaldia izango da. Izan ere, 'Bihurri'-k munduko errekorra dauka esku bakarrarekin enborrak mozten. 13:00etan ikastolaren aurrealdean izango da era-kustaldi hori eta hainbat saio egingo ditu: esku bakarrarekin



# MIRENTXU

## TABERNA

*Ondo ibili guztiok ferixen!*

Tel.: 943 71 41 67

Olatz Arrese > Ferixaren koordinatzalea

## "Ikusgarria da zenbat herritarrek egiten duten lan azokan"

I.B. > ESKORIATZA

Arizmendi ikastolako Jose Arana guneak dauka Eskoriatzako Ferixaren antolatzeko ardura. Azkeneko urteetan Rosa Elizburu irakasleak izan du horren ardura nagusia, baina aurten Olatz Arrese eskoriatzarrak hartu dio lekukoa. Lanpetuta harrapatu dugu Arrese, baina pozik, azoka hori eskoriatzarrendako, batez ere, oso berezia delako.

Zer da jaitik gehien motibatzen zai-tuena?

Oso egun handia da herriarena, urteko egun garrantzitsuenetako bat. Nik lehen kanpotik ikusten nuen, baina oso gustuko neukan, are gehiago eskoriatzarra izanda. Barruan egon da konturatu naiz jaia herriaren borondatez irteten dela, eta horrek gogo handiagoa ematen ditzu.

Oso modu desberdinean bizi duzu jaia barrutik edo kanpotik?

Orain ere jaia gozatuko dut, baina ardura ematen dit guztia ondo irten go den, zer eguraldi egingo duen.... Antza, ez naiz bakarra, dagoeneko hainbat herritarrek esan didate-eta eguraldiarekin kezkatuta daudela.

Zer da jaitik antolatzeko zailena?

Artisauak ekartzea. Urtez urte sainaten gara batzuk aldatzen eta beste batzuk mantentzen. Artisau asko dira, eta lan handia ematen du.

moztzen, hiru metro eta erdiko zabalera daukan enborrarekin eta motozerrarekin, hain zuzen. Horrez gain, munduko aizkolari gazteena, 8 urte dituen semea, ere ekarriko du berarekin.

### HERRI BAZKARIA

Horiez gain, 12:30ean, Eskoriatzako dantza taldeak, txistulari eta trikitilariekin batera, ikuszkizuna egingo du herriko plazan.

14:00etan, berriz, sari banaketa egingo dute. Hala, txorimalo lehiaketako sariak banatzeaz gain, artisau eta elikagai saltoki onenei ere sariak emango dizkie-te. Guztira, sei sari banatuko dituzte.

15:00etan, herri bazkaria egingo dute pilotaleku. Umeendako eta helduendako menuak pres-tatu dituzte, eta oraindik txartelik eskuratu ez duenak jo dezala lehenbailehen Jose Aranara.



IKER BARANDIARAN

Noiz hasi zineten aurtengo azoka antolatzan?

Urtarril aldera. Lehenik eta behin iazkoaren balorazioa egin genuen eta laguntzaileekin batzarrak egin geni-tuen, zer hobetu edo aldatu jakiteko. Gerora, martxoan hasi ginen arti-sauei deika; eta apirilean eta maia-tzean jo eta su gabiltza.

Eskoriatzarrek egindako jaia da, bai-na eskoriatzarrendako bakarrik?

Ez! Eskoriatzarrok egiten dugu, baina parte hartu gura duen guztia-rendako da. Ibarreko beste herrie-tatik ere jende asko etortzen da. Dago-eneko 12 urte bete behar ditu eta hori igarri egiten da, jendeak ezaguna du

eta errouta dagoela esan dezakegu. Orain arte oso erantzun ona izan dugu, nahiz eta iaz Mundumira jaia-rekin bat egitea igarri egin genuen. Ea aurten!

Ez da, bada, bietako inorendako komenigarria izango urtero bi eki-taldiek bat egitea, ezta?

Ez, ez dut uste. Harremanetangau de Mundumirako arduradunekin, eta erabakiren bat hartu beharko dugu. Hala ere, badakigu askok zapatu goizean Eskoriatzako azokatik buelta bat emango dutela. Izango dute asteburu osoa Mundumirara joateko.

Zein da zure ustez azoka horren arrakastaren arrazoi nagusia?

Txorimalo lehiaketak uste baino zeresan handiagoa du horretan. Aurtengoa hamaikagarrena da, eta urte-rotalde ugari ematen dute izena. Aurten Aretxabaletako eta Eskoriatzako 37 talde ibiliko dira txorimaloak egiten. La kale osoa hartzen dute, eta oso ikusgarria izaten da.

Eta saltokiak ere hor daude, jaki-na. Eskoriatza moduko herri baten erdialde osoa saltokiz betetzen dugu.

Herritarrek ere implikazio handia izaten dute, ezta?

Bai. Ikaragarria da zenbat eskoriatzarrek esku hartzen duten egun horretan. Aurten ere egunean 140 bat lagun ibiliko dira lanean.



GOIENKARIA



IKER BARANDIARAN

## Pintaketak egin dituzte Inkernun

Astelehen gauean ezezagun batzuek hainbat pintaketa egin zituzten Inkernu tabernaren atean eta kristaletan. Bertan, *Abertzale faltsuak*, *Non daude ekintzak aho asko* eta *Nazkagariak* idatzi zituzten, besteak beste. Horren aurrean, taberna kudeatzen duen Aitorrotz Kultura Elkarteak ezagutzen eman du elkartek herrigintzan eta kultura arloan lan egiten duela, eta ateak zabalik dituztela.

AZPIEGITURAK > EIBAR-GASTEIZ AUTOBIDEA

## Bidegiren eta Udalaren arteko bilerak aurrera doaz

Hainbat konponketa adostu ostean, neurri konpentsatzaileak aztertzen dabilta orain

I.B. > ESKORIATZA

Bidegiko arduradunak eta Eskoriatzako Udal Gobernua aldatu zituztenetik, bi erakundeen arteko elkarritzkei ekin diete berriro. Hain zuzen ere, Donostian zein Eskoriatzan bospasei batzar egin dituzten orain arte, eta hurrengoa datoren astean egingo dute, herrian.

Batzar horien helburu nagusia da Eibar-Gasteiz autobidearen lanek herrigunean eta elizateetan eragin dituzten kalte eta aldaketak ahal den neurriai saihestea eta konpontzea.

### AZPIEGITURA BATZORDEA

Bidegirekin adostu eta negozia-tu beharreko gaiak Udaleko Azpiegitura batzordeak azter-tzen ditu. Batzorde horretan

udalerriko alderdi guztiak ordezkatuta daude, eta Elizate-eta zinegotzi Leire Okaran-tza da presidentea.

Bi erakundeek orain arte adostu dituzten puntu garrantzitsuenak honako hauek dira: auzoetako errepideen konpon-ketak; moztuta gelditu diren bide eta zerbitzuak berregitea; Intxaurtxuetako eta beste drai-natze batzuei konponbidea ema-tea eta hainbat mendi-bide kon-pontzea, besteak beste.

### NEURRI KONPENTSATZAILEAK

Orain esku artean duten beste gai bat da autobideko lanen kalteen truke zer nolako neurri konpentsatzaileak eskatuko dituzten. Hori erabakitzuen dabilta Elizateetako eta Uda-leko ordezkariek.



Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

■ Konponketak: Txapa, Margo, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Ondo onto pasau FERIXE egune!

KULTURA &gt; ARTE MARATOIA

# Herriko 15 artistaren lanak tabernetan ikusgai, gaurtik

Tabernetan ez ezik, bi okindegitan eta landetxean ere ikusi ahal izango dira lanak

Pinturak, marrazkiak, collageak, eskulturak, argazkiak eta bonsaiak ipiniko dituzte

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Gaurtik hilaren 15era bitartean, I. Arte Maratoiaren harira, ikusgai izango dira Mox, Gorosti, Larrea, Arin, Surpe, Ongi Etorri, Gailur eta Okaldi tabernetan, Altzarte eta Martin okindegietan eta Ibarreko landetxean herriko 15 artistaren lanak.

Arte diziplina asko izango dira aukeran: Koldo Lizarraldearen, Maritxu Mondragonen, Epi Perezzen, Peio Errastiren, Yolanda Lizarralderen, Antonio Deograciasen eta Andoni Larrañaga-



Artisten eta ostalarien ordezkariek eta Kultura zinegotzia, Arte Maratoiaren aurkezpenean.

ANABEL DOMINGUEZ

ren pinturak; Nagore Igartzaren collageak; Maite Telleriaren eta Susana Morcilloren marrazkiak; Ana Peñalbaren argazkiak; Joxe Mari Galeanoren eta Andoitz Aranbururen eskulturak; eta Samuel Cuevasen bonsaiak.

#### HERRITARREK HERRITARRENTZAT

Maite Telleriak abiatutako ekimenaren helburuak dira herritarrentzat herritarrek egindako artea bultzatzea; Antzuolako artistak ezagutaraztea; eta artea ohiko aretoatik kanporatzea.

Artistek ez ezik, ostalariek ere gogo onez hartu dute ekimena eta hasieratik gertu azaldu dira lanak eurenean ipintzeko.

Lehenengoa izanda, jendearen harrera ikusi beharko dute, baina asmoa da urtero egitea.

**KIROLA > KARATE TXAPELKETA**

## Karate saioan 140 ume lehiatuko dira

Azaroan hasi ziren Antzuolako 40 ume karate eskoletan, bi taldetan banatuta

**I.A. > ANTZUOLA**  
Zapatuan, hilaren 7an, karate txapelketa izango da 16:00etatik aurrera pilotalekuaren. Txapelketan hartuko dute parte Eibarko, Bergarako, Oñatiako eta Antzuolako karate eskoletakoek,

Antzuolan azaroan hasi ziren karate eskolak eta eta 5 eta 12 urte bitarteko 40 neska-mutikok dihar-

dute, bi taldetan banatuta, Joxean Iñarra irakaslearekin. Gerriko zuri-horiarekin hasi ziren, eta batzuek jadanik horia lortu dute.

Txapelketan katak egingo dituzte. Epaimahaiak mugimendurik txukunenak sarituko ditu. Baina, batez ere, herritarrei karate eskoletan ikasitakoa erakusteko baliatuko dute saioa.



Gerriko zuri-horia eta horia dute neska-mutikoko antzuolarrek.

GOIENKARIA

> KINTADA  
**Izena eman behar da 1967-1968an jaiotakoaren afarirako**

1967 eta 1968. urteetan jaiotako antzuolarrek kinto afaria egingo dute ekainaren 28an Ongi-Etorri jatetxearen. Afarirako izena eman behar da aurrez, eta interesatuek Aixa frutategira edo Peli harategira jo beharko dute, edo telefono zenbakia honetara deitu: 600 67 66 01 (Iñigo).

> KIROLA  
**Mendi irteera egingo dute domekan herri inguruaren**

Ekainaren 8rako, Mundumiraren aitzakian, mendi irteera antolatu du Arrolak. Uzarraga, Galartza, Lizarraga eta Irimoegi Goenaren barrena lau orduko ibilaldia egingo dute, 09:00etan Sagastitik abiatuta. Bestalde, hilaren 21ean eskoila umeek ikasturte amaiera-ko ibilaldia egingo dute.

> OSASUNA  
**Azken odol ateratzean, emaile kopurua igo egin zen**

Odol ateratzea izan zen joan den astean, eta Odol Emaile-en Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete gerturatuz zirenei. 93 lagun izan ziren eta elkartekoak pozik daude bestetan baino gehiago izan zirelako. Hurrengo ateratzea irailaren 18an izango da, eta kopurua mantentzea espero dute.

> KIROLA  
**Saskibaloi txapelketarako izena emateko epea, zabalik**

Ekainaren 14rako saskibaloi jaia antolatu du Udalak. Partiduetan eta saskiratze lehiaketetan bederatziz urtetik gorako herritarrek hartu ahal izango dute parte. Ekainaren 11 baino lehen eskolan edo udaletxeko bulegoetan eman behar dute izena.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**ANTZUOLA**

Apaintetako eta isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*

**Zoruen kutxilatu eta bernizatzea**

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**

taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*

Apaintetarako eta industriarako pinturak  
•

**Paper margotuak**

•  
**Moketak eta tapizatuak**

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

POLITIKA > KRITIKA

# Elgetako Abertzaleak taldeak bizi garritasun baimenen atzerapena salatu du asteon

Patxi Basauri buru duen taldeak salatu du Uruburuko etxeendako baimenak zazpi hilabete atzeratu direla, eta soluzio bat exijitu du



Etxebizitzok ez dute bizi garritasun baimenik.

LARRAITZ ZEBERIO

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**  
"Etxebizitzen lehenengo okupazio baimenak 2007ko urriko eman da behar zuen", salatu du Elgetako Abertzaleak udal taldeak. "Urbanizazio lanen atzerapena dela-eta ez da burutu etxebizitzen ematea". Maiatzeko osoko bilkuran salatu zuen egoera hori oposizioko taldeak. "Aralarrek jakinarazi zigun gai hori 20-30 eguneko epean konponduta egongo zela. Epe horiek beteko direlakoan gau de", adierazi du Elgetako Abertzaleak udal taldeak.

## LORATEGIAK, ABANDONATUTA

Patxi Basauriren taldearen iritziz, bestalde, herriko lorategi eta berdeguneak abandonatuta dauduk udal gobernu taldeak. "Belarra moztu gabe eta lorategiak konpon-

du gabe daude. Urte askoan ez da egoera hori gure herrian izan", salatu dute. "Udalak aldi baterako kontratazioak burutu ditzan espero dugu, udan zaintza lanak areagotu egiten baitira".

KIROLA > TXIRRINDULARITZA

# Mendi kriteriumak jarraipena izango du Elgetan, gutxienez, beste urtebetetzez

Asteon egindako azken batzarrean, dozena bat herriar laguntzeko gertu azaldu dira, eta bizi kleta lasterketa uztailaren 20an egingo dute

L.Z. > ELGETA

Elgetako mendi kriteriumak jarraipena izango du, gutxienez beste urtebetetzez. Egindako azken batzar irekian dozena bat lagunek hartutako konpromisoa da. "Posik nago lasterketak edizio berria izango duelako", esan du elkarteko presidente Emilio Man-

dalunizek, "baina erantzun handiagoa espero nuen jendearen aldetik. Gazte batzuk, behintzat, hurbildu dira lanerako gogoarekin. Espero dezagun eguna hurbiltzen den heinean horien atzetik gehiago ere animatzea. Lana handia da eta jendea behar dugu laguntzeko".

Elgetako mendi kriteriuma 23 urte azpiko txirrindulari amateurrendako proba da. Momentuko ziklistarik finenak etorri ohi dira bertara. Proba gogorra da. Aurtengo 24. edizioa izango da, eta, zalantza ugari egon bada ere, azkenean egin egingo da.

> EUSKARA  
**Langileen ekimenez, euskararen eguna egingo dute Recyden**

Recyde enpresako langileek ospakizuna dute bihar, zapatua. Herri kirolak, boleta eta mus txapelketak eta bazkaria egingo dituzte.

Badira bi urte Recyden euskara plana lantzen hasi zirela. Hiru taldean banatuta, langileek mintza saioak, itzulpen lanak eta bi hilean behin *Iepa!* berripapera kaleratzen dute.

> BOLETA TXAPELKETA  
**Anjel Ibarluzea nagusitu da Gipuzkoako 39. boleta txapelketan**

Zapatuan egin zuten Gipuzkoako 39. boleta txapelketako azken saioa. 60 parte-hartzaile elkartziren Elgetako bolatokian, eta San Migel elkarteko Anjel Ibarluzea izan da erregularrena txapelketan, 34 txirlo joaz.

Herriz herrikako txapelketan Sebastian Arantzabal izan da Elgetako jaurtitzailerik onena.

> MUNDUMIRA  
**Gaeuko autobus zerbitzua egongo da gaur eta bihar**

Bergaran aste bukaeran egingo den Mundumira jaialdira joan eta etortzeko gaeuko autobus zerbitzu berezia egongo da martxan gaur eta bihar.

Orduro egongo dira autobusak, Bergarara jaisteko, 19:15ean hasi eta 05:15 arte. Itzultzeko, berriz, 18:10ean hasi eta 06:30era arte egongo dira.

JAIAK > IKASTAROA

# Abian dira larrain-dantza gogoratzeko ikastaroak

Udalak baserritar jantxitako manikiak ipini ditu ikusgai osoko bilkuren aretoan

L.Z. > ELGETA

Elgetako jaietako Herri Egunean, zapatuan, larrain-dantza egin ohi dute herritarrek plazan. Aurretan ere dantza hori gogoratzeko edo ezagutzen ez dutenei era-kusteko ikastaroak ipini ditutte martxan. Lehenengo saioa atzo, eguna, egin zuten, 20:30ean, eskola zaharretan. Hilabete eskas gelditzen da jaietarako eta saiat bat baino gehiago egingo ditutte interesatuta daudenendako.

**JANTZIAK IKUSGAI UDALETXEAN**

Herri Egunean, bestalde, herritarrek baserritar jantzia soinean eraman dezaten bultzatu nahi du Udalak. Hori horrela, baserritar jantziak ipini dituzte ikusgai udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Gaur bertan zabalduko dute erakusketa txiki hori.

Aurrerantzean zabalk egongo da barikuetan 19:30etik 21:00etara eta zapatueta 12:00etatik 13:30era.

AISIALDIA > UDALEKU IREKIAK

# Udalekuak aurten 10-16 urte bitarteko gazteendako ere


Izena emateko  
epea zabalk dago  
udaletxean  
hilaren 16ra arte

Gazteendako (10-16 urte) kirola, argazkigintza eta grafitigintza ekintzak antolatu ditu Udalak uztailaren 7tik 18ra. Prezioa 45 euro da eta ordutegia 10:00etatik 13:00etara.

Kasu bietan, prezio bereziak ditu Udalak txanda bat baino gehiagotan izena ematen dutenendako edo kide bat baino gehiagoko familiendako.

**BEGIRALEAK BEHAR DIRA**

Udaleku irekietan 2-10 urte bitarteko umeekin aritzeko bi begirale kontratatu nahi ditu Elgetako Udalak. Interesatuek udaletxean eman behar dute izena hilaren 16a baino lehen.



LARRAITZ ZEBERIO

# Ikasturte amaiera ospatuko dute

Herri Eskolako umeek ikasturte amaierako ikuskizuna egingo dute gaur, barikua, Espaloia Kafe Antzokian. Aste osoan entseatu dute Espaloian bertan, argazkian ikusten denez. Ikuskizuna 14:30etik 16:00etara egingo dute guraso eta lagunen aurrean. Hain zuzen ere, antzokiko atea zabalk aurkituko dituzte herritar guztiak.

ENERGIA &gt; AREKA PROIEKTUA

# Biomasa eta biogasa izan ziren aztergai Aramaiooko udaletxean

Aramaioko Energiaren Kudeaketa (AREKA) proiektuan dihardu lanean Udalak; mahai ingurua egin zuten joan den barikuan osoko bilkuren aretoan

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

AREKA proiektuaren lehenengo fasea amaitzear da. Aramaion ze motatako energia kontsumitzen den azterzen jardun du Solagro elkartea frantsesak azken hilabeteotan; baita zenbat kontsumitzen den ere. Iban Lizarralde AREKA proiektuaren arduradunetako bat da eta lanaren nondik norakoak azaldu dizkigu: "Lehenengo helburua da aztertzea ze aukera dauzkagun kontsumo hori txikitzeo eta efizientzia handiagoa lortzeko, eta bigarren helburua litzateke ikustea energia hori nola lor daitekeen energia berriztagarrietatik". Horretarako, Aramaion, teknologia desberdinak erabiliz energia

sortzeko dauden aukerak aztertu dituzte: eguzkiarekin, haizearekin, biomasarekin eta urarekin. Aukera horiek aztertu ostean, orain erabakiko dute zein aukera izan daitekeen ekologikoki eta

ekonomikoki egokiena. "Horretarako, teknologia edo aukera horietan adituak diren zenbait pertsona ekarriko ditugu Aramaiora. Hemen dauden aukeren inguruaz azterketa zehatzagoa egin dezan

"azaldu du Lizarraldek. Pasa den astean izan zuten lehenengo bisita. Christian Courier, biomasan aditua, Aramaion izan zen egunean eta barikuan. Aramaioko zenbait baserri bisitatu zituen

eta Udalarekin ere zenbait bileran izan zituen. Haren bisita aprobatzatuz, gainera, biomasaren gaineke mahai ingurua egin zuten udaletxean. Christian Courierrez gain, Euskal Herrian biomasan adituak diren zenbait pertsonak hartu zuten parte Aramaioko alkatearekin batera. Eskoriatzaiko alkate Pedro Lasagabaster ere izan zen mahai inguruaren goniobidatu gisa.

Aramaion energia berriztgarriak erabiltzeko aukerak badaudela uste du Lizarraldek: "Aukearak badaude. Ez dago misteriorik. Gure aitaita-amamek egurra erabiltzen zuten etxeak berotzeko, eta hemengo tailerrekin ura erabiltzen zuten argindarra lortzeko. Beraz, orain landu behar dena da hori nola lor daitekeen gaur egun existitzen diren teknologiekin".

Alkatea pozik dago mahai inguruak emandako emaitzarekin: "Oso aberasgarria izan da. Mahai inguru hau, gainera, AREKA proiektuaren zati bat besterik ez da. Proiektu interesagarria eta garrantzitsua da esku artean daukaguna. Ikusi egin beharko da horrek emantzen dituen fruituak".



Biomasaren inguruko mahai ingurua egin zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan barikuan.

ARRITXU BARRUSO

Christian Courier &gt; Biomasan aditua

## "Aramaion aukerak daude biomasatik energia sortzeko"

A.B. &gt; ARAMAIO

**Biomasan aditua da Christian Courier.** Aramaion izan zen joan zen astean, biomasatik energia sortzea dauden aukerak aztertzen.

Zer ikusi duzu Aramaiora egindako bisitan?

Zenbait baserri bisitatu ditut. Hiru granja; behinek bi eta ardiene beste bat. Baso ustiaren batzuk ere ikusi ditugu. Aramaiori Sui-tzako zenbait herri txikirentzako hartu diot, txokolarik ez dagoen arren. [barre]. Egia esan, aukerak

ikusten ditut Aramaion, esaterako, egurretik edo uretik energia lortzeko.

Udalarekin ere izan dituzu zenbait bilera. Ze aholku eman dizkiezu?

Udalak egin behar duen lehenengo gauza da helburuak ondo definitu. Horren arabera, gero, estrategia zehatz bat landu beharko dute arduradunek. Ni, adibidez, Frantziako herri bateko proiektuan ari naiz lanean. Han zera erabaki dute, energetikoki autonomoa izan nahi dutela; bai argindarraren kasuan eta baita

berroaren kasuan ere. Hori argi izanda, helburu hori lortzeko estrategia lantzen ari gara.

Badago, beraz, energetikoki independentea den herririk?

Europen, hainbat adibide daude. Bat aipatzearren, Austriako Güssing herriarena aipatuko dizut. 90eko hamarkadan proiektu bat ipini zuten martxan hantxe. Euren helburua energia aldetik independenteak izatea zen. Aurten lortu dute hori; hala, gaur da eguna Güssing-en kontsumitzen



GOIENKARIA

den argindarraren %100 eurek produzitzen dutena, eta gauza beragertatzen da beroarekin.

ORIXOL &gt; MENDI IRTEERA

## Pirinioetara irteera antolatu dute ekainaren 14rako

Zapatuan Otsogorrigaina mendia igoko dute, eta domekan, Ori; Izaban egingo dute lo

A.B. &gt; ARAMAIO

Aurten ere Pirinioetara irteera egingo dute Orrox Mendi Elkartekoek. Aste bukaera honetan ziren egitekoak, baina antolakuntzan arazo batzuk izan dituzte eta astebete atzeratu dute mendi irteera; ekainaren 14an eta 15ean egingo dute. Irteera 05:30ean izango da Aramaioko autobus geltoekian. Lehenengo egunean autobusak Belagua utziko ditu eta handik Otsogorrigaina mendia

igoko dute. Izabako Asolaze kanpinean egingo dute lo. Hurrengo egunean autobusak Larraine mendatera eramango ditu eta handik Ori mendia igoko dute. Domeka iluntzerako Aramaion izango dira bueltan.

Mendian bazkalduko dute bi egunetan; beraz, norberak eraman beharko du janaria. Gosaoria, baina, prezioaren barruan sartzen da. Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzezkoek, 65 euro.

DEIALDIA &gt; ODOL ATERATZEAK

## Datorren egunean odola emateko aukera egongo da

Arabako Odol Emaileen Elkartekoek azaldu dute aurten odol falta handia dagoela

A.B. &gt; ARAMAIO

Arabako Odol Emaileen Elkartetik gogorazi nahi dute odola beharrezkoa dela, eta ezin dela laborategietan egin. Antza denez, aurten, gainera, odol falta handia dago; operazioek gora egin dute eta odol ateratzeek, ordea, behera.

Odola eman ahal izateko 18 urtetik gorakoa eta 66 urtetik beherakoa izan behar da. Bestetik, ezinbestekoa da 50 kilo baino gehiago pisatzea. Ez dago

zertan baraurik joan odola ematera. 450 cc ateratzen dira, eta ez dauka inolako eraginik odol bolumenari dagokionez, bolumen hori berehala berritzen da eta zerbitzua edanda. Urte berean emakumeek hiru aldiz eman dezakete odola eta gizonek, berriz, lau aldiz.

Aramaion ekainaren 12an egingo dituzte odol ateratzeak. Arabako Odol Emaileen Elkartekoak osasun etxeen izango dira 16:15etik 20:00etara.

> BERTSOLARITZA  
**Arabako eskolarteko finalean, hainbat aramaioar izango dira**

Bihar, zapatua, Gasteizko Armentia ikastolan Arabako eskolarteko txapelketaren finala jokatuko da. Hainbat proba egingo dituzte goizean zehar, eta Aramaioko hainbat gazte izango dira lehian.

09:00etan idatzizko proba izango da. 10:00etan, gero, 14 urtetik beherako gaztetxoek bat-bateko finala egingo dute. Hiru aramaioar izango dira bertan, Aramaion jokatu zen kanporaketan sailkatu zirenak; Anton Karreterok, Beñat Zalakainek eta Maria Izagak jardungo dute bertsoan. 11:00ak aldera, 14 eta 18 urte bitarteko txanda izango da eta bertan parte hartuko du Xabier Igoa aramaioarrak.

URTEURRENA > DORLETAKO AMAK 50 URTE

## Ekitaldi apala izango da Dorletako Amaren urteurren ospakizunean

Bizkaiko abade batek du interesa, eta herriko txirrindulari batzordearekin egoteko esango diote

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Urriaren 25ean beteko dira 50 urte txirrindularien zaindari Dorletako Amaren irudia Arlabanen jarri zutela, eta zelan ospatu pen-tsatten dabilta. Euskal Herriko txirrindulari batzorde baten interesa piztu du urteurrenak, eta Udalarekin harremanetan jar-tzeko lehen ahalegina egin zuen orain dela aste batzuk. Udalak jakin du Bizkaiko abade bat dabil-lea zerbaite egin guran: "Ez daki-gu zein den, baina txirrindulari izandako baten batekin harremana daukala esan digute. Gatzagan mezak esaten dituen Arantzazu-



Txirrindulariek egindako eskaintza Dorletako Amari.

GOIENKARIA

ko fraidearekin egon omen da, eta orain geuk joko dugu harengana", argitu digu Eusebio Villar alkateak. Eta gaineratu du: "Jakinrazi digute ekitaldi apala egin gurako luketela, meza esan eta beste zertxobait. Edozer gauza eginda ere, xehetasun gehiago jakin gura ditugu; zeintzuk eto-

rriko diren, esate baterako". Urteurrenaren kontua Dorletako Ama Txirrindulari batzordearen eskuetan utzi gura du Udalak. Hala, bi batzordeak kontaktuan jarriko dituzte, eta ekitaldiak euren artean adostu. Hori bai, Udalak gertu dago antolatuko diren ekitaldietan laguntzeko.

GIZARTE ZERBITZUAK > IKASTAROA

## Adinekoak zaintzen dituztenendako ikastaroa

Eskoriatzan egingo dute ekainaren 16tik 20ra; izenemate epea zabalik dago

**M.A. > LEINTZ GATZAGA**

Mendekotasunen bat duten adinekoen zaintzaileendako prestakuntza ikastaroa antolatu dute Gizarte Zerbitzuak. Eskoriatzan egingo dute -Ibarraundi museoan-, Gatzagan taldea sortzea zaila izango delakoan, eta gura duten gatzagar guztiak eman dezakete izena. Horretarako, Udaleko Gizarte Zerbituetara jo behar dute -martitzen goiztan- edo udaletxeko 943 71 47 46 telefonora deitu, eta bertan daukaten izenemate orria bete gura dutela adierazi. Izena emateko azken eguna hilaren 11 da, eguztena. Ikastaroa, ostera, ekainaren 16tik 20ra egingo dute.

**BOST EGUNLEAN HAINBAT GAI**

Aldundiak bideratzenten duen Sendian egitasmoaren barruan antolatu dute prestakuntza ikastaroa, eta Ingema fundazioak koordinatuko du. Bost egunean banatu dute -astelehenetik egutegi-

bakoitzera, arratsaldeetan-, eta hainbat gai landuko dituzte. Ekainaren 16an (15:00-17:00), osasunaren, erizaintzaren eta laguntza teknikoen gaineko ikuspegia azalduko du Icavi Bikain adituak. Ekainaren 17an (15:00-17:00), komunikazioa eta erlaxapen teknikak landuko dituzte psikologo baten laguntzarekin. Eta hilaren 18an, eguztena (17:30-19:30), mediku bat etorriko da mendekotasuna duten pertsonak zeintzuk diren eta zein arazo dituzten azaltze-ko. Hilaren 19an (15:00-17:00), Hurkoia fundazioko kideak izango dira ikuspegia legalen eta etiko-en gainean jardungo dute-nak. Eta egubakoitzean, hilak 20 (15:00-17:00), euskarri diren baliabide sozialak izango ditu berbagai gizarte langile batek.

Mendekotasunak dituzte-nekin bizi direnendako eta egunero-egunero zaintza tokatzen zaienendako oso onuragarria izango dela ikastaroa uste dute gizarte langileek. Gatzagan, GSR kooperatibak ematen duen etxerik etxeko laguntza zerbitzua herriar gutxik dauka -eskaerarik ez dutelako egin-, baina mendekotasunak dituzten adinekoak egon badaude.

**Maulanda merenderoa**

Ondo ibili ferixen!

Maulanda auzoa ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

MENDIKO BIZIKLETA > ARAMAIOKO SARI NAGUSIA

## Euskadiko Open Spiuk txapelketako zortzigarren proba Aramaion domekan

Zirkuituak 6,7 kilometro izango ditu, eta Aramaioko kiroldegian egongo da irteera puntuoa; 10:30ean hasiko dituzte lasterketak

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Aramaioko mendiko bizikleta-ko zale koadrila baten ekinenez Euskadiko Openeko txapelketa egingo dute domekan (10:30), egutegiko zortzigarren. Hala, datozan bi asteotan Openeko bi lasterketa izango dira gurean, Arrasatek -ekainaren 14an- hartuko dio-eta Aramaiori errelebua.

Txapelketan hainbat kategoriako ziklistek hartuko dute esku: kadeteak, gazteak, emakumezkoak, 23 urte azpikoak, eliteak, masterrak eta beteranoak.

ZIRKUITUAK BI ZATI DITU

Lasterketan antolatzaile lanetan ibili den Martin Arriolabengoa azaldu du zelako zirkuitua den: "Bi zati ditu, nahiko ezberdinak. Lehenengo zatia nahiko motela da, igoera gogor samarrak ditue-

lako, eta jaitsieran tramu teknikoren bat edo beste. Bigarren zatia, berriz, ez da horren teknikoa, eta bai azkarra". Antolatzaleek, baina, jarraipen berezia egin diote eguraldi iragarpenei, joan den asteburuan botatako euriteek erabat lokaztuta utzi zutelako igoera, eta nekez egin zitekeelako ibilbide osoa bizikleta gainean.

DORLETAKO AMA

Lasterketan parte hartuko duten lehiakideen artean azpimarratzekoak dira ibarrean Dorletako Ama klubaren barruan dauden bi taldeak: Ederra taberna eta Lizarralde Kirolak. Ederrako ziklistak elite eta master kategoriatan lehiatuko dira -horiek antolatuko dute datorren asteko Arrasateko Opena, Gipuzkoako



Aurrean, Lizarralde taldeko Raul Perez, Tolosako lasterketan ateratak erretretuan.


MARTIN ARRIOLABENGOA

txapelketa izango dena- eta Lizarralde Kirolak taldeko ziklistak, berriz, gazteagoak dira. Hala, Kortabarria aretxabaletarra. Talde horretako hiru kidek, gaine-

ra, etxeak korrituko dute domekan, aramaioarrak baitira Markel Arriolabengoa, Raul Perez eta Bingen Lopez.

## HONDAKINMODELISMO ERAKUSKETA Gasteizko Boulevard dendagunean

Bazen behin sardina lata bat,  
españo ontzibihurtu zena.



Egun batean, Marten lurreratu zen, bere **sardexka** hankekin, eta han aurkitu zuen **albal paperezko** antenak zituen martetar bat, **freskagarri lata zaharrekin** egindako armadura jarrita zuena. Elkarrekin, **mundu garbiago bat** imajinatu zuten. Mundu horretan, hondakinak bividun bihurtuko ziren, eurak bezalaxe; eta haurrei nahiz nagusiei erakutsiko zieten euren ametsa **ez dela fantasia**.

Bisita ezazu artelan birziklatu txikiekin egin dugun erakusketa.  
Alaia Plaza. Ekainaren 2tik 22ra



[www.el-boulevard.com](http://www.el-boulevard.com)

# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa Ekaineko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
20 euro abendura arte

CANON KAMERA

EROSKI  
zurekin



KAMISETA+POLTSA

skunkfunk



ZIRA+KAMISETA

EKFB  
Euskal Beleneko



KAMISETA+URTEBETERAKO  
HARPIDETZA  
+ALDIZKARI SORTA

EUSKAL HERRIA  
[www.euskal-herria.com](http://www.euskal-herria.com)



### SARI NAGUSIA:

#### GETARIAKO ASTILLERO JATETXEEAN BI PERTSONARENDAKO BAZKARIA



SMSaren kostua: 0,60 euro + BEza del bakotzezko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarenatzan dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com



Mendizale talde bat iazko edizioan, atzean Anbotoko haitza dutela.

AIBA

MENDIA > AIBA! ETA ANBOTO KILOMETRO BERTIKALA

## Anbotok bi hitzordu batuko ditu domekan

Aiba! mendi zeharkaldiko eta Anboto Kilometro Bertikala probako antolatzaleek ahalegina egin dute domekan Anboton arazo barik ibiltzeko

XABIER URTZELAI> BERGARA

Domekan mendiko bi hitzordu batuko ditu Anbotok: batetik, Aiba! mendi zeharkaldiko 144 lagun Anbototik igaroko dira *Mari* ibilbidea egiteko (40 kilometro). Guztira 300 lagunek hartuko dute esku Aiba!-n, baina gainontzoko 116 mendizaleek *Azpi*-ko ibilbidea aukeratu dute (32 kilometro); horiek ez dute Udalatx eta Anboto igoko.

Aiba!-rekin batera, domekan egingo dute baita ere Anboto Kilometro Bertikala. Lehenengoz antolatu duten proba horretan 200 lagunek hartuko dute esku –tartean daude 20 debagoendar-. Hala, Arrazolan (229 metro) hasiko dute erlojupeko proba hori: zeinek igo Anboto (1.331 metro) azkarrago.

Proba gogorra da, iraupen motzekoa baina oso esplosiboa; batek baino gehiagok etxeen utziko du pultsometroa, badeazpada. Izenak dioen moduan, lasterkarieki 1.000 metro pasatxo igo beharko dituzte, 3,8 kilometroko ibilbidean. Korrikalariek tontorrera iritsitakoan amaituko dute proba, eta jaitsiera lasai egin ahal izango dute, Urkiola aldera. Hain zuzen ere, hori da antolatzaleek adostu dutena, denak jaitsiko direla Urkiola aldera.

KOMENI BAINO JENDE GEHIAGO

Anboto ezagutzen duen edonork badaki tontorrean ez dela kome ni jende askorik batzea. Hala, Aiba! eta Kilometro Bertikala probako antolatzaleek ahalegina egin dute arazoak ekiditeko. "Oso

ondo konpondu gara", adierazi du Aitor Elortondo Aiba!-ko antolatzaleak. "Euren asmoa zen Zaba laundi aldera jaistea, baina hain justu hortik igoko gara gu; hala, Urkiola aldera jaitsiko gara denak. Alde horretatik, Aiba!-n parte hartu baina Kilometro Bertikala ikusi gura duten mendizaleei eskatuko diegu ez geratzeko tontorrean, beheragotik jarraitzeko proba". Gainera, Elortondok gaineratu du Kilometro Bertikala on egin diela: "Lehiatzeko gogoa daukaten debagoindarrak hara joango direlako. Gurea mendian lasai ibiltzeko zeharkaldia da, argi utzi gura dugu hori".

Amaitzeko, posible da antolatzaleek *Mari* ibilbidea bertan behera uztea: "Aiba!-ren lehentasuna mendizaleen segurtasuna bermatzea da. Horregatik, domekan txarra egiten badu ez gara Udalatxera eta Anbotora igoko; haitz horiek labainkor egongo dira, eta ez dugu inork min harterik gura".

> KIROL EGOKITUA

#### Dordoka taldeko atletak Madrilen izango dira atletismo txapelketan

Kirol egokituko Spainiako Txapelketan izango dira asteburuan Dordoka taldeko Sonia Medina, Nerea Egaña eta Maider Larrañaga, Madrilen.

Horrekin batera, datorren astean Spainiako Boccia Txapelketan izango dira talde bereko Hector Prieto, Amagoia Arrieta eta Agustin Toledo. Hiru kirolariak banaka eta taldean lehiatuko dira.

> PILOTA

#### Debarroko Hirurok sariko finalerako sailkatzeko partiduak

Oraingo egunotan dabilta jokatzen Debarroko Hirurok sariko finalerako sailkatzeko partiduak –finalak ekinaren 15ean–, eta asteburuan ere hainbat norgehiagoka jokatuko dituzte, denak itzulikoak. Besteak beste, gaur jokatuko dute Uarkapen Arrasateko eta Antzuolako seniorrek (19:00), eta kadetan Aretxabaleta eta Arrasate lehiatuko dira, Iturrigorrin (20:00).

> FUTBOLA

#### Aretxabaleta, lehenengo erregionalera igotzeko lehian, Getariara

Pasaia, Sanpedrotarra, BTLS eta Mondra igo dira aurten lehenengo erregionalera, baina oraindik posible da bosgarren talde batek ere gora egitea, eta postu horrenagatik lehian dabilta Aretxabaleta eta Getaria.

Joan den astean 2-1 nagusitu ziren aretxabaletarrak Ibarra, eta bihar, zapataua (17:00, Mendi beltz futbol zelaia), jokatuko dute itzuliko norgehiagoka.

Baliozko eskaintza 2008ko maiatzaren 15etik ekainaren 21era

INFORMATIKA, TELEFONIA, IRUDIA ETA SOINUA

# KONEKTA

EZAZU EUROKOPA'08 REKIN



# 449€

32"



televisión  
digital  
terrestre



PC  
sarrera

6  
hilabete  
interesik gabe\*

TFT-LCD **GRUNKEL** mod. G3208/TDT



**EROSKI**

zurekin

# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



## > GOIENA

Gero eta irakurle eta ikus-entzule gehiago dituzte hedabideek > **51**



## > GOIENA.NET

### BERRITUA

Berritasun ugarirekin dator ibarreko ataria > **51**

## > JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Eusko Ikaskuntzako gerentea da Arrasaten bizi den aramaioarra. GOITBko 'Ilunpean' saioan elkarritzetatuko dute gaur, egubakoitza > **52**



# Mundumiria



# Munduko kulturen jaia

Laugarren edizio honetan, Bergara izango da munduko kulturen topaleku

Musika eta artisautza, elkartasun foroa, mendia eta bidaia ardatz, munduko zapore, usain eta koloreek herriko kaleak jantziko dituzte > **44-45**

## Mundumira, munduko kulturen festa

(43. orrialdetik dator)

J. BEREZIARTUA/E. AZKARATE > BERGARA  
Heldu da, laugarrenez, Mundumira. Gaur hasi eta igandera bitartean Bergarara hurbiltzen denak munduko kulturak herri-  
tik irten gabe ezagutuko ditu.

Lehen edizioa Arrasaten ospatu zenetik, hazten joan den ekimena izan da Mundumira. Bere sorreraren ideia *Euskal Herria* aldzkariko *Viajes por el mundo* izeneko atxikitik dator. Halaxe gogoratzen du Kike Zinkunegik, *Euskal Herria* aldzkariko publizista eta Mundumirako prentsa arduradunak: "Mundumiraren ideia gure aldzkariko atal txiki batetik dator. Aldizkaria Euskal Herrian kokatu arren, kanpoko herrialdeei keinu bat egiten dien *Viajes por el mundo* atal txiki baten oinarritzen da jaialdi honen ideia".

### IDEIATIK EKINTZARA

Hazia ereinda zegoen, baina laguntzarik gabe ez zukeen inolako fruiturik emango. Hala, Debagoieneko Mankomunitateak hartu zuen bere gain ardura, eta ordutik hona, urtez urte herri bakoitzeo udalak harta du jaialdia herrian ospatzeko erabakia.

Hala, Zinkunegik zera oroitzen du: "Urtez urte ibiltaria iza-teko asmoz sortutako ekimena izan zen, eta nahiz eta lehen edizio hartzan zer hobetu bazela kon-



Munduko zaporeen gunean, Seminarioan, beste herrialde batzuetako jakia dastatzeko aukera izango da aurten ere. GOIENKARIA

turatu ginen arren, gustura geunden egindakoaz, aurrera egiteko asmoz".

### HERRIKO ELKARTEEKIN TRATUAN

Jaialdiko prentsa arduradunaren ustez, antolakuntza arloan jasotako erantzuna "izugarri ona" izan da. Horren harira, Mundumira, munduko kulturen festa bada ere, ez da bakarrik kanpoko kulturak ezagutarazterea mugatzen. Hala, gure kultura oso presente izango da beste behin eta jaialdia antolatzan den herriko elkartea eta kultu-

ra taldeekin harremana estua izan da aurten ere. Antolatu diren men-di irteera eta ibilaldi gidatua, topa-gune solidarioa edo hitzaldi ezberdinak Bergarako elkarteeek kudeatu dituzte; besteak beste, Pol-Pol eta Arrolamendi Mendi Taldeak eta Lokatza Txirridulari Elkarteak.

Ez da ahaztu behar jaialdian parte hartzen duen gehiengoa herriko bertakoa izango dela. Ildo horri eutsiz, Zinkunegik aurreratu du kanpoko jende asko etortzea espero dutela, baina gehiengo handieña Bergarakoa edo bailarakoa izan-

go da. "Jaialdian aktiboki zein pasiboki parte hartuko dutenak herrikoak izango dira gehienbat", dio Zinkunegik.

### MUNDUMIRA EZ DA 'KOBETA SONIC'

Bestalde, Zinkunegik aditzera eman duenez, Mundumira ez da azkenaldian hain modan jartzan ari diren makro-jaialdi horietako bat. "Gure asmoa ez da bakarrak gauerako sekulako musika kartela antolatzea", adierazi du *Euskal Herria* aldzkarikoak. Egia esan behar bada, hori ere

### BOST GUNE NAGUSI

#### > SAN MARTIN PLAZA

Musika emanaldiak izango dira bertan. Asteburu osoan, eguerdi, arratsalde eta gauean. Doan izango dira emanaldi guztiek. Bestek beste, Revolutionary Brothers Reggae Sound System, Alpha Blondy, The Baghdad Ensemble, Laboratorio de Samba, Tasha's World... Hau da, mundu osoko musika, baita Bergarako Belceblues eta Mahaster River taldeena ere.

#### > SEMINARIOKO PATIOA

Elkartasun foroa, mendi eta bidaia azoka, munduko zaporeen gunea... izango dira han. Azken horretan, beste herrialde batzuek jakia dastatu ahal izango dira. Musikak ere izango du tokia; izan ere, kaleko animazio hainbat taldek Seminarioko agertokian ere ariko dira.

#### > IBARGARAI KALEA

Artisauen azoka izango da bertan. Leku askotatik etorritako artisauak jarriko dituzte postuak eta lanean ikusi ahal izango ditugu.

#### > UDAL PILOTALEKUA

Oreka TXren *Nömadak TX* ikuski-zun berriaren estreinaldia eta *Munduari itzulia* izeneko marrazki lehiaketaren sari-banaketa izango dira han.

#### > IPARRAGIRRE KALEA

Umeen gunea izango da. Egongo dira tirolinak, zirkua, tailerrak, herri kirolak... eta Menut-Ñaño zirku eskola txiki ibiltaria.

### GALDU EZIN DAITEZKEEN EKITALDIAK



**Alpha Blondy (Boli Kosta)**  
Reggae musika



**OREKA TX**  
Kontzerto multimediatikoa



**Mahaster River eta Belceblues**  
Herriko musika



**Derviches del Cairo**  
Kale animazioa

Mundumira jaialdiak urtero ekartzen ditu nazioarte mailan izugarri entzutesuak diren artistak. Aurtengoan Alpha Blondy reggae jamaikarraren aitentako bat izango da Bergaran. Blondyk *Jah Victory* izeneko bere disko berria aurkeztuko du.

Ez da Euskal Herritik irten behar aparteko ikuskizun batetaz gozatzeko. Txalapartarekin eta *Nömadak* pelikularekin arrakasta borobila lortu du bikote honek. Mundumiran ikuslego mugatua izango duen 50 ikusle-zortzi emanaldi eskainiko dituzte.

Mundumira jaialdira gonbidatzen dituzten artista asko kanpokoak badira ere, antolatzaileek beti hartu dute kontutan herriko jendea. Hala, azken boladan jo eta ke dabiltzan Bergarako talde hauek kontzertua emango dute munduko kulturen aurrean.

Bergarako kaleek kalitatezko animazioa izango dute asteburu honetan. Herriko Trikitixa Eskola edo Taupada taldearen batukadaz gain, orain arte ikusi ez den animazioa izango da. Egipiotik datozen, eta Derviches del Cairo dute izena.



**Finantzaketa kuota pertsonalizatuak**

**SVMS**  
**SERVIMASA**

**Sukaldeko altzariak eta osagarriak**

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO

esan behar bada, hori ere lortu dute; izan ere, gauetako kontzertuetarako, nazioartean famatuak diren artistak ekarriko dituzte. Finean, baina, gaueko kontzertuen antolakuntza ez da Mundumiraren helburu nagusia, eta horren adierazle garbia da aurrekontuaren zatirik handiena eguneko egitarauari bideratu izana.

Azken honen harira, Zinkuneigik aditzera eman du Mundumira antolatzen den herrian "asteburu osoan zehar, egunez, kalean giro ona eta jende guztia-rentzako aproposa dena jartzen saiatzen gara".

#### KULTURA EZBERDINEN TOPALEKU

Mundumira jaialdiak munduko hamaika kultura ezagutzeko aukera ematen du, asteburu batez bada ere. Aurten Bergarako ateak, besteak beste, Akitania, Boli Kosta, Egipto, Irak, Brasil, Aljeria, Grezia, Holanda eta Himalaiaraino zabalduko dira.

Gurean izango diren bisitarien artean, aipatzeko da monje tibetarren bisita. Hain zuzen, aurten *Seremy Tsangpa Khangtsen de Bylakuppe* izeneko indiar monastegiko lau monje etorriko dira Mundumirara. Otoitz eta meditazio bereziak egingo dituzte: batek, bakearen alde; eta bestetik, hondaman ekologioaren eta munduko gosearen aurka.

Horretaz gain, tibetar janari tipikoa dastatzeko aukera ere izango da, baita euren abesti sakratuak entzuteko aukera ere. Eta, hori guztia gutxi balitz, *Shambala, bakearen ate sekretua* deituriko dokumentala proiektatuko dute.

#### CRICKET PARTIDUA ERE BAI

Aurtengo berritasunetako bat: cricket partidua jokatuko dute zapatuan 17:00etan Agorrosingo igerilekuaren belardian. Bergaran bizi diren pakistandarren selek-

## "Gure asmoa ez da bakarrik gauera begira sekulako musika kartela antolatzea"

Kike Zinkunegi

> Mundumirako prentsa arduraduna

zio bat eta Bergarako koadrileta-ko hainbat boluntario ariko dira. Lehia baino gehiago erakustaldia izango da eta pakistandarrak cric-keean jokatzen erakutsiko diete hemengoei. Helburua da pakistandarren eta bergararren arteko harremanak sendotzea eta Pakis-tanen hain ospetsu den kirola gurean ezagutzera ematea.

#### EKITALDI GUZTIAK DOAN

Denetariko egitarau horretan ekitaldi guztiak doakoak izango dira. Horrek, Zinkunegiren esa-netan, Mundumira jaialdira etor-tzeko proposamena "are interes-garriagoa" egiten du. Hori bai, ekitaldiok musu truk izateko Debagoieneko Mankomunitatearen sostengua eta Gintonic Pro-dukzioak taldearen laguntza ezin-bestekoak izan direla nabarmen-du nahi izan du *Euskalherria* aldizkariko publizistikak.

Horiek bakarrik ez, noski, Mundumiraren atzean badaude beste hainbat babesle eta kolaboratzai-le. Kolaboratzaileen artean aurkitzen da Goiena Komunikazio Zerbitzuak. Bestalde, aurten ere kamiseta solidario berria salgai jarri dute. Kamiseta bakoitzak 24 euro balioko du eta 24 horietatik hiru Gobernuz Kanpoko Erakun-deei laguntzeko zuzenduko dira.

Bukatzeko, jaialdiaren inguruko informazio gehiagorako jaialdiaren webgunea ([www.mundumirafesta.com](http://www.mundumirafesta.com)) bisita daiteke.

#### GARRAOAK MUNDUMIRAN

## Autobus zerbitzu berezia asteburu osoan

Autobus zerbitzua indartu egingo dute, gauez zein egunez, Mundumira jairako, egubakoitz, zapatu eta domekan. Hala, autobusak etenik barik ibiliko dira, egun osoan, aste bukaeran ibarrean. Honako linea hauetan, hain justu ere: Oñati-Leintz Gatzaga; Eskoriatza-Oñati; Arrasate-Eibar; Eibar-Arrasate; Elorrio-Elgeta-Bergara-Antzuola-Zumarraga; Bergara-Antzuola-Zumarraga-Legazpi-Oñati-Bergara eta Bergara-Oñati-Legazpi-Zumarraga-Antzuola-Bergara. Autobusen ordutegiak webgune honetan kontsulta daitezke: [www.pesa.net](http://www.pesa.net).

#### ALDAKETAK BERGARAKO GERALEKUETAN

Aste bukaeran Mundumira jaialdia ospatuko denez Bergaran, Ibargarai kalea zirkulazioarentzat itxita egingo da. Hontz, egubakoitzeko 13:00etatik domekako gaura arte, herri barrutik doazen autobuseko zerbitzuek saihesbidetik joan beharko dute. Ondorioz, Ibargarai, Oixondo eta San Lorentzoko geralekuak ezabatu egingo dira eta horien ordez Amillagan, Mutualia ondoan, geraleku bat ipiniko da.

#### AUTOENDAKO APARKALEKUAK

Antolatzaillek dei egin dute autobusak erabiltzeko, baina inor autoz baldin badator, aparkaleku bereziak prestatu dituzte, Mendekoste jaietan-eta egokitzent dituzten moduan. Hala, San Martin Agirre ikaste-tekiko patioa eta Eroskiko aparkalekua erabiliko dira. Bestalde, auto-karabanen elkarretaratzea egingo da Mundumira jaian asteburu osoan, Sorbelz taldeak antolatuta. Elkarretaratze hori Martinez Irala ikastetxe-ko patioan egingo dute, han egokituko dute-eta horretarako gunea.

#### KALE BATZUK ITXITA

Bestalde, Ibargarai eta Herrilagunak (Telefonicako aldaera) kaleak itxita egingo dira asteburuan, artisauen azoka ipiniko dute-eta han. Gaur eguerditik aurrera ezin da han aparkatu.

## Egitarau zabala Debagoien osoan

### 6, egubakoitz

17:30: Irekialdia Seminarioko patioan:

- Mendi eta bidaia azoka.
- Elkartasun Foroa. Gobernuz kanpoko erakundeen eskutik.

- Munduko zaporeen gunea: kebab, kuskus...

- Mundumira kamisetaren aurkezpena; lortutako irabaziak hiru lankidetza-proiektutarako izango dira.

17:30: Artisautza azoka, Ibargarain.

17:30: Erakusketa eta *Elkarren Munduari Itzulia* izeneko marrazki lehiakatzen sari-banaketa. Udal Pilotalekuan.

18:00: *Himalaya, la puerta hacia Shambala* erakusketara bísitaldi gida-tua eta Bakearen Mandala egingo da.

Juan Ramon Llavori-ren eta monje

tibetarren eskutik. Aroztegi aretoan.

18:30: *Nepal maitea* bideo-emanaldia, Koldo Aldazaren eskutik. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

19:00: Musika eta giroa, Tandarica Orkestar Balkanetako musika eta zir-kua. Gypsi musikaren proposamen ikusgarria. Kalean.

19:30: *Psicobloc: ur sakoneko bakarda-dea* bideo-emanaldia, Patxi Usobiagaren eskutik. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

19:30: Bisita gidatua herrian zehar. Izenen bira, gure arrastoen bila. 2 euro. Aranzadi ikastolako jolastotikik aterata.

19:30: *Oreka TXren Nómadak TX ikus-zikuna* berriaren estreinaldia (prentsa-rako saioa). Udal Pilotalekuan.

20:00: *Salam!* Kalejira. Kalean.

20:30: *Nómadak TX ikuszikuna* berria (*Euskal Herria* aldizkariaren harpideen-dako). Udal Pilotalekuan.

21:00: Revolutionary Brothers Reggae Sound System. Elkar agertokian, San Martin Agirre plazan.

22:30: Alpha Blondy (Boli Kosta). Elkar agertokian, San Martin Agirre plazan.

17:00: Bisita gidatua. Arrasateko Erdi Aroko gunea.

17:00: Bisita gidatua. Eskoriatzako Ibarraundi museoa.

17:30: Bisita gidatua. Bergara monu-

mental, San Martin plazan hasita.

17:30: Bisita gidatua. Leintz Gatzagako Gatzaren Museoa.

17:00: Bisita gidatua. Bergara monu-

mental, San Martin plazan hasita.

18:00: *Nómadak TX ikuszikuna*, Oreka TXren eskutik. Udal Pilotalekuan.

18:30: Bisita gidatua. Leintz Gatzagako Gatzaren Museoa.

18:00: Bisita gidatua. Bergara monu-

mental, San Martin plazan hasita.

12:00: *Nómadak TX ikuszikuna*, Oreka TXren eskutik, Udal Pilotalekuan.

12:00: Musika eta giroa, Bergarako tri-

kiti eskolaren eskutik. Kalean.

12:00: Mahaster River (Bergara). Elkar agertokian, San Martin Agirre plazan. Sarrera doan.

12:00: Bisita gidatua. Eskoriatzako Ibarraundi museoa.

12:00: Bisita gidatua. Leintz Gatzagako Gatzaren Museoa.

12:00: Bisita gidatua. Bergara monu-

mental, San Martin plazan hasita.

12:30: *Oñati Sancti Spiritus* Unibertsitatea, San Miguel parroquia eta San Miguel errota. Gaztelerez. Sarrera: 2 euro.

13:00: Musika eta giroa, Batukada Taupadaren eskutik. Kalean.

13:00: Barbad (Armenia, Iran eta Aljeria). Elkar agertokian, San Martin Agirre plazan.

13:00: Bisita gidatua. Leintz Gatzagako Gatzaren Museoa.

13:00: Bisita gidatua. Bergarako tri-

kiti eskolaren eskutik. Kalean.

17:00: Mandala desegiteko zeremonia eta tibetar teaz eta arroz gozoaz gozatzeko aukera, Munduko zaporeen gunean, Seminarioko patioan.

17:00: Musika eta giroa, Batukada Taupadaren eskutik. Kalean.

17:00: Belceblues (Bergara). Elkar agertokian, San Martin Agirre plazan. Sarrera doan.

17:00: Bisita gidatua. Arrasateko Erdi Aroko gunea.

17:00: Bisita gidatua. Eskoriatzako Ibarraundi museoa.

18:00: Asikides (Grezia). Elkar agerto-

kian, San Martin Agirre plazan.

19:00: Musika-kalejira, Bergarako tri-

kiti eskolaren eskutik. Kalean.

20:00: Bisita gidatua. Eskoriatzako Ibarraundi museoa.

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Aramaio.** Etxebizitza salgai Nardaga kalean. Deitu 945 44 51 01 telefonora.

**Arebabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza erdialdean. 16 metro koadroko garajearekin. Prezio interesgarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38.

**Bergara.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzen. Berriztatua eta guztiz jantzia. Bizitza sartzeko moduan. 943 53 22 19.

**Bergara.** 75 metro koadro. Bigarren solairua. Hiru logela, trasteleku eta arropak esegitzeko. Terraza eta barbakoa. Aire giroa. Bi apartakalekurekin. Eguzkitsua eta leku lasaia. Berrieta eta egoera onean. 216.000 euro. 943 76 07 50.

**Bergara.** 80 metro koadro. Bi logela, bainugela, egongela eta sukaldia. Balkoi handia. Dena kanpoaldea. Bergailua eta igogailuarekin. 652 76 86 68.

**Bergara.** Basalgo autoan base-rria salgai, lursailekin. 610 73 65 40 edo 943 76 19 28

**Oñati.** 105 metro koadroko duplexasalgai. Lau logela, sukaldia, egongela eta bi komun. 330.000 euro, negoziagariak. 635 71 41 39.

**Oñati.** 68 metro koadroko etxebizitza salgai herri erdian. Bi logela, sukaldia eta komuna. Igogailuarekin. Terraza, garaje eta ganbara. Guztiz jantzia. 608 34 85.

**Oñati.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai Moyua kalean. Hiru logela, ganbara, sukaldia, egongela eta komuna. Berritua. 228.384 euro. 655 90 97 72.

**Oñati.** Sukaldea, hiru logela, bainugela eta egongela. Garaje itxia eta traslekua. Guztiz berritua. Deitu 665 72 87 89 edo 657 72 25 70 telefono zenbakietara.

**Oñati.** Etxebizitza auzoan. Hiru logela, sukaldia eta komuna. Guztiz eraberritua. 210.000 euro, negoziagariak. Deitu 635 71 41 39 telefono zenbakietara.

**Egela.** Etxebizitza salgai. Ia berria. Hiru logela, bi bainu, sukaldia, egongela, jangela. Jantzia. Oso eguzkitsua. 205.000 euro. 664 79 64 97

**103. ERRENTAN EMAN**

**El Puerto de Santa María (Cádiz).** Bi logelako apartamentu berria ematen da errentan udarako. Valdelagraman. 70 m<sup>2</sup>. Biterraz (bat handia). Hondartzako bigarren ilarran. 605 43 29 31.

**Granadako** Alpujarran natura ingurune paregabean zortzi lagunendako etxe errentan. Terraza handia (18m<sup>2</sup>) ederra. Prezio interesgarria. Argazkiak [www.blogak.com/losmonteros](http://www.blogak.com/losmonteros) blogean. Harremanetarako: [jasonmendizabal@euskalnet.net](mailto:jasonmendizabal@euskalnet.net) edo. 943 79 42 33.

**Jaca.** Apartamentua. Bi logela eta garajearekin. Urbanizazioa, bi igerilekurekin (nagusia eta umeentzat) eta bi tenis pistarekin. Inguruoa umeendako jolastokia. 665 73 95 65.

**Pefiscola (Castello).** Lau edo sei pertsonarentzako moduko apartamentua errentan. Hondartzatik gerto. Igerilekurekin. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00.

**Torrejueva.** Apartamentua errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik hiru. Bi logela, terraza, solarium, garaje itxia eta elkarteko igerileku. Ekin, uztail eta abuztuan. 400 euro asteko. Deitu 609 07 41 27 edo 649 88 79 17 telefono zenbakietara.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Arrasate.** Eskoriatza edo Aretxabalean etxe txikia errentan hartuko luke neska batek. 635 12 87 82.

**Donostia.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Aretoan, abuztuko lehenengo eta azken astetan. 677 98 54 91.

**Gasteiz.** Etxebizitza bila gabilta, ahal bada uztaldean sartzea. Gutxienez hiru logelakoa. 635 75 25 67.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Etxebizitza behar da arrasaten. Arrietako irailetan aurrera, hiru lanagunetako. 665 73 12 05 edo 669 85 87 78.

**Aretxabaleta.** Bikote ardatsuak etxebizitza hartuko luke errentan. 687 98 43 64

**Aretxabaleta.** Bikote gazte batek etxebizitza txikia hartuko luke errentan 2008ko irailetan kaurrea. 685 77 66 85

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko luke familia batek. Lehenbailean. Deitu 647 10 58 85 telefonora.

**Debagoina.** Etxebizitza parte-kutukonuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

# IRAGARKI SAILKATUAK

**1. ETXEBIZITZAK**

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAK OSATU  
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**

401. ESKAINITZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
603. KONPONDU  
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDU  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

Eguazten egundira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizun.

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 686 37 76 79

**Debagoina.** Autobideko lanetan dabilen langile taldeak etxebizitza hartuko luke errentan (5-6 lagun). 687 26 11 44.

**Donostia.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. Aretoan, abuztuko lehenengo eta azken astetan. 677 98 54 91.

**Gasteiz.** Etxebizitza bila gabilta, ahal bada uztaldean sartzea. Gutxienez hiru logelakoa. 635 75 25 67.

**105. ETXEAK OSATU**

**Arrasate.** Etxebizitza behar da arrasaten. Arrietako irailetan aurrera, hiru lanagunetako. 665 73 12 05 edo 669 85 87 78.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da egoera onean dagoen etxea osatzeko. 616 05 97 92.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu etea soatzeko. Deitu 616 05 97 92 zenbakira.

**Bartzelona.** Datorren ikasturte-rako neskak behar dira etxea osatzeko. Bartzelona. Deitu 615 00 49 70 telefonora.

**Debagoina.** Etxebizitza parte-kutukonuke Bergaran edo Arrasaten. 662 08 22 03.

**4/ LANA****401. ESKAINITZAK**

**Arrasate.** Emakumea behar da etxearen garibekita lanak egiteko. Egunean bi ordu. Deitu 649 66 49 85 telefono zenbakira.

**ARETXABAleta****Obra teknikaria****edo antzekoa****behar da.****Bidali datuak****40 posta****kutxara.****ONATI****Saltzailea****behar da****okindegi-gozo-****tegirako.****606 33 44 89****ARETXABAleta****Jatetxeak****sukalde****laguntzailea****behar du.****662 13 27 55****ARETXABAleta**

**Sukaldaria behar da. Plater konbinatuak, ogitartekoak eta pintxoak egiteko.**  
**647 05 42 75**

**ARETXABAleta****Obra teknikaria****edo antzekoa****behar da.****Bidali datuak****40 posta****kutxara.****ARAMAIO****Asteburuetarako****zerbitzaria****behar da****jatetxe batean.****690 85 52 25****ARETXABAleta****Jatetxeak****sukalde****laguntzailea****behar du.****662 13 27 55**

**Bergara.** Esperientziadun emakume euskalduna behar da goizetan umeak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko. Urte askorako lana da. 688 68 18 76.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da astean behin etxe garbitzeo. 943 79 41 15

**Leintz Gatzaga.** Pertsona bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko eta etxe-ko lanak egiteko. Autoa ezinbestekoa da. Deitu 607 49 83 50 telefonora.

**402. ESKAERAK**

**Arrasate.** Pertsona nagusiak zaindu eta etxe-ko lanak egiteko emakumea gertu. 943 08 12 80.

**Bergara.** Emakume esperientziadun adineko pertsonak zaindu lituzean. Orduta zein etxeen bertan bizi izanda. 606 64 16 09.

**Bergara.** Emakumea zerbitzari lanagiteko prest, tabernan edo jantzoetan. Atariak garbitzeko prest ere. 671 71 90 03.

**Debagoina.** 25 urteko mutil arduratsua lanerako gerto. Apa-rejade titula daukak. Taber-

naren zein nagusiak zaintzen ere lan egindo nuke. Luis Alejandro Rodriguez, 943 71 60 97 edo 943 53 37 86.

**Debagoina.** Emakume ardura-sua etxe-ko lanak egiteko ed



**Jon Gonzalez eta Sara Prol** bihar, ekainaren 7an, ezkonduko dira Dorletako Santutegian. Gure Ametsa jatetxeen egingo dute bazkaria, eta, ondoren itsas bidaia egingo dute mediterraneoan. Ondo ibili, bikote! Lagunen eta familiaren partetik.



Bergarako **Isortxe Iza** eta **Gorka Davila** bihar ezkonduko dira Bergarako udaltxean. Ondoren, Lasajatetxeen egingo dute ospakizuna, eta New York-era eta Maya Eriberara joango dira ezkonbidaian. Zorionak, bikote, familia eta lagunen partetik!



**Ainhoa Velez** artxabaletarra eta **Asier Gorosabel** arrasatearra bihar ezkonduko dira Artxabaletako udaltxean. Ospakizuna Baster-Alde jatetxeen egingo dute eta ondoren Ameriketako Estatu Batuetara joango dira. Zorionak, koadrilaren partetik!



Bergarako **Iñaki Akizu** eta **Ekiñe Bilbao** maiatzaren 24an ezkondu ziren Bergarako udaltxean. Ondoren, familiarekin baziak zuten Belaustegi jatetxeen; eta, gauen lagunekin ospatu zuten Agorrosinen. Zorionak eta izan zoriontsu!




**Mikel Ilarduya eta Rakel Hernandez** bihar, hilaren 7an, ezkonduko dira. Bazkaria Zelai-Zabalen egingo dute eta bidaian Greziara joango dira. Familia eta lagunen partetik, ondo ibili, bikote, eta laztan handi bat!

OROIGARRIA

## Miren Lizarralde Sudupe

Oñatin hil zen 2008ko maiatzaren 31n, 44 urte zituela.

Oñatiko Institutuko eta "Errekaldeko" eskolako langileek, ikasleek eta gurasoek bat egiten dugu senideen saminarekin.



Oñatin, 2008ko ekainaren 6an.

OROIGARRIA

## Miren Lizarralde Sudupe

Oñatin hil zen 2008ko maiatzaren 31n, 44 urte zituela.

Zurekin ditugun oroipenak beti gogoan izango ditugu.

Lankideak: Lourdes, M<sup>a</sup> Angeles, Floren eta Asun.



Oñatin, 2008ko ekainaren 6an.

OROIGARRIA

## Mikel Zulueta Zaldunbide

'Zulu'1

2008ko maiatzaren 30ean hil zen, 70 urte zituela

*Beti izango zaitugu gogoan.  
Zure koadrilla*



Arrasaten, 2008ko ekainaren 6an.

ESKER ONA

## Miren Arantza Lizarralde Sudupe

Oñatin hil zen 2008ko maiatzaren 31n, 44 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurra bidali zenizkigutenoi, eskerrak asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko ekainaren 6an.

1. URTEURRENA

## Bixenta Agirre Kortabarria

Lehen urteurreneneko meza ekainaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokan.

*Iraganak, orainak eta etorkizunak bat egiten duten lekuaren berriro elkartuko gara. Bitartean, beti izango zaitugu gure bihotzean. Gero arte eta musu bat, Bixen.*



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

1. URTEURRENA

## Lorentza Erostegi Larrea

Manuel Zabaloren alarguna

Lehen urteurreneneko meza domekan, ekainaren 8an, 11:30ean Antzuolako Errukizko Amaren parrokan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Joxepa Otaduy Ezpeleta

Angel Etxaberen alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 26an, 90 urte zituela.

Sendiak eskerrak beroenak eman nahi dizkie, haren heriotzarengatik, doluminak eta laguntza agiriak erakutsi dizkioten guztiei.



Arrasaten, 2008ko ekainaren 6an.

1. URTEURRENA

## Pilar Zabala Frias

Emiliano Echavarriaren alarguna

Lehen urteurreneneko meza domekan, ekainaren 8an, 13:00etan Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrak asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Felix Iraola Otadui

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 24an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei, eta samin-agurra bidali zenizkigutenei, eskerrak asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko ekainaren 6an.

Babeslea:



OROLORE Hileta eta Beilateko zerbitzuak  
Amillaga Auzoa, 27. 20570 Bergara  
Tel.: 617 442 155 - 943 76 94 73 - Faxa: 943 76 94 76  
maribi@orolore.com



Bidaia ezin hobe  
Bidaia ezin hobe

OROLORE  
Funeraria-Tanatorio  
Hileta eta Beilateko zerbitzuak


## bila-bila 7



## hitz gezidunak

	Higidura	Sexu emea	Pl., fruitu mota
* Irudiko hiriburua	▼	▼	▼
Gaia	►	▼	▼
Arto irinezko opil	▼	▼	▼
Ez estua	▼	▼	▼
Olatu	▼	▼	▼
Hestebete mota	►	▼	▼
Zakar	▼	▼	▼
Jakingo balu	►	▼	▼
Gune sakon	►	▼	▼
Musika nota	►	▼	▼
Ukuiliuak	►	▼	▼
Dago	►	▼	▼
Röntgen	▼	▼	▼
A birritan	►	▼	▼
Indioa	▼	▼	▼
Potasioa	►	▼	▼
Modua	▼	▼	▼
Musika ikurrak	▼	▼	▼
Jainko egiptoarra	►	▼	▼
1	▼	▼	▼

## soluzioak



jeroglifoa: ipurterrea

3	6	8	1	4	5	9	2	7
2	1	9	3	7	6	4	8	5
8	7	1	9	6	3	5	4	2
4	3	6	7	5	2	1	9	8
9	2	5	4	8	1	7	6	3
5	8	7	6	2	9	3	1	4
1	9	2	5	3	4	8	7	6
6	4	3	8	1	7	2	5	9

B	A	R	R	U	K	I	A	K
L	A	D	A	R	A			
S	A	K	O	N	U	N	E	K
B	A	L	E	K	I	A	A	
S	A	L	A	M	I	I	N	
Z	T	I	R	A	I	N		
D	U	B	L	I	N			
M	A							

A	I	R	G	A	R	A	I
N	E	T	N	L	I	Z	U
O	T	E	I	A	R	T	Z
U	R	L	O	N	O	T	F
K	L	B	K	I	G	T	D
U	R	L	O	N	O	T	F
O	T	E	I	A	R	T	Z
N	E	T	N	L	I	Z	U

## sudokua

		3			7	2		
1					4	8		
5					9	3		
2			8			6		
3						9		
7		6				4		
	9	3				5		
8	1					7		
4	2		6					

## hieroglifoa

Egonezina



## hizki salda

Ez Dok Amairu taldeko partaideen 6 abizen

B	E	A	L	P	M	T	E	E
Z	L	T	E	I	A	S	X	O
L	E	R	T	X	U	N	D	I
E	A	U	E	N	B	E	I	U
K	L	B	K	I	G	T	S	D
U	R	L	O	N	O	T	D	F
O	T	E	I	A	R	T	Z	E
N	E	T	N	L	I	Z	U	X
A	I	R	I	G	A	R	A	I

## bono fotoa



**Eskualdeko ze herrian dago Deskarga erreka zeharkatzen duen Marutegi izeneko zurezko zubi hori?**

Argazkia eta galdera >  
Miguel Angel Elkorberezibar

**Super BM**

50 euroko erosketa-txartela  
zozketatuko du GOIENKARIk asmatzaileon artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUDIRIKO  
Goienako edozein egoitzara

Super BMn beti  
eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA

Beragarako ALEJANDRO ALBERDIrenakdo

izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Aitzabal.

# DESKONTU OPERAZIOA



www.carrefour.es

Maiatzaren 29tik ekainaren 10era

Bermatua:

%10 etik

%80 ra

arteko **deskontua**

zure marka gustukoerenen 10.000  
produktu baino gehiagotan.



Carrefour Gorbeia

Orain  
hurbilago



# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.

Etxetresnetan sekulako eskaintzak!

Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



ICF 511 ( 89x156x66 ) cm 425 € 70.975 pta  
ICF 411 ( 89x134x66 ) cm 350 € 58.450 pta  
ICF 331 ( 89x112x66 ) cm 310 € 51.770 pta  
ICF 271 ( 89x91x66 ) cm 285 € 47.595 pta



185  
X  
60  
X  
60 mm

**A** Sailkapen energetikoa  
**HOZKAILUA 6FAC-495**  
**430 €** 71.810 pta



1200 b/min  
8 kgr.



1200b/min  
7 Kg



1000  
b/min  
6kg

**A+** Sailkapen energetikoa  
**GARBIGAILUA L-1026**  
**340 €** 56.780 pta



Europar Batasunaren arauategiak ezartzen  
duen bataz besteko energia kontsumoaren  
araberako energia aurreztea.


**A<sup>+</sup>** 70%  
**A** 45%  
**B** 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperativistendako prezio bereziak.**

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.  
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



## Animatu eta zatoz ferixara ekainaren 7an!

ANTOLATZAILEA

**Arizmendi**  
ikastola  
Jose Arana gunea

Irakurtzen jarraitu... (Erantzunik ez)

■ BERGARA Maider Arregi 2008/06/05 09:58  
**Ingelesezko bisita gidatuak ikasleendako. BIDEOA**  
Bergarako Udalak ingelesezko bisita gidatuak antolatu ditu ikasleendako, herriko ondarea ezagutu dezaten. Helburua bikoitza da; alde batetik, Bergarako historia eta ondarea ezagutzea, eta bestetik, ingelesa praktikatzea. Hemen dituzue azalpen guztiek turismo bulegoko Orintza Berasategiren eskuak:

Irakurtzen jarraitu... (Erantzunik ez)



■ ANTZUOLA Miren Arregi 2008/06/04 16:58  
**'Euskal Herria biziak; nire lehen bidaia' diapositiba emanaldia egin zuten Antzuolan**  
Euskal Herria ezagutzeko 23 proposameneko liburua ere aurkeztu zuen Mikel Bringasek, diapositiba emanaldia eskaintzeaz gain. "Euskal Herria biziak; nire lehen bidaia" izeneko emanaldia egin zuen. Mundumirako egitarauaren barruan antolatutako hitzaldiak, jende dezente erakarri zuen. Emanaldiko protagonistak izan ziren Mikel Bringas, haren emazte Rosa Lizaso eta euren seme Eki. 2006an, semeak 9 hilabete zituela Euskal Herria zeharkatu zuten biziak.

Irakurtzen jarraitu... (Erantzunik ez)



■ BERGARA Maider Arregi 2008/06/05 09:58  
**Ingelesezko bisita gidatuak ikasleendako. BIDEOA**  
Bergarako Udalak ingelesezko bisita gidatuak antolatu ditu ikasleendako, herriko ondarea ezagutu dezaten. Helburua bikoitza da; alde batetik, Bergarako historia eta ondarea ezagutzea, eta bestetik, ingelesa praktikatzea. Hemen dituzue azalpen guztiek turismo bulegoko Orintza Berasategiren eskuak:

Irakurtzen jarraitu... (Erantzunik ez)

■ ANTZUOLA Miren Arregi 2008/06/04 16:58  
**'Euskal Herria biziak; nire lehen bidaia' diapositiba emanaldia egin zuten Antzuolan**  
Euskal Herria ezagutzeko 23 proposameneko liburua ere aurkeztu zuen Mikel Bringasek, diapositiba emanaldia eskaintzeaz gain. "Euskal Herria biziak; nire lehen bidaia" izeneko emanaldia egin zuen. Mundumirako egitarauaren barruan antolatutako hitzaldiak, jende dezente erakarri zuen. Emanaldiko protagonistak izan ziren Mikel Bringas, haren emazte Rosa Lizaso eta euren seme Eki. 2006an, semeak 9 hilabete zituela Euskal Herria zeharkatu zuten biziak.

Irakurtzen jarraitu... (Erantzunik ez)

Argazkian, Goienkaria.net berritua, GOIENKARIaren edizio digitalarekin eta ikus-entzunezkoen hainbat pantailarekin. GOIENKARIA

INTERNET > 'GOIENA.NET', DEBAGOIENEKO ATARIA

## Berritasun ugariz dator 'Goienkaria.net', eskualdeko Interneteko ataria

GOIENKARIA > BERGARA

Goienkaria.net Interneteko atariak berrikuntza ugari izan ditu azkenaldian. GOITBko albistegia jarri zuten duela urtebetetako, Goienkaria.net-en itxura berritu zutenean, eta orain, telebista eta Internet uztartuz, beste bideo pantaila bat jarri dute. Sarean zehar aurkitzen dituzten bideoak (Debagoienearekin zerikusia dutenak) eta GOITBko beste saio batzuetako bideoak sartzen dituzte. Hor jartzen dituzte, adibidez, GOITBko Harmailatik kirol saiko bideoak, albisteetako irudiak eta Debagoieneko musikarien bideoeklipak.

Berrikuntzen artean, deigarrionetarikoa da egubakoitzeko GOIENKARIaren zenbakia; irakurtzen zabiltzan hau berau. Flasheko aplikazio baten bidez GOIENKARIaren azken zenbakia ikus daiteke Goienkaria.net-en bertan. Debagoieneko herritarrok etxearen jasotzen dugu GOIENKARIA paperean, baina orain munduko edozein txokotatik ikusi eta irakurri ahal izango da egubakoitzako GOIENKARIA.

Beste zenbait berrikuntza ere sartu dituzte Goienkaria.net-eko lehen orrian: argazki galeriak, eskelak eta Danbaka.com-eko albisteak, horien artean.

### BISITA KOPURUA GORA

Berrikuntza horien guztien ondorioz, bisita kopuruak gora egin du urte hasieratik hona. Hala, urtarrileko eguneko bisitarien batez bestekoa 1.494 zen (aste bukaerak kontuan hartuta); maiatzean, berriz, 1.855eko batez bestekoa izan du Debagoieneko atariak (aste bukaerak kontuan hartuta).

Aste bukaeretan, edozelan ere, nabarmen egiten du behera eguneko bisitarien kopuruak: zapatu eta domeketan 700 bisitari inguru izaten ditu Goienkaria.net-ek; eta lanegunetan, ostera, 2.500 inguru.

HEDABIDEAK > GOIENA

## Geroago eta gehiago dira Goienkario hedabideak kontsumitzen dituztenak

GOITB beste tokiko telebista batzuk beren esparruan baino gehiago ikusten da

GOIENKARIA > BERGARA

Goienkario hedabideek egonkor tu eta sendotu egin dute irakurle eta ikus-entzuleekiko harremana. Ondorio hori atera daiteke azken urteetako joera ikusiz. Izan ere, geroago eta gehiago dira Goienkario hedabideen irakurleak eta ikus-entzuleak.

CIESek aditzera eman berri du 2008ko lehen datu-oldeko emaitzak. Euskal Autonomia Erkidegoko hedabideen audientziak neurten ditu CIESek eta horien artean Gipuzkoa eta Debagoienea ere hartzen ditu aintzat. Emaitzen arabera, Goienkaria Telebistak herritarren %13,1ek ikusten dute; hau da, Debagoieneko 8.000 lagunek bezperan GOITB ikusi zutela diote CIESen datuek. 2005etik, hau da, CIES erakundea GOITBren audientziak aztertzen hasi zenetik, emaitzarik onena da.

CIESen ikerketatik ateratzen daitekeen beste ondorio bat da ETB1 eta La Sexta baino gehia-

go ikusten dela GOITB, TVE2ren parean. Eta beste ondorio bat: penetrazio indize handiena duena da GOITB. Esaterako, Teledonostia Donostialdean %7k ikusten du; Localia Donostialdean, %4,6k; Localia Txingudi Bidasoaldean, %10ek, eta GOITB, esan bezala, Debagoienean, %13,1ek.

GOIENKARIA LIDER ESKUALDEAN

Papereko hedabideak ere neurtu ditu CIESek, eta, Gipuzkoan El Diario Vasconagusi den neurriean, Debagoienean GOIENKARIA da audientzia handiena duena, 37.000 irakurlerekin, bigarrenari, DV-ri, alde handia ateraz. Gipuzkoan osoan GOIENKARIAK 45.000 irakurle ditu; izan ere, Debagoieneko astekaria gure ibarrean ez ezik kanpoan ere banatzten da.

Goienkario beste hanka nagusia Goienkaria.net webgunea da. Debagoieneko Internet ataria geroago eta gehiagok bisitatzen du. Izan ere, batez beste gaur egun 2.500 pertsona ezberdin sartzen da egunero Goienkaria.net-en. Hortaz, gora egin du azkenaldian bisitarien kopuruak eta horretan zerikusi zuzena dauka egin diren berrikuntzak.

> HIZKUNTZA

### Euskararen normalizazioa bultzatzeko Ukan 2008 kanpaina eta abestia aurkeztu dituze

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak euskalaren normalizazioa sustatzea helburu duen Ukan 2008 kanpaina aurkeztu du gaur, egubakoitza, Donostian. Aurkezpenean izan dira Patxi Bartzarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Jose Antonio Rodriguez Ranz Euskara Sustatzeko zuzendarria; eta Lorea Bilbao, Hizkuntza Politikarako aholkularia. Bestalde, arratsaldean, 19:30ean, Donostiako Bataplan dantza lekuan, kanpainarako propio sortutako Pixka bat es mucho abestia aurkeztuko dute zuzeneko saioarekin eta bideoekliparekin.

## BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA



Ekainaren 20an

AFARIA  
euskaltegiko frontoian

Animatu eta ETORRI!  
Deitu 943 76 44 53 telefonora

**berriak**

> 'ERREPORTAJEA'  
**Lanbide Hastapena**  
izango dute ardatz  
erreportajearen

Datorren asteko erreportajearen Lanbide Hastapeneko eskuila zer den jakingo dugu. Horretarako, Julen Iriondok kamereta eta koadernoa hartu eta Arrasateko Lanbide Hastapenetako ikastetxera egin du bisita. Erreportajerako berba egin du, besteak beste, ikasle, ikasle ohi, irakasle eta gurasoekin. Bertan, mekanizatu, elektrizitate eta iturgintza talierrak eskaintzen dituzte egun. Astelehenean, 21:47an.

> MUNDUMIRA  
**Munduko kulturak**  
ezagutzeko aukera  
Goiena Telebistan

Asteburuan egingo da Bergaran Mundumira, munduko kulturen festa. Laugarren goz, Debagoiena munduko kulturen kolorez, usainez eta musikaz jantziko da. Goiena Telebista Bergaran izango da asteburuan, Mundumirak uzten dituenen gaineko saioa egiten. Jasoko dituzte kaleko giroa, kontzertuak, postueta jaki goxoak, eta abar. *Jaiak* saioan duzue ikusteko aukera.

> ARRASATE IRRATIA  
**Elkartasuna Eguna,**  
**Haurren Dantzari**  
Eguna eta beste

San Juan jaien gertutasunak beste makina bat ekintza ekartzen ditu berarekin, jaiak baino lehenago izaten direnak. Eta dagoeneko iritsi garasaso horretara. Adibidez, bi Elkartasun Egun daude datorren asteburuan, Haur Dantzari Eguna ere bai, danborada, eta besteak beste, pilota txapelketa. Jakina, horrek guztia izango du isla Arrasateko irratian datorren asteko irratsaioetan.

> ARRASATE IRRATIA  
**Musika opari irratian,**  
entzuleen artean  
zozketatzeko

Ez dira faltako opariak Arrasate Irratian datorren astean. Batetik, Gaztelupeko Hotsak diskotxearen eskutik Julian Kanevsky kantariaren CDak ditugu gure entzuleen artean zozketatzeko. Bestetik, 3.60 aretoan oraingo asteburuan ez dute kontzerturik izango, baina, dagoeneko iragarri dute ekainaren 27an Enboskada taldeak kontzertua egingo duela. Bada horra joateko sarrerak ere izango dituzte entzuleen artean zozketatzeko.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

## Josemari Velez de Mendizabal gaur 'Ilunpean' saioan

Eusko Ikaskuntzako gerentea da Josemari Velez de Mendizabal; jaiotzez aramaioarra, Arrasaten bizi da

GOIENKARIA > ARRASATE

Aramaioarra sortzez, Arrasaten bizi da Josemari Velez de Mendizabal txikitistik. Eusko Ikaskuntzako gerentea da, eta baita euskaltzain urgazle ere. Horretaz gain, Kultura sailburu ordeohia ere bada. Idaztea gustuko du Velez de Mendizabalek eta dagoeneko 26 liburu argitaratu ditu; horien artean, gehienak biografiak, baina baita saiakerak eta eleberriak ere. Gaztetan, jarraipenik izan ez zuen musika talde bateko sortzailea ere izan zen. Ez du telebista gustuko, baina Goiena Telebistarekin egoteko tarte bat hartu du. 22:15ean duzue ikusteko aukera.



Josemari Velez de Mendizabal da *Ilunpean* saioko gonbidatua.

GOIENKARIA

**MARRAZKI BIZIDUNAK** > DENETIK

## Etxeko txikitxoendako eta gaztetxoendako eskaintza zabala Goiena Telebistan

GOIENKARIA > ARRASATE

Eskaintza zabala du Goiena Telebistak etxeko txiki eta gaztetxoendako. Hemendik aurrera, gainera, ohiko marrazki bizidunetan 09:00etan izango da.

*Ipar haizearen erronka* aski ezaguna da, bere garaian filma kaleratu zenean izan zuen oihartzunagatik. Hiru neska-mutiko

dira istorioko protagonistak: Donibane balea-arrantzaleen herriko Annie eta Peiot bikiak eta mic-mactarren tribuko buruazgiaren seme Watuna. Hain arbasoek Baleen Badia Handia babes-teko hitzarmena sinatu zuten eta orain, Athanasius izeneko pertsonaia zitala ituna arriskuan ipintzen saiatuko da.

### BESTELAKO ESKAINTZA

Horretaz gain, egunero dago GOITBn etxeko gaztetxoendako eskaintza. Hain zuzen ere, *Munduko Futbol Txapelketa* eskaintzen dihardute eguerdietan.

### telebegi

Edu Mendibil > [www.goiena.net/blogak/edu](http://www.goiena.net/blogak/edu)

## Telesiestak

**B**akarrik bizitzearen abantailatako bat: *manduaren jaun eta jabe bakarra norbera izatea*. *Zapping* egin dezakezu lasai, inoren protestak entzun barik. Jendeak kate batetik bestera jauzi egitea atsegina du gehien, zerbait interesgarri aurkituko duelakoan. Inozoak gu!

Aurrekoan esaldi gogoangarri bat irakurri nion Enric Gonzalez kuttunekoari: zorionekoak kirol emanaldiak gusku ez dituztenak; erretiratuek, insomnioa dutenek eta frigidoek bezala, beste kontu batzu tarako denbora gehiago daukatela zioen. Boxeo beti izan da gautxoriendako. Joan den egubakoitz gauerdian ETB1en boxeo-borrokaldia eman zuten Barakaldoetik. Ez dut boxeoat atsegina (bai, ordea, boxeoa gai duten hainbat film bikain, zuri-beltzean gehienak) eta zalantzak dauzkat telebista publiko baten apustua hori izan behar ote den. Airich eta Williamsek kolpeka zihardutela eta noizean behin, txokoan, *Alzola* ura edaten zutela, ohera joan nintzen. Siestarako aproposak dira tenisa eta txirrindularitzat baita. Ikusleak eta zaleak suspertu ditu Contadorrek eta Nadalek arerioak asperto Roland Garrosen. Biak ala biak ikustea gozamena hutsa da... logura gaindituz gero.

### arrasate irratia

FM 107.7

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.  
Amaia Doyague arraunaria; Igor Elordui AEK-ko Komunikazio arduraduna; Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Iñaki Munduan geltokia  
Elkarrikzetak  
Lorategiaren geltokoa  
Zozketak  
Zorion agurra  
(parte hartzeko: 943 71 71 31)  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarrer ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurra tarte (errep.)

### GOITBko programazioa

#### EGUBAKOITZA, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire, 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta Iur. 16:45 Albisteak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportajea 08. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikuasmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

#### Zapatua, 7

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Ikuasmira. 11:30 ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klip. 12:30 Berbaire. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Erreportajea. 14:00 Euskaldunak ameriketan. 14:30 Erreporter-tpitap. 15:00 Kantari. 16:00 Ipar haizearen erronka. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:30 ikusten. 20:00 Ur eta Iur. 20:30 Animalia. 21:00 Euskaldunak hizketan. 21:30 Erreportajea ttipi tlapa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

#### Domeka, 8

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 09:00 Ipar haizearen erronka. 10:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Kantari. 12:00 Eltze beroa. 13:00 Euskal artzainak. 13:30 Euskaldunak hizketan. 14:00 Erreportajea. 14:30 Ikuasmira. 15:00 Animalia. 15:30 Klip. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta Iur. 20:30 Erreportajea ttipi tlapa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

#### Astelehena, 9

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttipi Tlapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Berbaire. 16:15 Berbaire. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 ikusten. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

#### Martitzena, 10

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klip. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikuasmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

#### Eguaztena, 11

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroia. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Berri. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 ikusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskaldunok hizketan. 22:15 Ur eta Iur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

#### Eguena, 12

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Euskal artzainak. 14:45 Berriak. 15:15 Euskaldunok hizketan. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Urtetako 16:17 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 ikusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera.

# ORAIN GERTUAGO!



## EIBAR - GORBEIA



errazago, azkarrago, erosoago, merkeago eta orain...  
**GERTUAGO!**

MODAZKO 70 DENDA ,  
OSAGARRIAK, KIROLAK,  
SUKALDARITZA, 14 ZINEMA ARETO...

  
**GORBEIA**

# Ekainak 6-12

**LEIRE KORTABARRIA**  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 12

## Ospakizuna



ESKORIATZA

### > Baserrikoproduktuak, artisautza, herri kirolak, animazioa... XII. Ferixien

XII. Ferixie ospatuko dute bihar, herriko plazan eta kale nagusietan. Baserri eta artisautza produktuak, gazdastatze eta lehiaketa -aurtengo berritasa-, *Bihurri* aizkolariaren emanaldia, hankapaloak... egongo dira goiz osoan.

## Zinema



ARRASATE

### > I. Mugarik Gabeko Zinemaldia aurkeztuko du Felix Linaresek astelehenean

Amaia antzokian hasiko da zikloa, 20:00etan, Felix Linaresek aurkeztuta; diktadura gai hartuta, *Paseo* eta *Madres* (argazkian) emango dituzte. Zapata arte, egunero izango dira emanaldiak Arrasaten eta Eskoriatzan.

## Ospakizuna



ARRASATE

### > X. Garagardoaren Festa antolatu du errugbi taldeak gaurko eta biharko

Arrasate Rugby Taldeak X. Garagardoaren Festa antolatu du. Herriko plazan, Alemaniako edaria eta errekiak dastatzeko aukera izango da gaur, egubakoitza, eta bihar, zapataua, 19:00etan hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte.

## Musika

OÑATI

### > Musika eskolako kideek kontzertua egingo dute gaur

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza. Foruen plazan, 19:00etan.

ARRASATE

### > Arrasate Musikaleko orkestra gazteak emanaldia egingo du

Gaur, egubakoitza, Arrasate Musikaleko orkestra gazteak, urteroko ohiturari eutsiz, kontzertua egingo du, Domentx Uzinek zuzenduta.

Gaur, egubakoitza, San Juan Bataiatzailearen parrokan, 20:00etan.

ARRASATE

### > La Txusma eta Bacon Maiden taldeen kontzertua

Arrasateko La Txusma (rock eta metala) eta Bacon Maiden (Iron Maidenen tributua) taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan.

Gaur, 3.60 aretoan, 23:00etan.

BERGARA

### > Reggae gaua eta dantzarako musika Ziripot tabernan

Reggae gaua egongo da gaur Ziripot tabernan, Rude Kanka Soundsystem & Ras Miguelen emanaldiarekin. Bihar, zapataua, Mr. Dubbin-ek musika ipiniko du.

Emanaldiok 23:00etan hasiko dira.

ARRASATE

### > Dantzarako musika emanaldia egingo da 3.60 aretoan

Gonzalo Morbid diskojartzaileak dantzarako musika ipiniko du.

Bihar, zapataua, 04:00etan.

ARRASATE

### > Goikobalu Txiki eta Gazte taldeek kontzertua egingo dute

Goikobalu Txiki eta Gazte abesbatzek emanaldia egingo dute; eurez gain, Billabonako Eresargi Ttipi eta Eresargi Txiki abesbatzek jardungo dute, 100 ume, guztira. Talde bakoitzak bere errepertorioa abestuko du, eta bukaeran, denek batera, Xabier Sarasola musikari beasaindarren eskuistik bi euskal abesti eta maori tribuaren abesti bat kantatuko dute.

Etzi, domeka, San Frantzisko elizan, 17:00etan.

ARRASATE

### > Goikobaluuk Mozarten lan bat kantatuko du

Goikobalu Abesbatzak Mozartaren *Vesperae solennes de confessore* lana estreinatuko du, San Feliperen 110. urteurrena ospatzeko.

Bihar, zapataua, San Frantzisko elizan, 20:00etan.

BERGARA  
**> Willis Drummond eta Hotel taldeen kontzertua**

Txapa Irratiak antolatuta, Baiona, Irún eta Basoitzako Willis Drummond laukoteak kontzertua egingo du. *Anthology* delako diskoko abestiak joko dituzte. Hotel taldeak ere joko du. Kontzertua FMko 97.25ean zuzenean entzuteko aukera egongo da.

Bihar, zapataua, gaztetxean, gauean.

## Lehiaketak

ESKORIATZA

### > Jaietako esaldia aukeratzeko lehiaketan parte hartzeko

Gaur, egubakoitza, bukten da San Pedroetako esaldia lehiaketan parte hartzeko epea. 13 urtetik gorako eskoriatzar guztiak parte har dezakete, hiru eta bost lagun arteko

taldeetan. Gura adina esaldi aurkez ditzake talde bakoitzak, jaiak ondo pasatzera gonbidatzeko; jaiak, euskara eta gazteak elkartuz; jaiak neu-rrrian ospatzea desiratuz... Esaldiok udaletxeko eta kultura etxeeko eskapeetan jarriko dituzte posta kutxetan bota behar dira.

Hiru eta bost lagun arteko taldeetan parte hartu behar da.

ARRASATE

### > 10 urte arteko umeendako marrazki lehiaketa, Badabilen

Badabil dendak marrazki lehiaketa deitu du, eta ekainaren 14a arte egongo da zabalik. Bi maila osatu dituzte: 0-6 urtekoak (txikiak) eta 7-10 urtekoak (jiorrak). A4 formatuko orrietan marrazkiak egin eta dendara eraman beharko dira. Honako sariak daude: txikien mailan, arbel

PROPOSAMENA



bat eta 30 euroko erosketa txartela; eta, juniorrendako, eskuz egindako zurezko zango-maila pare bat eta 50 euroko erosketa txartela.

Argibideak, Badabil arropa denda (Arrasate pasealeku, 3).

## Ikuskizunak

BERGARA

### > 'Nömadak TX' ikuskizuna aurkeztuko du Oreka TX taldeak

Oreka TX taldeak *Nömadak TX* delako ikuskizuna estreinatuko du Mundumira kulturen jaialdiaren barruan. Munduko zenbait kulturatan barrena egindako bidaien bizenpenei ikusi eta entzun ahal izango dira ikuskizun horretan.

Gaur, egubakoitza, *Euskal Herria* aldzkariko harpidedunek ikusiko dute, eta bihar, zapataua, beste lau emanaldi izango dira, 11:00etan, 12:00etan, 18:00etan eta 19:00etan; bukatzeko, etzi, domeka, 11:00etan eta 12:00etan egingo dute.

Emanaldi guztiak frontoian izango dira.

BERGARA

### > 'Auñamendien hatsa' delako diapositiba emanaldia

*Auñamendien hatsa* izeneko diapositiba emanaldia antolatu du Jardun elkartea, Kultur Errötaren eskutik, datorren egunerako. Gema Arrugaeta egingo du, eta 40 bat minutu iraungo du.

Europako mendikate gazteenetako bat orain 60 milioi urte altzatu zen, eta Bizkaiko Golkoko kostaldean bizi ziren euskaldunek, orain 10.000 urte eskas, Auñamendi izenez bataiatu zuten. Nafarroako eta Bidasoako mendiek bat egiten dute, euskal Pirinioek osatzen duten harresi handian. Diapositiba emanaldi horretan, horko izadia, mendiak, herriak, bizimoduak, ohiturak eta kultura ezagutzeko modua egongo da.

Eguenean, kultura etxeau, 20:00etan.

## Ospakizunak

ELGETA

### > Herri eskolako umeek jaialdia izango dute gaur

Elgetako herri eskolako ikasleek ikasturte amaierako jaialdia izango dute.

Espaloian, 14:30etik 16:00etara.

BERGARA

### > San Antonioko jaiak ospatzen hasiko dira egunean

San Antonio auzoko jaiak ospatzen hasiko dira egunean, txupinazoarekin (19:45). Hilaren 13an, egubakoitza, izango dira ekintza nagusiak.

Eguenean hasi eta arte bukaera osoan izango dituzte ospakizunak.

## Erakusketa

ARRASATE

> Eskulan eta orratz-lan erakusketak irekiko du Ekin elkarteak

Ikasturtean barrena eskulan eta orratz-lan ikastaroetan egindako lanen erakusketak antolatu du Ekin Emakumeak elkarrean, eta berau irekiko dute datorren egubakoitzean, hilak 13, Harresi aretoan. Erdialdean zein Musakolan ikastaroetan ibilitako emakumeen lanak dira.

Egubakoitzean, hilak 13, Harresi aretoan, 18:00etan.

ARRASATE

> Euskara elkarteen gaineko erakusketa bisitatzeko aukera

Euskara elkarteen gaur egungo dimentsioaren argazkia eskaintzeko erakusketa muntatu du AED elkarrean. Elkarreton bilakaeraren eta gaur egungo jardueraren berri ematen du erakusketa.

Kulturaten dago, ekainaren 15a arte.

BERGARA

> Basa-landareen erakusketa ipini du Jose Antonio Aperribaiak

Jose Antonio Aperribai berigarra arrak basa-landareen gaineko erakusketa zabaldu du. Urte askoan berak bildutako makina bat landare dauzka, eta horietako batzuk jarri ditu jendeak ikusteko moduan.

Ekainaren 10a arte egongo da beroiek ikusteko modua.

Kultura etxeen, astelehenetik egubakoitzera, 18:00-21:00.

BERGARA

> Himalaiaren gaineko erakusketa egongo da Aroztegin

Mundumira jaialdiaren barruan, *Himalaya, la puerta hacia Shambala* delako argazki erakusketa egongo da Aroztegi aretoan. Juan Ramon Llavoriaren argazkiak dira.

Gonbidatu bereziak izango dira Indiatik etorritako lau tibetar monje. Bergaran dauden bitartean, hau da, domekara bitartean, bakearen alde eta munduko hondamendi naturalek eta goseteek kaltutakoenean alde errezatuko dute, eta euren kantu sakratuak entzuteko aukera egongo da.

Etzi, domeka, da bisitatzeko azken eguna. Ordutegia: gaur, egubakoitzza, 18:00-20:30; bihar, zapatua, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta etzi, domeka, 12:00-14:00.

OÑATI

> Corpus prozesioko irudiak erakusketa ipiniko dituzte

Corpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek. Parrokian izango dira ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00etik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era; domeka eta jaiegunetan, 12:00etik 14:00etara eta 18:00etik 20:30era; eta jai bezperetan, 17:30etik 20:30era.

Bestalde, uztail eta abuztuan, turismo bulegoko bisita gidatuen barruan egongo da erakusketa.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.



## Antes que el diablo sepa que has muerto \*\*\*

Zuzendaria: Sidney Lumet.

Aktoreak: Phillip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Marisa Tomei AEB, 2008. 123 min. 18 urtetik gorakoendako.

**L**aurogei urte pasatxoko zuzendari batek, Sidney Lumet-ek (*Doce hombres sin piedad, Tarde de perros, Veredicto final*), *Antes que el diablo sepa que has muerto* thriller tragikoaren bidez, familia baten istorioa azaltzen digu. Familiako bi semeek, euren artean oso izaera desberdinak izan arren, bitxi-denda nahiko berezia atrakatzea erabaki dute. Ekin-tza ez da pentsatutako moduan irtengo eta hortik aurrera gauzek okerrera egindo dute.

Filma krudela da. Eta kru-deltasuna bai pertsonaien aldetik, bai bizitzaren eta zoritzarraren aldetik dator: bi anaia hesisuta sentitzen dira, ez daukate dirurik eta euren bizitza sentimentalaz ez da baterre ona. Arazo horiei buelta eman nahian, pauso oker bat emango dute, eta horren ondorioz (badakizue, gero eta handiago egiten den elur-bola) kalte gutxiko zirudien ekintza batek -hori bai, moralaren aldetik traizio nabarmeneko ekintza- oso emaitza tragikoa kalkutako moduan.

Istorioaren egitura bitxia da. Garrantzitsua den eszena baten ondoren istorioak denboran atzerantz egiten du. Orduan, filmaren pertsonaia baten ikuspuntuaria jarraituz, ikuslea berriz modu desberdinean ikusiko den eszena beraren lekuoa izango da, baina, hori bai, orain ikusleak informazio gehiago izango du: pertsonaien izaera nolakoak den eta eszena bakoitzaren barrunbeak ezagutuko ditu, eta gertatutakoaren pisu dramatikoak gorantz egindo du.

Denborako gorabeherak, kamera mugimenduak eta plano itxiak istorioari atmosfera zapaltzailea ematen diote. Biolentziak garrantzi handia du eta ekintza guztiak gordintasun osoz eskaintzen zaizkigu. Lumet-ek ikusleari ez dio arnasari hartzten uzten, eta biolentzia, zikoizkeria eta zoritzarrako istorio honen amaieran, ikuslea astinduta ateratzen da.

Antonio Zabala

# Zinema

ARRASATE  
AMAIA ANTZOKIA

Los falsificadores  
Egubakoitzza: 22:00.  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.

Rudy, el cerdito de carreras  
Domeka: 17:00.

BERGARA  
GAZTETXEA

Lila dice  
Eguena: 21:30.

OÑATI  
KULTURA ETXEA

Fuera de carta  
Egubakoitzza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelena: 19:30.

EIBAR  
UNZAGA

Fuera de carta  
Egubakoitzza: 19:30, 22:15.  
Zapatua eta domeka:  
17:00, 19:30, 22:15.  
Astelena, martitzena eta eguztiena: 19:30,  
22:15.

GASTEIZ  
GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal  
17:00, 19:45, 22:15.

Mujeres al borde de un ataque de nervios  
17:30, 20:00, 22:30.

LA NIEBLA

17:30, 20:00, 22:30.

Antes que el diablo sepa que has muerto  
17:30, 20:00, 22:30.

La boda de mi novia  
17:30, 20:00, 22:30.

Algo pasa en Las Vegas  
17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

Elegy  
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal  
17:30, 20:00, 22:30.

Aritmética emocional  
17:30, 20:00, 22:30.

Mil años de oración  
20:00.

El silencio antes de Bach  
18:00, 20:15, 22:30.

Bab' aziz  
17:30, 22:30.

Una chica cortada en dos  
18:00, 20:15, 22:30.

El último viaje del juez Feng  
18:00, 20:15, 22:30.

The dead girl  
17:30, 20:00, 22:30.

Fuera de carta  
12:15, 16:00, 18:10, 20:10,  
22:30, 00:40.

21: blackjack  
17:35, 19:50, 22:05, 00:20.

Todos estamos invitados  
22:15, 00:15.

La noche es nuestra  
20:15, 22:30, 00:45.

Horton (infancia)  
12:15, 16:50, 18:35.

Las crónicas de Spiderwick  
12:15, 16:00, 18:00.

Mi monstruo y yo  
12:15, 15:45, 18:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.  
Eguerdiko saioak, domekan.

Astelena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

Algo pasa en Las Vegas \*

AEB, 2008. Zuzendaria: Tom Vaughan. Aktoreak: Cameron Diaz, Ashton Kutcher. 99 min. Denondako

Jack Pillerrek eta Joy McNallyk Las Vegasen astea bikeria zoro bat pasatzen dute, eta hantxe ezkon-tzen bukatzen dute.

Fuera de carta \*\*

España, 2008. Zuzendaria: Nacho G. Velilla. Aktoreak: Javier Cámara, Lola Dueñas.

111 min. 13 urtetik gorakoendako.

Xantarella goi mailako sukaldaritzar

egiten duen jatetxea da, eta hango

sukalde-buria da Maxi. Gauzak ezin

hobeto doakizkio... oraingo.

Mil años de oración \*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Wayne Wang. Aktoreak: Faye Yu, Henry O, Pasha Lynchhoff.

87 min. Denondako.

Shi jauna Pekinen bizi den alargun

bat da, eta Yilan, bere alaba baka-

rra, bisitatzera joaten da AEBetara.

Yilan oraintxe dibortziatua da eta

aitak lagundu egin gura dio, baina

bien arteko distantzia, fisikoa ez

ezik, mentalitate eta emozio alde-

koare bada.

Antes que el diablo sepa que

has muerto \*\*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Sidney Lumet. Aktoreak: Philip Seymour Hoffman, Ethan Hawke, Marisa Tomei. 123 min. 18 urtetik gorakoendako.

Andy enpresaburua da eta Hank,

haren anai, diru premia larian

daude. Halako baten, gurasoek New

Yorken duten bitxitegia lapurtzea

erabakitzentzate.

La niebla \*\*\*

AEB, 2008. Zuzendaria: Frank Darabont. Aktoreak: Thomas Jane, Marcia Gay Harden, Laurie Holden, Andre Braugher.

127 min.

Stephen King idazlearen istorio

baten oinarrituta dago. Maíneko

hirixka baten, ekaiz baten ondoren,

behelaino beldurgari bat agertzen

da, eta jendea hiltzen doa.

The dead girl \*\*\*

AEB, 2006. Zuzendaria: Karen Moncrieff. Aktoreak: Toni Collette, Rose Byrne, Marcia Gay Harden.

93 min. 13 urtetik gorakoendako.

Neska baten hilketaren inguruan,

best pertsonaren bizitzak elkarrekin

gurutzatuko dira.

## nire aukera



**Maider Etxaniz**  
Udal Gazteria Zerbitzua  
Aretxabaleta

## "Zonalde berdeak gogoko ditut"

**D**uela sei hilabete semea eduki nuen eta, ordutik, nahikotxo aldatu da nire bizitza. Asteburueta, umearekin ibili eta paseatu egiten dut. Asko ibiltzen naiz mendian edo zonalde berdeetan, oso gogoko ditut. Orain, bidegorriatik joaten naiz semetxoarekin, baina lehen, mendira joaten nintzen, Txindokira, Pirineoetara... Familia eta lagunekin pasatzen dut asteburua herriko kaleetan.

Bihar ezkontza edukiko dugu. Asteburu perfektu batean, eguraldi ona egingo zuen; nire bikote eta semearekin naturaz gozatzeko leku batean egongo nintzake.

## Gustatzen zaizu zure lana?

Asko gustatzen zait. Gazteen-

tzako zerbitzu eta ekipamen-

duak antolatu eta jarraipena

egiten diet. Eskoriatza eta

Aretxabaleta artean egiten dut

# Asteburu elektrikoa Getafen

**JAIALDIA** Getafen izan da pasa den aste bukaeran Electric Weekend musika jaialdi erraldoia

**IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI**  
Electric Weekend edo euskaraz *asteburu elektrikoa* litzatekeena bizi izan dute ibarreko hainbat lagunek Getafen.

Izen hori du, hain zuzen ere, Getafen egiten duten musika jaialdi handiak, eta Debagoieneko 40tik gora bisitari izan dira aurtengo edizioan. "Oñatitik baginen talde bat joateko asmoz eta pentsatu genuen denok autoan joan beharrean autobusez joatea. Autobusean lekua soberan genuenez, ipini genituen kartelak hori iragartzen eta ahoz aho ere zabaldu genuen kontua. Horrela, Bergarakit ere jende mordoak eman zuen izena eta oñatiar, bergarar eta aretxabaletar, 40 lagunetik gora joan gara", esan digu Xabi Pico oñatiarrak.

**AUTOBUSENDAKO LAGUNTZAK**  
Halako jaialdietara joateko jorea dute, baina hau izan da autobusean joan diren lehen aldia. Gainera, autobusendako laguntzak ematen dituzte antolatzaleek eta baita sarrera bat doan ere.

**IBARREKOAK** Oñatitik, Bergarakit eta Aretxabaletatik 40 lagunetik gorako taldea joan da jaialdira autobusez

Egubakoitz goizean goiz abiatu, kanpalekuaren dendak ipini eta bostak aldera kontzertuen gunera joan eta goizaldera arte egon ziren kontzertuak entzuten, bi egunean. "Joan gara musika eta horrelako jaialdietan sortzen den giroa gustuko ditugulako. Aste bukaeran zerbait aparteko egi-teko aprobetxatu dugu parranda eta musika uztartuz", esan digu Xabi Picok.

Arratsaldean kontzertuak hasi eta goizaldera artean talde mordoa entzuteko aukera izan zuten, oso ezagunak batzuk. Egubakoitzean, esaterako, talde handienak Rage Against The Machine eta The Offspring izan ziren eta zapatuak Metallica eta Machine Head. "Denetariko jendea joan gara eta gustuak ere asko. Nik Rage Against The Machine iku si nahi nuen, baita Cavalera Conspiracy ere. Sepulturan ibilitako Max Cavaleraren eta haren anaia-ren taldea", esan digu Picok.

Getafetik bueltan, hasi dira Bilboko jaialdirako planak egi-ten, baina autoz joango dira.

**TALDEAK** Rage Against The Machine, Metallica eta beste hainbat talde entzutetsuk jardun dute



DEBAGOIENDARRAK Bergarakit, Oñatitik eta Aretxabaletatik joan dira Getafara musikaz eta parrandaz gozatzen. GOIENKARIA

## ahobero

"Kutsadurak ez du ingurumena kaltetzen, airean eta uretan dauden zikinkeriek baizik"

Pamela Anderson > Aktorea

Ingurumenaren Eguna izan da asteoan, eta aktore horrek badirudi ingurumen eskolan piper egin zuela. Bestela, airean eta uretan dauden zikinkeriek, kutsadurak alegia, kaltetu dute bere ingurua edo bere burua eta horrelako tontokeriak esanez kutsatzen ditu bazter guztiak.

## iturri onetik

**Film pornografikoen bikoizketa lehiaketa egingo dute San Juan jaietan gaztetxean**

Sanjuanetan, ekainaren 22an, domekan, txokolate jana eta film laburren emanaldia izango da gaztetxean, 18:00etan. Horren ostean, gaztetxean bertan, film pornografikoen bikoizketa lehiaketa egingo dute. Eszena pornografikoak ipiniko dituzte eta taula gainera igoko da jendea filmak euskaran bikoizteria. Partehartzaileek puntuak jasoko dituzte jaien amaieran Urrezko Dragoia irabazteko.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

### Tranbiaren zain

Azken GOIENKARIAk zekarren azpiegituren publighigarrian, arretaz erreparatu nion tranbiaren gaiari, ea publizitateaz gain informazio zerbait ba ote zetorren. Eta aurkitu nuen aspaldiko leloa Garraio sailburuaren ahoan: "Hobe da ondo adostutako proiektua, horrek eraikitzea atzeratuko duen arren".

Izango dira 10 urte tranbiaren egitasmoa abiatu zela, eta badatoz 4 lehenengo proiektua jendaurrean erakutsi zenetik. Eta, gezurra badirudi ere, oraindik alegazioak jasotzen ari dira! Horren atzean daude gure udalen egoera politiko bihurria eta beste hainbat arazo. Baino atzerapenaren ondorioak larriak dira: ibarra kohesio-natu gabe autobideak jarriko digu mundua eskura. Gasteiz edo Donostia Oñati baino eskurago. Txarto gabiltza.

## ai,ene!



**Etxe benetan bitxia harkaitzaren gainean**

Esaeraren arabera, harkaitzean sortuak harkaitzean nahi du, baina nor bere etxera joateko hain gora igo beharra ere...

www.planetacurioso.com



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatuz.**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51